# Goienkaria

2007ko azaroaren 23a > Egubakoitza > VII. urtea > 310. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



"Hirugarren adineko pertsonei asko lagunduko die abisu sistema honek"

**Igone Velez Isasmendi**
Ikertzailea > 09

---

**G2a** 'El duo de la africana' zarzuela, Arrasaten > 43-44

**EAE-ANV**
Independentistak batu eta Aldarria aurkezteko bilkurak deitu ditu > 06

**ETORKINAK**
Kanpotik datozen umeek euskara ikasteko eskolak, Arrasaten > 25

**ABIADURA HANDIKO TRENA**
Trenaren kontrako hainbat ekitaldi asteburuan, Bergaran > 25

---

**EMAKUMEA** > TRATU TXARREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

# Bilkurak deitu dituzte genero indarkeria salatzeko

**DEIALDIAK** Ibarreko herri gehienetan deitu dituzte ekitaldiak domekarako

**BALIABIDE GEHIAGO** Mankomunitateak bultzatutako zerbitzuak eskatu dituzte > 02-03

---

**ZERBITZUAK** > OSPITALEA

## Ospitalea Europan eredu

Ospitaleak daukan larrialdiak kudeatzeko sistema, Europako Kalitatearen astean > 06

---

**GARRAIOA** > AZTERKETA

## Ibarreko garraio beharrak aztergai

Azterketa egingo dute Jaurlaritzak eta Mankomunitateak elkarlanean > 05

Bidaiarien eta merkantzien garraioa aztertuko dute eta ikerketaren helburua da Debagoienean egun dauden beharrak eta etorkizunean egongo direnak aztertzea, mugikortasunari eta merkantzien garraioari dagokionez. Azterketaren azken helburua da garapen ekonomiko jasangarri baten modeloa izatea. > 05

---

## Etxebizitzen gaineko gehigarria

GOIENKARIArekin batera, 16 orriko gehigarria etxebizitzen gainean, dena koloretan.




---



**IBILBIDE LUZEA** Elgetako pilotariak Aspen eman ditu azkeneko bederatzi urteak. GOIENKARIA

**PILOTA** > ELKARRIZKETA AITOR ELKORO ELGETARRARI

## "Gu etorri ginen bezala, badatoz beste batzuk eta lekua egin behar zaie"

Aitor Elkorok abenduaren 30ean jokatuko du azkeneko partidua > 40-41

---

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-08
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-42
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55

IKER

SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
BAINUAK:
ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR Zatoz eta ikus itzazu!




Toyota Yaris 1.3 87 ZP 100 € hilean

TOYOTA
www.euskoauto.toyota.es

EuskoAuto
Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

**EMAKUMEA** > ADIN ETA JATORRI EZBERDINEKO SEI EMAKUMEREN IRITZIA JASO DUGU

# Heziketan dago genero indarkeria ekiditeko gakoa



Eider Arizabaleta
Bergara / 28 urte





Luz Estela Gonzalez
Kolonbia / 44 urte



**ELKARRETARATZEAK** Etzi, domeka, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da eta ibarreko zenbait herritan elkarretaratzeak deitu dituzte

**ZER DIOTE EMAKUMEZKOEK?** Tratu txarren gainean ibarrean bizi diren emakumeen iritzia jakin nahi izan dugu eta adin eta jatorri ezberdineko lagunei galdetu diegu

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Etzi, domeka, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izango da. Tratu txarren gainean hitz egin dugu ibarrean bizi diren sei emakumerekin. Adin eta jatorri ezberdinekoak aukeratu ditugu, bakoitzak duen ikuspegia ezagutzeko. Hona, erantzun digutena:

### Eider Arizabaleta
BERGARA, 28 URTE

1 / "Tratu txarrez hitz egiten dugunean ez gara bakarrik golpeetaz ari. Irainak ere tratu txarra dira. Psikikoak, hain zuzen. Errespetua galtzen da kasu guzti horietan. Bada, indarkeriaren gainean egoera ezberdinak daudela uste dut, bikote bakoitza mundu bat da-eta".

2 / "Zalantzan nago. Indarkeria jasaten duten emakumeek laguntza gutxi dute. Ez nago gaian oso jarrita baina, zerbitzu nahikorik ez dagoela uste dut. Babes gehiago jarri behar zaie".

3 / "Laguntza eskaini. Esaterako, tratu txarrak direla-eta salaketa bat jarri bezain pronto babesa jarri behar zaie pertsona horiei. Emakumeei, bestalde, lehen alditik salaketa jartzea eskatuko nieke. Batzuek ez dute salatzen beldurragatik".

### Isabel Guridi
ESKORIATZA, 66 URTE

1 / "Gogorrena tratu fisikoak direla ematen du baina, ezin dira ahaztu ikusten ez direnak, hala nola, gutxiespenak eta irainak. Horiek ere min handia ematen dute. Fisikoa samurra izaten da azaltzea, kolpeak agerian daudelako. Psikologikoak frogatzea, berriz, oso zaila izaten da. Hori bizi izan dutenek ziur asko sufritzen dutela".

2 / "Ez dakit neurriak nahikoa diren. Bada, txikitatik hasi behar gara horren gainean hezi eta informatzen. Administrazio aldetik ere laguntza gehiago egon beharko liratekeela iruditzen zait. Minduta dauden pertsonak laguntzeko bideratu behar da laguntza hori bereziki".

3 / "Heziketan dago gakoa. Ez dago beste irtenbiderik. Maitasunean oinarritutako heziketa izan behar du. Autoestimua izateak, bestalde, asko laguntzen du".

### Rosa Urtzelai
ARRASATE, 45 URTE

1 / "Nire dignitatearen aurka doan edozer da tratu txarra niretako. Min egiten didana eta ondorioz, gaizki sentitzea eragiten duen edozer, bai fisikoki eta baita emozionalki ere. Adibide gisa, emakume izateagatik jasan behar ditudan mesprezuak edo lan munduan dagoen diskriminazioa aipatuko nuke".

2 / "Ez. Neurriak beharrezkoak dira baina gaur egun indarrean daudenak ez dira eraginkorrak. Emakumeok gauza askori diogu beldurra, ez bakarrik golpeei. Emakume izateari berari ere beldurra diogu".

3 / "Arazoa ezin da bat-batean errotik moztu. Prozesu luze eta konplexu bat da, heziketan hasten dena. Gaur egungo sistema matxista eta patriarkala da eta hori aldatu beharra dago. Bada, guztiok osatzen dugu sistema hori eta beraz, guztien inplikazioa behar da. Erakundeen laguntza ere ezinbestekoa da".

**1 / Zer dira zuretako tratu txarrak?**

**2 / Babes nahikoa daukagu emakumeok? Gaur egun indarrean dauden neurriak eraginkorrak direla uste al duzu?**

**3 / Nola jokatu behar dugu tratu txarren aurrean?**

### Luz Estela Gonzalez
KOLONBIA, 44 URTE

1 / "Fisikoak eta psikikoak izan daitezke. Beldurgarriak dira guztiak. Pertsona baten bizitza suntsitu dezakete. Bizitza osorako trauma larriak ere uzten dituzte".

2 / "Oso gogorra da gertatzen ari dena. Neurriak egon badaude baina, argi dago zerbait falta dela. Arriskua hor dago. Etxean jasotako heziketan dago gakoa. Bakoitza bere jarreren jabe izan behar da. Bestalde, tratu txarren atzetik, askotan, mendekotasunak daude. Egoera zehatz baten aurrean kontrola izaten oztopatzen dute horiek.

3 / Arazo horren aurrean, etxekoei irakasten jakin behar dugu, lehenik eta behin. Heziketa funtsezkoa da. Horrez gain, erakundeek ere indarkeriaren gaineko materiala banatu beharko luketе ikastetxeetan. Haurrak arazo horren aurrean prestatu behar dira.

### Malika Hamdaoui
ALJERIA, 32 URTE

1 / "Mota asko daude. Batzuk ez dira ikusten, isilarazi egiten dira. Azken urteetan Frantzian bizi izan naizen arren, Aljerian jaioa naiz. Horrelako herrietan hemen baino atzeratuago daude. Emakumeak etxean egon behar du sartuta eta lanak ordu jakin baterako ondo eginda izan behar ditu. Kasu bat ezagutzen dut. Gizonak eskuarekin, gerrikoarekin eta erratzarekin jipoitzen zuen emaztea. Familia guztiarendako bazkaria ordu zehatz batean prest izan behar zuen eta emakumeak ezin zuen gainontzekoekin batera bazkaltzeko, senarrak hala aginduta.

2 / Oso denbora gutxi daramat Euskal Herrian. Bi hilabete baino ez. Oraindik ez ditut indarrean dauden neurriak ezagutzen, bestelako zereginetan ibili naiz".

3 / "Mentalitatea aldatu beharra dago. Eskolara joateak asko egiten du horretan. Eskolara joaten



**Isabel Guridi**
Eskoriatza / 66 urte



**Rosa Urtzelai**
Arrasate / 45 urte



**Malika Hamdaoui**
Aljeria / 32 urte



**Consuelo Torres**
Kuba / 42 urte

direnak aurreratuagoak daude, joaten ez direnak baino. Bizimoduaren beste ikuspuntu bat dute.

### Consuelo Torres

KUBA, 42 URTE

1 / "Emakumea menderatzeko era bat da. Modu asko daude horretarako. Kulturak eragiten du. Euskal Herrian tratu txar gutxiago daudela ematen du, beste herrialde batzuetan baino. Hemengo gizonak pentsatzeko beste modu bat du, zabalagoak dira".

2 / "Dauden neurriak eskasak dira. Urruntze agindua ez da erraginkorra, emakumeengana hurbil daiteke-eta erasotzailea. Azken horiek kaletik atera beharra dago. Gune espezializatuak sortu behar dira pertsona horiendako, birgizarteratu daitezen".

3 / "Heziketan dago giltza, bai etxean eta baita ikastetxeetan ere. Errespetua funtsezkoa da. Emakumearen giza baloreak aintzat hartu behar ditu gizonak. Horrela bada, datozen belaunaldiek beste modu batean jokatuko dute".

EKIMENAK DEBAGOIENEAN

**> ANTZUOLA**
Emakumeen Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, elkarretaratzea izango da Antzuolan.

Hitzordua da domekan, 18:00etan. Herriko Plazan bilduko dira.

**> OÑATI**
*Emakumearen aurkako indarkeriarik ez!* lelopean, Ezker Batua-Berdeak, Aralar eta Zutik koalizioak elkarretaratzea deitu dute Oñatin.

Domekan izango da Foruen enparantzan. Hitzordua 13:00etan da.

**> ARRASATE**
Kale agerraldia egingo dute etzi, domeka, Arrasateko Herriko Plazan, 19:00etan. Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako plataformak parte hartzeko dei egin zuen martitzenean.

**> BERGARA**
Bergarako Emakumeen Kultur Elkarteak kartel lehiaketa deitu du. Hirugarren aldia da gai horren gainean horrelako ekimen bat antolatzen duela.

Sari banaketa domekan izango da, Pol-Pol tabernan, 19:00etan. Irabazleak 200 euro jasoko ditu sari moduan.

ARRASATEKO PLATAFORMAREN AGERRALDIA

## Giza sentsibilizazioa eta errekurtso gehiago bultzatzea funtsezkotzat jo dute Arrasaten

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako egunari begira, *Emakume asko falta dira, erailak izan dira eta zuri bost axola?* leloa aukeratu du Arrasateko emakumeenganako indarkeriaren kontrako plataformak. Martitzenean prentsaurrekoa eskaini zuen, hausnarketa egiteko eta datozen egunotan egingo diren ekimenen berri emateko.

2005ean onartutako Genero Indarkeriaren Aurkako Lege Integrala "positibotzat" jo bazuen ere, urtetik urtera hilketa kopuruak gora egiten duela eta beraz lege horri "zerbait falta" zaiola esan zuten plataformako kideeko. Hala, kezkatzeko moduko datuak ema zituzten. Adibidez, tratu txarrak direla-eta, salaketa jartzen dutenen lau emakumeetatik bat gaztea dela adierazi zuten. Horrez gain, azaldu zuten iaz Estatu espainiarrean hil zituzten 68 emakumeetatik %30ek baino ez zuela aurretik bikotea salatu. "Arazo larri baten aurrean gaudela" eta horren aurrean, giza sentsibilizazioa ezinbestekoa dela ere nabarmendu zuten. Erakundeek egiten dutena ere "nahikoa ez dela" eta epe motzera, "errekurtso gehiago" abian jarri behar direla esan zuten. Bestalde, Mankomunitateak bultzaturiko zerbitzuak eskatu zituzten, "udalerri txikienetara ere iritsi daitezen". Azkenik, Emakume Txokoak egiten duen lana txalotu zuen.




Omega Elevator, s.a.
• Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
• Gremioen koordinazioa
• Arkitektura-oztopoen kentze lanak
Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com

SSANGYONG ACTYON SPORTS BERRIA
23.290 €-tik aurrera

MERCEDES-BENZ MOTORRAREKIN 200 XDI 141 Z.P.
SSANGYONG
VERTIZ MOTOR
Olaso pol. 27 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 41 10
Frantzia pas. 14 - DONOSTIA
Tel.: 943 29 22 66
Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE
Tel.: 943 46 92 99

**ENPRESAK** > FAGOR ARRASATEREN 50. URTEURRENA

# Fagor Arrasatek ekitaldi ugari antolatu ditu urtemuga dela-eta

Abenduaren 1ean izango da ekitaldi nagusia Arrasateko Amaia antzokian

Omenaldia, erakusketa eta beste hainbat ekintza izango dira datozen hilabeteotan




**EKITALDIAK** 50. urtemuga ospatzeko ekitaldiak antolatu ditu Fagor Arrasatek. GOIENKARIA

**JASONE ZABALA** > ARRASATE

Fagor Arrasatek bere 50. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu. Abenduan hasi eta otsaila bitartean izango dira ekitaldiok.

**MIKEL URDANGARIN...**

Lehen ekitaldia abenduaren 1ean izango da Fagor Arrasateko langile eta bazkideentzat. *Guztiok ereindako hazia* lelopean bi zati izango ditu. Lehenengo, ikus entzuneko bat egongo da. Han, 23 pertsonek euren iritzia emango dute, sorreraz, bilakaeraz eta gaur egungo egoeraz. Gero, hitzaldi bat egongo da Fagor Arrasateko lehendakari Joxean Alustizaren eskutik, eta ondoren Anjel Alkain aktoreak esketx bat egingo du Fagor Arrasateren historiaren gainean. Amaitzeko, omenaldia egingo diete enpresaren sortzaileei, eta lore eskaintza egin eta aurreskua dantzatuko diete. Eguna amaitzeko bazkaria izango dute guztiek Uarkapen.

Bestalde, abenduaren 1etik 15era *TACI Arrasatetik Arrasatera* izeneko erakusketa egongo da Kulturaten. Hogei paneletan 50 urte hauetako hainbat argazki, testu eta irudi erakutsiko dituzte. Erakusketa hori egingo dute herritarrei eskerrona erakusteko eta nahi duten guztiendako egongo da zabalik.

Abenduan eta urtarrilean zehar beste hainbat ekintza ere egongo dira, besteak beste: abenduaren 21ean, pilota partiduak egongo dira Uarkapen. Urtarrilaren 2tik 5era, Gabonetako umeen jolas parkea egongo da; urtarrilaren 12an, Mikel Urdangarinek kontzertua egingo du, Amaia antzokian eta ekitaldiekin amaitzeko, otsailaren 23an, Miarritzeko balleta etorriko da Amaia antzokira.

**POLITIKA**

# Ibarreko bi ordezkari EAJren zerrendetan

Lorea Leanizbarrutia eta Igor Goirizelaia dira proposatutakoak

**J.Z.** > ARRASATE

EAJ dagoeneko hasi da prestatzen Espainiako Gorteetarako hauteskundeak. Kongresurako eta Senaturako proposatu dituzten hautagaien zerrendan, bi debagoiendar daude aurreko postuetan. Kongresurako, Igor Goirizelaia informatikaria, Arrasaten jaio, urteetan Bergaran bizi eta egun Murgian bizi dena; Senaturako, berriz, Lorea Leanizbarrutia aretxabaletarra. Gaur egun Gipuzkoako Aldundiko euskara aholkularia da.

Hautagaiak aukeratzeko eztabaida datorren azaroaren 26an hasiko dute jeltzaleek, eta aukeratuta egon beharko dira urtarrilaren 12rako.

Horrez gain, aipatzekoa da Xabier Albisturrek ez duela senadore jarraituko, eta bai, aldiz, Iñaki Anasagastik Senaturako eta Josu Erkorekak, Kongresurako. Bestalde, Andoni Ortuzar EITBko zuzendari nagusia, BBBko presidentea izateko proposatu dute. Iñigo Urkullu jeltzaleen buru nagusia izango da.

**MUNDUKIDE** > PROIEKTUA KUBAN

# Mundukideren eskutik, kubatar talde bat etorri da

Mundukidek Kubarekin elkarlanean dihardu azukrearen krisiari irtenbidea emateko



**ELKARLANA** Kubatarrak eta Mundukideko hainbat kide, Arrasaten. ARRITXU BARRUSO

**AINTZANE IRIZAR** > ARRASATE

Kubako azukre kanaberaren sektorea krisian dago; Mundukide fundazioak Kubarekin elkarlanean dihardu arazoari irtenbidea topatzeko. Elkarlan horren ondorioz, Kubako Azukrearen Ministerioarekin formazio programa bat dauka martxan; programa horrek oinarri moduan dauka hemengo kooperatiba sistema. Mundukideren programaren helburua da azukrearen industriak laga duen hutsunea betetzea; horretarako, abeltzaintzara eta nekazaritzara bideratuko dituzte lehen kanabera lantzen zituzten lursailak eta azukrearen industrian lan egiten zuten langileak eta guneak. Proiektu horrek, gainera, bat egiten du Kubako gobernuaren elikagaien subiranotasunaren printzipioarekin edo helburuarekin.

Kuban zeuden 170 azukre lantegietatik erdiak baino gehiago itxi egin behar izan dituzte eta gaur egun daude 80 bakarrik.

Kooperatibismoaren antolaketa eta kudeaketa era Kubara egokitzea da helburua. Horretarako, besteak beste, ekintzaileendako Saiolanen antzerako ekimena jarri nahi dute abian Kuban.

Programa horrekin lotuta, 13 kubatar Debagoienera etorri dira; urri bukaeratik daude gurean formazioa jasotzen, Arrasateko Eskola Politeknikoan. Abenduaren 2an itzuliko dira Kubara. Etorri direnetatik bost dira Azukrearen Ministerioko kideak; gainerakoak azukrearen sektorearekin lotutako jarduera ekonomikoetako kudeatzaileak.

Formazioa jasotzeaz gain, inguruko kooperatibak ere bisitatu dituzte, horietako gehienak lehen mailako produktuekin eta jakiekin lan egiten duten enpresak. Lehen sektoreak Euskal Herrian zela lan egiten duen ezagutzeko, bestalde, hainbat baserri bisitatzeko aukera ere izan dute. Amaia Uribetxeberria eskoriatzarra eta Mundukideko kidea da proiektuaren arduraduna Kuban.

**MANKOMUNITATEA** > AZAROKO GOBERNU BATZORDEAREN BATZARRA

# Debagoieneko garraioaren gaineko azterketa egingo dute

Mankomunitateak lankidetza-hitzarmena sinatu du Jaurlaritza, Diputazioa eta Garraio Clusterrarekin eta azken hau arduratuko da bidaiarien eta merkantzien garraioa aztertzeaz

**AINTZANE IRIZAR** > ARRASATE
Eguaztenean egin zuen Mankomunitateak Gobernu Batzordearen azaroko batzarra, Arrasaten; hantxe, besteak beste, onartu zuten lankidetza hitzarmena sinatzea, Garraio Clusterrak Debagoieneko bidaiarien eta merkantzien garraioaren gaineko azterketa egin dezan.

Ikerketaren helburua izango da Debagoienean gaur egun dauden beharrak eta etorkizunean egongo direnak aztertzea, mugikortasunari eta merkantzien garraioari dagokionez. Ikerketaren azken helburua da garapen ekonomiko jasangarri baten modeloa edukitzea.

**HAINBAT FASETAN**
Clustertil Logistikaren eta Garraioaren Clusterra da Euskal Herrian Logistika eta Garraio arloan parte hartzen duten agente guztien topagunea. Clusterra izango da proiektuaren arduraduna eta ikerketa egingo du hiru fasetan: gaur egungo eta etorkizuneko egoeraren diagnostikoa egingo dute lehendabizi; bigarren fasean, aukera edota irtenbideen proposamenak egingo dituzte eta hirugarren fasean, iturrien eta finantzazio bideen beharrak aurkeztuko dituzte.

Ikerketaren abiapuntua izango da gaur egun egon dauden azpiegituren asetasun maila aztertzea eta pertsonen eta merkantzien mugikortasunaren beharrek aurrez aurre topo egiten dutenean sortzen diren arazoak aztertzea.

**AZTERGAIAK**
Besteak beste, etorkizuneko egoera aztertu ahal izateko, kontuan hartuko dituzte egiten diharduten edo egitea aurrez ikusten dituzten azpiegiturak ere, hala nola, AHT eta Beasain-Durango. Gainera, Debagoieneko enpresen beharrak aztertuko dituzte, kontuan hartuta, besteak beste, lantegien kokapena eta hornikuntza sareak.

Behin azterketarekin amaituta, irtenbide proposamenak eta irtenbide horiek aurrera eraman ahal izateko finantzazio bideak aurkeztuko dituzte.



**GARRAIOA** Debagoieneko merkantzien zein bidaiarien garraioak izango ditu aztergai Garraio Clusterrak. GOIENKARIA

**2008RAKO AURREKONTUAK**
Gobernu Batzordearen batzarrean 2008rako aurrekontuen proposamena ere aztertu zuten. Zirriborroa besterik ez da oraingoz daukatena. Mankomunitateko arduradunek adierazi dutenez, behin-betiko proposamena prestatuko dute orain eta espero dute abenduko batzarrean onartuko dituztela aurrekontuak.

**HONDAKIN ARRISKUTSUAK**
Batzarrean beste lankidetza-hitzarmen bat sinatzeko erabakia ere hartu zuten. Ekoizle txikien hondakin arriskutsuak kudeatzeko sinatuko du hitzarmena Mankomunitateak Gipuzkoako Merkataritza Ganberarekin. Ekoizle txikiak dira urtean 10 tona hondakin arriskutsu baino gutxiago ekoizten dutenak.

Orain dela bost urte jarri zuten abian ekimen hau. Helburua da ekoizle txikiei laguntzea kudeaketan. Horretarako, aholkularitza zerbitzua ematen zaie enpresei eta Merkataritza Ganberak kontratatuta duen enpresa batekin harremanetan jartzen dira. Enpresa horrek prezio baxuetan eskaintzen du hondakin arriskutsuak batzeko zerbitzua.

DATUA

**120.000**

**EURO**

Garraioaren gainean Garraio Clusterrak egingo duen azterketaren aurrekontua da 120.000 eurokoa. Jaurlaritzak, Diputazioak eta Mankomunitateak finantzatuko dute, bakoitzak heren bat.

## Iturrigorri Elkarlana elkartearen eskaera

Eguaztenean, Gobernu Batzordearen batzarraren aurretik, batzordekideak elkartu ziren Iturrigorri Elkarlana elkarteko kideekin. Iturrigorri da hezur-muin emateak bultzatzeko elkartea. Hainbat eskaera egin zizkieten Mankomunitateari eta Udalei. Honako eskaerak, hain zuzen ere: Osakidetzari eskatzea hezur-muin emaile egin ahal izateko frogak Arrasateko Ospitalean egin ditzatela; Osakidetzari eskatzea froga horiek egiteko aukera ematea odol emaileen elkartea etortzen denean; Osakidetzari eskatzea odol emaileei jakinaraztea ez direla hezur-muin emaile; azkenik, eskatzen dute denen artean hezur-muinen ematea bultzatzea.

**LAPURRETAK**

## Kobrea lapurtu dutelakoan, bost atxilotu

Eskoriatzan egin zituen atxiloketak Ertzaintzak, astelehen gauean

**A.I.** > ESKORIATZA
Astelehen gauean, bost gizonezko atxilotu zituen Ertzaintzak, kobrea lapurtu dutelakoan. Ertzaintzaren arabera, kable elektrikoa erretzen ziharduten, atxilotu zituzten unean. Atxilotuak dira L.L. 20 urtekoa, A.L.F. 24 urtekoa, A.G. 33 urtekoa, L.P.M. 28 urtekoa eta D.G.L. 28 urtekoa.

Ertzaintza ikertzen dabil Bergaran izandako kable lapurreta batzuen egileak eta Aretxabaletako txatartegi batean izandako lapurreta saiakeraren egileak diren.

**EZBEHARRA**

## Oñatin leihotik eroritako umea ondo

Eguenean ospitaleko gela normal batera eramatekoak ziren lau urteko mutikoa

**A.I.** > OÑATI
Lau urteko ume bat laugarren solairutik erori zen astelehen eguerdian. Lekuan bertan atenditu eta gero, Debagoieneko ospitalera eraman zuten eta handik, helikopteroz, Donostiara.

Larri eraman zuten arren, umeak hobera egin du eta ez dauka ezer larririk; kolpeak eta ubelduak ditu; atzo, eguena, ospitaleko gela normal batera eramatekoak ziren.



**Navarra. Castillos que defendieron el Reino.**
La Navarra occidental,
la frontera del mar.
Alava, Bizkaia,
el Duranguesado, Gipuzkoa
*609 irudi eta argazkiak*
Abenduaren 3tik aurrera salgai
*«...izan ginena ezagutzeak izatea dagokiguna esaten digu, gure historiako data zehatz batzuek egungo gure egoeraren nola eta zergatik galderei erantzuten baitiete.»*
**Inaki Perurena**
PAMIELA argitaletxea






**TRIAJE SISTEMA** Gaixoen larritasuna baloratzen dute Arrasateko ospitalean, Triaje sistema bidez. GOIENKARIA

**OSASUNA** > LARRIALDI ZERBITZUAK KUDEATZEKO SISTEMA

# Ospitaleko larrialdi zerbitzua Europan eredu

Larrialdiak kudeatzeko sistema garatuta duen Osakidetzako ospitale bakarra da Debagoienekoa eta horrek interesa piztu du, baita Europan ere

**MIRIAN BITERI**> ARRASATE

Osakidetzak Arrasateko ospitalea hartuko du eredutzat, Gasteizen egiten ari den Europako Kalitatearen Asterako. Zehazki, larrialdietako zerbitzuetako sistema aztertuko dute abenduaren 3an izango diren jardunaldietan.

Larrialdiak kudeatzeko sistema guztiz garatuta duen Osakidetzako ospitale bakarra da Arrasatekoa eta dagoeneko interes handia sortu du, baita Europan ere. Zerbitzuen informatizazioa eta gaixoen larritasuna baloratzeko gaitasuna eskaintzen du, besteak beste, sistema horrek.

**LARRIENEK LEHENTASUNA**

Prozesua datu administratiboak jasotzean hasten da. Triaje izeneko sistemak gaixoaren larritasuna baloratzen du. Bost mailatan dago hori banatuta eta gaixo bakoitza batean edo bestean kokatzen du. Larrien daudenek dute beti lehentasuna. Hortik aurrerako arreta, froga, diagnosi, tratamendu eta tramitazio guztiak informatizten dira ondoren.

Triaje sistemaren gaineko datuei dagokienez, aurreko urtean 31.428 lagun pasa ziren larrialdi zerbitzutik eta horien artean, %81ek larritasun txikia zuten.

Larrialdiak kudeatzeko sistemak eragina izan du larrialdi zerbitzuetan, erreklamazioek %70 inguru egin dute-eta behera.

**POLITIKA** > MANIFESTUA AURKEZTEKO EKIMENAK

# Independentistak batzeko dei egin du EAE-ANVk

Martxoko Espainiako hauteskunde orokorretara aurkeztuko dela eta "Euskal Estatua osatu" behar dela dio

**M.B.** > BERGARA

Datorren urteko hauteskunde orokorretara aurkezteko lanean ari da dagoeneko EAE-ANV. Euskal Herriaren independentziaren aldeko "oihua" Espainiako Kongresura eraman gura du eta horretarako, urrats berriak ematen hasi da.

Hala, aste bukaeran hauteskundeetara aurkezteko arrazoiak azaltzen duen manifestua aurkeztu eta horri atxikimendua eskatuko dute Arrasaten, Bergaran eta Oñatin. Aldarria du izena manifestuak.

**"BAT EGIN BEHAR DUGU"**

Datozen hauteskundeetan eta oro har, euskal agertoki politikoan "independentziaren aldekoek eskubide guztiak izatea oso inportantea dela" azpimarratzen da Aldaarrian. Horren harira, EAE-ANV legez kanpo uztea edo hauteskundeetan parte hartzeko aukerarik gabe uztea "independentzia zaleen eskubideak urratzea" dela eta horren aurrean, "elkarrekin jarduteko bat egin" behar dugula, diote.

EAE-ANVren ustez, "euskaldunok baditugu inoiz baino arrazoi gehiago independentziaren aldeko apustua egiteko". Eta gehitu dute, ibilbide historikoak frogatu duela "mendekotasuna erabat kaltegarria dela".

Espainiar eta Frantziar estatuek "soilik deszentralizazioan oinarritutako formulak" onartzen dituztela ere salatu dute, eta erregionalismoan jarri dutela muga. Bada, EAE-ANVren iritziz, "guk hartu behar dugu gure etorkizunaren giltza, inori baimenik eskatu gabe, gurea delako". Horren harira, "euskaldunok gure Estatua osatu" behar dugula eta "horretarako urrats zehatzak eman" behar ditugula ere dio Aldarriak.

ELKARRETARATZEAK

**> ARRASATE**

Gaur, egubakoitza, elkarretaratzea egingo dute Arrasateko Herriko Plazan. 19:00etan emango zaio hasiera *Guk, Euskal Nazioa, independentzia* lelopean egingo den ekitaldiari.

**> BERGARA**

Bihar, zapatua, *Euskal nazioa, Independentzia eguna* antolatu dute Bergaran. 13:00etan elkarretaratzea egingo dute herriko plazan.

**> OÑATI**

Bihar izango da ekimena Oñatin. Hitzordua 19:00etan da, Herriko Plazan. Txalapartariek, dantzariek eta bertsolariek lagunduko dute Aldarria manifestuaren irakurketa. Manifestazioa ere egingo da.

**ABELTZAINTZA** > MINGAIN URDINAREN GAITZA

# Debagoieneko abereek ez dute oraindik txertorik hartuko

Txertaketa nahi baino motelago doa eta guztiendako txertorik ez dagoenez, gaitza azaldu den eskualdeetan jarriko dute txertoa lehenik eta behin

**M.B.** > BERGARA

Oraingoz ez diete ibarreko abereei mingain urdina gaitzaren kontrako txertoa jarriko eta datarik ere ez dute aurreratu. Hala baieztatu du aste honetan Diputazioko Landa Ingurunearen Garapenerako departamentuak. Gaitzak ez diola Gipuzkoari bakarrik eragiten eta ondorioz, txerto hori egiten duen laborategia gainezka dagoela azaldu dute. Galiziako laborategi batek egiten du txertoa.

Landa Ingurunearen Garapenerako departamentuak azpimarratu duenez, "horrek ez du esan nahi Gipuzkoako abere guztiei ez diegunik txertoa jarriko. Bada, ez gara txertoa eskatzen duen Autonomi Erkidego bakarra eta beraz, ez dago guztiondako". Hori delaeta, txertaketa nahi baino motelago joango dela onartu du.

**80.000 DOSI**

Orain arte 80.000 dosi jaso dira eta Diputazioak jakinarazi duenez, Donostialdean eta Oarsoaldeko abelburuei jartzen ari dira gutzi horiek, "han azaldu da-eta lehenengoz gaitza". Txertaketa kanpaina joan zen astean jarri zuten abian.

Txertoak jasotzen dituen heinean, gainontzeko eskualdeetako abereei ere jarriko zaiela aipatu dute. Landa Ingurunearen Garapenerako diputatu Rafael Uribarrenek joan zen astean jakinarazi zuenez, guztira, 165.000 ardi txertatuko dira mingain urdina gaitzaren kontra.

Ez hori bakarrik. Behiei ere eragiten die gaitza horrek eta beraz, abere buru horiei ere txertoa jarriko zaiela igarri zuen Uribarrenek.

SORLAN Koop. E.
Hautaketa eta formazioaren kudeaketa
Basabe Poligonoa EO 4
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tel.: 943 25 05 90
Emaila: sorlan@terra.es

Pilar Sagasta > Huhezi-ko irakaslea

# "Bizitzako edoizen esparru da ikasteko egokia, gure asmoa da jakintzok sistematizatzea"

JASONE ZABALA > ESKORIATZA

**Asteon bi egunetan zehar, Lifeplace Learning nazioarteko mintegia ospatu da MUko Eskoriatzako Huhezi fakultatean. Komunitatea eta etxea ikasteko gune izateko programa landu dute bertan. Lifelearn proiektuan Europako bost unibertsitatek parte hartu dute, tartean Mondragon Unibertsitateak. Proiektuaren gorabeherez jardun dugu Pilar Sagasta irakaslearekin.**



Pilar Sagasta Unibertsitateko atean. JASONE ZABALA

**Nola eta zein helbururekin sortu da mintegia eta nork bultzatuta?**

Europako proiektu baten parte hartzen ari gara eta urtean zehar partaideen herrialde ezberdinetan elkartzen gara lana egiteko. Oraingo honetan lan bilera Txekiar Errepublikan aurreikusita zegoen, baina zailtasunak sortu zirenez, guk, zegoen aukera aprobetxatu genuen partaideak hona ekartzeko. Proiektuan 6 herrialde eta unibertsitate hasi ginen eta egun 5 gaude: Finlandia, Estonia, Alemania, Britainia Handia eta gu.

Herrialde ezberdinetara joaten garenean, aukera polita izaten dugu bertako herria, jendea, kultura eta ohiturak ezagutzeko. Beraz, partaideek gutaz gehiago jakitea baloratu genuen eta hemen egin dugu nazioarteko mintegia. Hemen egon diren bitartean aukera izan dute gutaz gehiago jakiteko: nor garen, zein lan mota egiten dugun, zergatik eta abar.

**Zertan datza Lifelearn proiektuak?**

Proiektuaren gaia *Bizitza osoko ikaskuntza* da eta helburu nagusia honako hau da: bizitzaren esparru ez formaletan garatutako jakintzak sistematizatzea eta jakintza horiek kreditatzea. Praktikan zer esan nahi du horrek? Bada, bizitzan zehar jakintzak garatzen direla onartzen da, edozein esparru egokia dela ikasteko: familia, auzoa, komunitatea, elkartea… eta, hortaz, unibertsitateak aukerak aztertu behar ditu jakintza horiek formalizatzeko.

Beste helburu garrantzitsu batzuk hauek dira: behar diren tresnak eta estrategiak prestatzea, ez formalak diren jakintza horiek formalizatzeko. Nola prestatu pertsona bat, esparru ez formaletan garatutako jakintza ebaluatzeko? Ikasten jarraitzeko? Nola lagundu ikaste helburuak zehaztu ditzaten? Nola kudeatu prozesu hori? Zer baliabide eskaini "ikasleari" era autonomoan ikasten jarraitzeko? Zer nolako irakasleak behar dira prozesu horiek kudeatzeko? Egun dugun unibertsitate-irakaslearen profila baliagarria da horretarako? Edo beste prestakuntza bat beharko da bizitza osoko ikaskuntza sustatu eta kudeatzeko?, galdera horiek guztiak erantzuten saiatu gara mintegiak iraun duen bi egunetan.

**"Beste herrialde batzuetara joaten garenean, aukera polita izaten dugu bertako herria, jendea, kultura eta ohiturak ezagutzeko"**

**"Bizitza esparru ez formaletan garatutako jakintza horiek kreditatzea da proiektuaren helburua"**

**Europan bizi izateko eta lana egiteko modu ezberdinak daude; kulturak ere hainbat dira. Nola konpontzen zarete?**

Hasieran zaila da. Kultura bakoitzak mundua ulertzeko modu bat dauka, eta horretaz gain, elkar-ulertzeko eta lanerako erabiltzen dugun hizkuntza ingelesa da. Beraz, hasieran sortzen diren hainbat arazo lotuta daude bata bestearen ezjakintasunarekin, eta baita ingelesaren erabilerarekin ere. Kultura eta ohiturak direla eta egin behar duzun bilaketa handia da. Beraz, aukera formalak eta ez formalak aprobetxatzen dituzu informazioa lortzeko.

Adibidez, proiektuan parte hartzen duten alemanek lehengo Ekialdeko Alemaniakoak dira, Wismarkekoak, eta asko galdetzen diegu euretaz gehiago jakiteko: lehengo eta oraingo ohiturak, aldaketak…

Finlandiako Jyvaskyla Unibertsitatekoekin ere hitz egiten dugu euren hezkuntza sistemaz, hezkuntzari buruz egiten duten ikerketa ere mintzagai izan dugu. Tartu Unibertsitatea Estonian kokatuta dago, eta aukera izan dugu herrialde horren berri izateko.

Guri ere asko galdetzen digute, gure herriari buruz. Adibidez, sorpresa handia hartu dute euskararekin. Ez zuten uste hain hedatuta zegoenik. Ez zuten ezagutzen kooperatiba mundua nolakoa zen. Eta zentzu horretan ere, garrantzitsua izan da hona etortzeko aukera ematea. Proiektuaren iraupena bi urtetakoa da eta ikasturte honetan amaituko da.

## kontsumoa




Igoera behin betikoa izango dela iragarri dute. GOIENKARIA

### Kontserbatako langileek atun laten %20ko igoera iragarri dute

JASONE ZABALA > BERGARA

Arrain kontserben patronalak fabrikatzaileei gomendatu die, atuna daramaten produktuen salneurria %20 igotzeko, ontziteriaren erregaiaren igoeragatik eta lehengaien eskasiagatik. Kontsumitzaileek ez dute modu onez hartu iragarritakoa, beste produktu batzuen igoera ere eman delako dagoeneko: esnea, okela eta zerealena hain zuzen ere.

Atunaren prezioa igotzeko erabakia kontserba industriak hartu zuen duela bi aste egindako Azoreseko Atunaren Nazioarteko Lehen kongresuan. Han, 5 kontinenteetako ontziteriaren armadoreak batzartu ziren.

Kontserben Fabrikatzaileen Elkarte Nazionaleko zuzendari orokorrren, Juan Manuel Vieites-en arabera, "atun kontserbak, arrain kontserba guztiaren %60a da eta atun kontserben prezioak zahartuta gelditu dira". Vieitesen arabera, prezioen igoera hau behin betikoa izango da, enpresek ezin dezaketelako diru gehiago galdu.




### Lan bizitza luzatzen dutenen pentsioak %15 igoko dira

Datozen egunotan aterako den legeak, erretiro pentsioaren pixkanakako igoera onartuko du. Igoera hau, lan bizitza 65 urtetik 70 urtetara luzatu nahi dutenen artean emango da; gehienez %15eko igoera. Arau horren arabera, enpresariek ez dute gizarte segurantzan kotizatu behar izango 65 urtetik gorako langileengatik. Sindikatu eta enpresarien artean hartutako erabakian oinarritu da legea. 2008ko urtarrilaren 1ean aurrez ikusi dute indarrean sartuko dela.



### Kutxazain automatikoek ez dute proba gainditu

Kutxazain automatikoak ez daude ezgaituentzako prestaturik. *Consumer* aldizkariak jasotakoaren arabera, segurtasun eta eskuragarritasun aldetik asko dute hobetzeko oraindik ere.

Espainiako estatuan 58.000 kutxazain daude. Milioika eragiketa eta milioika euro erregistratzen dira egunero, eta bertako segurtasunak funtsezkoa izan behar du guztiontzat. Estatuko 395 kutxazain automatiko aztertu dira eta guztietan ere oraindik gabezia asko daude.

## gure artekoak

**OPEL CORSA** > Opel etxeak Corsa berria du merkatuan, aurreko modeloa baino handiagoa; itxuraz zein mekanikari dagokionez, guztiz berritua. Arrasateko Giauton izan gara, Joxe Viciano arduradunarekin.

**Joxe Viciano** > Arrasateko Giauto kontzesionarioko arduraduna

# "Merkatuko automobilik ekologikoenetakoa da Corsa"

**AINTZANE IRIZAR** > ARRASATE

Opel etxeak goitik behera eraberritu du Opel Corsa automobila, bai itxurari bai mekanikari dagokionez. "Itxuraz, beste automobil bat dirudi", dio Vicianok; handiagoa da eta estetika dotoreagoa du. Zafira eta Astra automobil berrien oso antzerakoa dauka muturra.

Martxak aldatzeko sistemei dagokionez, hainbat aukera daude: bost edo sei abiadura martxatakoa, eskuzkoak; EasyTronic sistema (eskuzkoa edo automatikoa) eta Active Select (sei abiadura martxatako automatikoa).



Joxe Viciano Opel Corsa berriarekin, Arrasateko Giauto kontzesionarioan. A.I.

**SEGURUA ETA EROSOA**

Automobil Berrien Europako Ebaluazio Programan bost izarrak ditu Opel Corsak. Segurtasun sistema aurreratuenak eta gehienak ditu, besteak beste, zortzi airbag, bihurgunetarako balazta kontrola, zulatuen aurkako pneumatikoak, segurtasun uhal bereziak, bihurgunetara egokitzen diren argiak eta babeserako alboetako listoiak.

Erosotasunean ere asko irabazi du Opel Corsa berriak; abiadura kontrolatzeko sistema, Isofix eserlekuak, ahotsarekin kontrolatzen den *bluetooth* sistema, ordenagailua eta ordezko gurpil normala dauzka, besteak beste.

### Opel Corsa Enjoy 1.3 Cdti 75 ZP

| | |
|---|---|
| Prezioa | 13.815 euro |
| Luzera | 3,99 metro |
| Zabalera | 1,71 metro |
| Maletategia | 1.100 litro[1] |
| Kontsumoa | 4,5 litro /100 km[2] |
| Abiadura | 163 km/h[3] |
| Otik 100era | 14,5 seg. |
| CO2 isurketak | 119 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

**INGURUMENA ZAINDUZ**

"Opel etxearen erronka berrietako bat da ingurumena zaintzeko teknologiak erabiltzea", azaldu du Joxe Vicianok. Horregatik, Ecotec motorrak ditu; horri esker, "merkatuko automobilik ekologikoenak dira", dio Vicianok, eta bere mailako automobilekin alderatuta, kontsumo eta CO2 isurketa baxuagoak ditu.

Azkenik, aipatzekoa da urtea amaitu aurretik eskatuz gero, 2.000 eurora arteko deskontua duela Opel Corsa berriak. Gainera, lau urteko bermea eskaintzen du, mekanikari dagokionez.

## etxeko leihotik



**Iban Arantzabal** > Goienako ikus-entzunekoen zuzendaria

# Euskaltegixetako maisu-maistrek dauke meritua

Leire Narbaizari kendu bihar dotsadaz hainbat esaldi zutabe honetarako. Irakasliak daukaz berbagai blogian. Ez DBHko irakasliak edo haur hezkuntzakuak edo unibertsitatekuak... eta bai gutxitan aittatzen dittugun euskaltegixetako irakasliak. Narbaizak esaten dabenez "Gure lanak ez dauka prestigiorik". Bilddurra emoten daben egiaztapena da, eta ez da gutxiagorako gero diñona: "Gure lana zerbait probisionala da. Gure funtzioa adabaki bat baino ez da Jaurlaritzarendako. Ez daukagu formazio espezifikorik. Askotan gure lantokiak desegokiak eta deserosoak dira. Gure baliabideak urriak eta zaharrak. Sarritan gure zentroetan egiten diren inbertsioak ez dira existitzen. Gure ordutegiak zoratzeko modukoak izaten dira. Duela hogeita bost urteko planteamenduekin ari gara lanean".

**"Euskaltegixetako lan baldintzak hobetzia urgentzia daukan kontua da"**

AEK, HABE, IKA... danak be antzera ete daren... Badihardue euskera-eskolak emoten, kalia euskalduntzen... eta tamalez baitta txosnak jartzen, errifa-saltzen ... Erakundien arduria bada eta badauka urgentzia hain inportantia dan hau lanau trinkotziak. Merezi dabe maisu-maistrek. Merezi dau euskeriak.

**> Unibertsitateko irakasle-ikerlarixek dakezen soldatak merezi ez dittuenik ez dot esango, ezta irakasle-funtzionarixuek larregi irabazten dabenik be. Oin, okerrago darenak ixilik dare.**

**> Etsipena izan leike egoera honek irakaslien animuan sortu leikena. Urtia fan eta urtia etorri baldintzak ez badira hobetzen, nekez izango dira eskarmentudun maisu-maistrak euskalduntze eskoletan.**

## begi-bistan






**Orkatza euskaltegian (Bergara)**
**2007/11/16**

**Argazkia:** Alex Labaien.
**Testua:** Aintzane Irizar.

Gertaera bitxia bizi izan zuten aurreko asteko egubakoitzean Bergarako Udal Euskaltegian; orkatz bat (corzo) azaldu zitzaien. Udaltzainek harrapatu eta mendira eraman zuten.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Jon Andueza**
GIDOIGILEA

Espainiako Telebistaren Zientzia eta Arteen Akademiaren eskutik saria jaso du Txirri, Mirri eta Txiribitonen *Trikitraka Trikitron* saioak. Telebista autonomikoetako umeendako saio onenaren saria, hain zuzen ere. Jon Andueza arrasatearra da saioko zuzendaria.



**Unai Busturia**
KOMIKIGILEA

Mitologiaren gaineko *Numenak Alaba* komikia argitara eman dute Unai Busturia eta Julen Rivas arrasatearrek. Trilogia baten bigarren atala da, 2005ean argitaratu zuten *Numenak Aita* komikiaren jarraipena. GOIENKARIA aldizkariko komiki egileetako bat da Busturia.



**Aitzol Aramaio**
ZINEMAGILEA

Lekeitioko Euskal Zine eta Bideo Bileran, gaur, egubakoitza, 19:30ean, Aitzol Aramaioren *Tatihou* lana eskainiko dute, Ikusgarri zinema aretoan. Lan hori da Kepa Junkera musikaria ardatz duen bideoklipa. Asier Altunaren *Sarean* dokumentala ikusteko aukera ere egon da.

Aurtengo VII. Marko programan Gipuzkoako CEIT-IK4 zentroak proposatutako *Confidence* proiektuak lortu du puntuazio altuen Europako beste 126 talderen aurretik. Proiektuaren oinarria pertsona nagusiak dira; haiek izan ditzaketen beharrak, hain justu. Proiektuaren koordinatzailea Igone Velez Isasmendi arrasatearra da. Hark azaldu dizkigu nondik norakoak.

**Igone Velez Isasmendi** > *Confidence* proiektuaren koordinatzailea

# "Hirugarren adineko pertsonei asko lagunduko die abisu gure sistemak"

**JASONE ZABALA**> ARRASATE

***Confidence* proiektuak Europako Batasuneko puntuaziorik altuena lortu du beste 126 lanen artean, eta 4 milioi euroko saria irabazi du proiektua aurrera eraman ahal izateko. Igone Velez Isasmendi (Arrasate, 1977) Donostian dagoen CEIT (Gipuzkoako Ikasketa eta Ikerketa Teknikoen Gunea) guneko ikertzailea da. Baita CEIT-ekin elkarlanean proiektua egin duten Europako beste 10 enpresek osatzen duten partzuergoaren koordinatzailea ere. Proiektuak, pertsona nagusien bizitza independentea errazteko irtenbide berriak proposatzen ditu.**




Igone Velez Isasmendi, CEIT ikerkuntza guneko sarreran. GOIENKARIA

**Zertan datza *Confidence* proiektuak? Zein da helburua?**

Errealitate bat da hirugarren adineko jende kopurua gora doala, eta badakigu Europa mailan 2030 urte ingururako biztanleriaren heren bat baino gehiagok 65 urte baino gehiago izango duela. Hori, azkenean arazo bihur daiteke, jende nagusiak behar batzuk dituelako, eta gizartea ez dagoelako prestatua behar horiei modu egokian erantzuteko.

Herrialde bakoitzarentzat diru asko suposatzen du pertsona nagusientzat beharrezkoak diren irtenbideak topatzea. Horren aurrean, Espainiar estatuan ez da hainbeste gertatzen, baina Europan, hainbat konponbide aztertzen ari dira, jende nagusiak etxean independentziaz bizitzen jarraitu ahal dezan, lasaitasunez eta konfiantzaz.

Ohikoa da pertsona nagusi baten senitartekoak beldur apur batekin bizitzea, hirugarren adineko pertsona hori bakarrik dagoela ikusita. Hori horrela, guk pentsatutako sistemak pertsona nagusiari edo beharra duen horri lagundu egingo dio eguneroko bizitzan.

Adibidez, pertsona batek bere eguneroko gauzak egitean jarrera aldatzen badu, guk sortu dugun sistemak antzeman egingo du eta abisua pasatuko dio familiari. Hala, nagusiaren pauta aldaketaren berri izango dute eta eurek erabakiko dute zer egin. Kasua larriagoa bada, adibidez, konortea galtzea, sistemak alarma zentro batera bideratzen du abisua. Arazoa edozein dela ere, automatikoki antzematen du zerbait gertatzen dela. Horregatik laguntasun handia da sistema hau, eta halaxe hartu beharra dago, lagun bat bezala, zu zaintzen zaituen konfiantzazko lagun bat bezala. Hortik dator proiektuaren izena: *Confidence*.

**Noiztik zeneukaten ideia buruan?**

Duela bi urtetik gutxi gorabehera. Konturatu ginen ardura bat dela gure aiton-amonak etxean bakarrik egotea, eta zaindu ezinik ibiltzea. Arazo horri zein irtenbide eman pentsatzen ibili ginen, eta hala bururatu zitzaigun ideia. Bagenekien Europako Batasuna arazo honentzat konponbidea topatzen ari zela. Horrela, Europako beste 10 herrialdetako taldeekin partzuergo bat osatu genuen eta proiektua garatzen hasi ginen.

**Zein itxura du gailuak? Non eramatekoa da?**

Oraindik definitu gabe dago. Batez ere, gainean daraman pertsonarentzat, ezer eramango ez balu bezala izatea nahi dugu. Ez dugu nahi pertsonarengan konplexurik sortzea. Soinean eraman bai, baina nabaritzen ez den zerbait lortu nahi dugu. Eskumuturreko bat, lepoko bat edo arropetan ipintzea da gure ideia, eta horrela inork ez du jakingo zuk hori gainean daramazula zuk ez badiozu esaten; harik eta naturalena izatea nahi dugu.

PROIEKTUA

**"Guk pentsatutako sistemak pertsona nagusi edo beharra duen horri lagundu egingo dio"**

HELBURUA

**"Pultsera itxura, lepokoarena... Gainean daraman pertsonarentzat, ezer eramango ez balu bezala izan behar da"**

PARTZUERGOA

**"Europako 10 taldek osatzen dute lan taldea; tartean Arrasateko Ikerlan ere badago"**

**Noiz merkaturatuko da sistema berri hau?**

2011rako prototipoa egongo da, eta hortik aurrera hasiko da merkaturatzen, oraindik ere garatu behar den zerbait delako, teknologia berria baita. Baina uste dugu 2015. urterako merkatuan egongo dela.

**Produktua nahi duen edozeinentzat egongo da eskuragarri?**

Hori da guk nahi duguna. Ahalik eta merkeena izatea. Hirugarren adineko jendeak ez duelako zertan diru kantitate handirik ordaindu behar. Supermerkatu batean saltzen jartzea edo gizarte segurantza barnean sartzea da lortu nahi duguna. Hori horrela izan dadin, gure partzuergoaren barnean baditugu udalak, eta beraiek ere aztertuko dute hori horrela egitea posible den.

**Halako asmakizunak izango du etorkizunik?**

Guk uste dugu izango duela. Gure taldean badaude hiru partaide jende nagusiarekin lan egiten dutenak eta haiek esango digute sistema honek hirugarren adinekoekin funtzionatuko duen edo ez.

Sistemak oso ondo funtzionatu dezake baina inork ez badu onartzen alferrikakoa da.

**CEITez gain zeintzuk dira partzuergoa osatzen duten beste enpresa edo taldeak?**

Finlandiako unibertsitate bat dago, Suediako udaletxe bat, Alemaniako ikerketa zentru bat, Frantziako, Italiako eta Greziako enpresa bana eta baita hirugarren adineko jendearekin lan egiten duen gobernuz kanpoko erakunde bat ere. Greziako zein Italiako enpresek etorkizunean produktua komertzializatzeko balioko dute. Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, Arrasateko Ikerlan eta CEIT daude.



zabalik

Gorka Etxabe

# Fagor Arrasate

Zorionekoa ni! Gure lanbideak aukera ematen digulako esperientzia eta pertsona ugari ezagutzeko eta beti dago asko ikasteko. Zorionekoa Fagor Arrasateren historia ezagutzeko aukera eman didatelako. 1957an sortu zen enpresa TACI izenarekin eta dagoeneko mende erdi bete du. Eta urteurrena ganoraz ospatzeko ekitaldia egingo dute abenduaren 1ean Arrasateko Amaia Udal Antzokian. Erakusketa bat ere izango da ikusgai Kulturaten abenduaren 1etik 15era, eta beste zenbait kultura eta kirol ekitaldi bultzatu eta babestuko ditu Arrasatek.

Oraingo egunetan enpresaren sortzaileei eta aspaldiko zein gaur egungo langileei elkarrizketak egin dizkiegu, hogei elkarrizketa baino gehiago eta zenbat ikasi dudan! Ezer ez zutenek 500 laguneko enpresa bat sortzeko gai izan ziren, kooperatiben esperientzia abian jartzeko gai izan ziren, solidaritatean eta berdintasunean oinarritutako enpresa bultzatu zuten, herritarrek egindako eta herriarentzat aberastasuna sortzeko enpresa eratu zuten, herrian errotu ziren eta gaur egun ere bertan segitzen dute.

**"Diote Fagor Arrasatekoek 'guztiok ereindako hazia' dela euren enpresa"**

**"Merezitako moduan ospatu 50. urtemuga eta zuen esperientzia izan dadila isla beste askorentzat"**

Gaztetasuna, gogoa, gizartea aldatzeko desioa, beharra eta On Jose Maria Arizmendiarrietaren bultzada. Horiexek izan ziren oinarriak! Oinarri sendoak zalantzarik gabe! Belaunaldiz belaunaldi orduko enpresek aberastasuna ekarri dutelako gure ibarrera. Aberastasun hori pertsonek, langileek, zuzendariek sortu dute!

Fagor Arrasatekoek diote euren enpresa dela "guztiok ereindako hazia". Ados nago. 1957an zuzendari tekniko eta enpresaren bultzatzaile izandako Felix Gonzalezek zioen meritua guztiona zela eta guztiek egin zutela posible proiektua. Eskerrik asko, Felix!

Merezi duzuen moduan ospatu zuen 50.urteurrena. Eta zuen esperientzia izan dadila isla beste askorentzat. Guretzat! Denontzat! Herriarentzat!

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Aitziber Aranburuzabala (G2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Aintzane Irizar, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Marilu Unamuno.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala

Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

PIRRITX ETA PORROTX PAILAZOAK ZERGATIK EZ ARRASATEN?

**Arrasateko irakurle batek honako galdera egin ditu asteon: "Arrasateko ama bat naiz eta galdera hau egin nahiko nioke, dagokionari: Nire seme-alabei Pirritx eta Porrotx asko gustatzen zaizkie eta beti ditugu arazoak sarrerak erosteko. Zergatik ez dira etortzen Arrasatera, inguruko herrietara joaten diren bezala?".**

Arrasateko Udaleko kultura zerbitzura jo dugu erantzun bila. Han azaldu dutenez, hainbat urte dira Pirritx eta Porrotx Arrasaten ikusteko aukerarik ez dagoela eta horren harira emakumezko honena ez da jaso duten kexu bakarra. Kultura zerbitzutik azaldu dutenez, "inguruko hainbat herritara etortzen direnez, ez dugu Arrasatera ere ekartzeko beharrik ikusi. Premia neurri baten aseta ikusi dugu eta beste ikuskizun batzuk ekartzea erabaki izan dugu", azaldu dute.

Kontuak kontu, 2008an Arrasaten izango dira Pirritx eta Porrotx emanaldia egiten. San Juanetan izango dira han, Eguzki-laru egunaren barruan. Pailazo ezagunek egingo duten emanaldi hori antolatu dute Txatxilipurdi elkarteak eta Udalak elkarlanean.

AURTEN ERE EGINGO DUTE BERGARAN AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETA?

**Irakurle batek egin digu galdera hori. Dio lagun esan diola lehiaketa abian dagoela, dagoeneko, eta hori konfirmatu nahi izan du irakurleak.**

Bada, bai. Jardun euskara elkarteak dagoeneko deitu du Amodiozko Gutunen Lehiaketa. Klasiko bat da Debagoienean; aurtengoa da 16. edizioa.

Ohikoa den bezala, lan guztiak jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan behar dira. Lehiaketan 1993an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte. Lanek gutun forma izan beharko dute, eta DIN A-4 orritan, eskuz zein ordenagailuz idatzita, aurkeztu ahal izango dira. Luzera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan. Lanak aurkezteko mugaeguna da urtarrilaren 6a,

Bestalde, SMS bidezko mezuen lehiaketa ere deitu dute. Argibide gehiagorako deitu Jardun elkartera (943 76 36 61) zenbakira edo *www.jardun.net* webgunera ere jo daiteke.

Beti bezala, sari banaketa ekitaldia San Valentin egunean, otsailaren 14an egingo dute, kultura etxean.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrazkiz

Alex Ugalde




blog

# Alkoholeman

**Markos Zapiain**
www.eibar.org/blogak/zapiain

Gezurra nabaritzen hasten delarik, zer egin behar luke gezurtiak, egia lehenbailehen aitortu ala gezurrari kosta hala kosta eutsi?

Eutsiz gero, barregarri eta negargarri gelditzen zara sarritan. (...) Baina lotsagarri gelditzeko arriskuagatik gezurra lehenbailehen zokoratzeko aholkuak aurka ditu Historia eta eraginkortasuna. (...)

Edonola ere, zenbaitetan gezurra traizionatu eta egia lehenbailehen aitortzea komeni den moduan, beste zenbaitetan, esandako egia ez bada komenigarri gertatzen, lehenbailehen gezurtatu beharra dago.

Colemanen aldetik oso polita izan da, eta Realari dion begirunearen adierazpen, ez gezurra esatea, hori ohikoa baita, baizik nola biribildu duen, zein ederki eta zelako ganoraz pintatu dituen alegiazko xehetasun guztiak: esan zezakeen soilik etxea uholdeak hartu diela, eta aski zatekeen, baina begiruneak bultzaturik erantsi du garbigailua matxuratu zaiela, beheko solairuan umeak bizi direla eta uholdea bereziki arriskutsua izan zitekeela, eta horregatik nahiago izan duela prentsaurrekora joan baino lehen anabasa hura konpondu…

Colemanen meritua are hunkigarriagoa da, kontuan hartuz gero Donostiako gautxori guztiek ikusi zutela sekulako melokotoiarekin Bataplanen, Napon, taxi geltokian goitika… Orain donostiar perfidiak *Alkoholeman* bataiatu du.

Entrenatzaile gisa ez ezik, pertsona gisa ere miresgarria da Coleman, giza konplexutasuna

plazara

**Askok testamentu kontuak pertsona nagusien edo heriotzaren atariko gauza dela uste badute ere, adituek diote komeni dela lehenbailehen egitea. Larraitz Ugarte abokatuak ere hala azaldu dizkigu gauzak. Gure ondasunekin zer egin dezakegunaren gainean uste oker asko dagoela dio Ugartek. Esaterako, nire ondasun guztiak nahi dudanari utz diezazkioket? Bada, ez da horren erraza.**

Larraitz Ugarte *

# Heriotzaz eta oinordetzaz

Inork ez du gogoko heriotzan pentsatzea, are gutxiago norberarenaz ari garenean. Badirudi horretaz mintzo ez baldin bagara, horretan pentsatzen ez badugu, ekidin egingo dugula. Baina lagunok, ziur egon, denok hilko gara! Eta orduan zer? Zer utziko diegu ondorengoei? Egonezina, iskanbila, eromena edota gure joateak suposatuko dien tristura baino ez? Gustuko izan ez arren aurreikusi beharreko kontua dela iruditzen zait.

Ondo egindako gauzak ondo eginda daude eta zentzu horretan bakoitzak bere heriotzan pentsatuz esku artean dituen ondasun eta zorren (horiek bai ugari!)zerrenda bat egin eta notarioari hori guztia nori utziko diozun adieraztea duzu onena, testamentua egitea, alegia. Ondorengoek oinordetzaren banaketa egitea erraztu eta istiluak ekiditea erdietsiko duzu modu horretan.

Joan zaitez abokatuarengana edota notarioarengana aholkularitza juridiko bila eta azaldu iezaiozu zein den zure borondatea eta itaundu zer egin dezakezun, legeak ez baitu beti ahalmentzen bakoitzak bere ondasunekin nahi duena egitea. Legeak muga batzuk ezartzen ditu eta horien barruan erabaki dezakegu zer egin nahi dugun. Esaterako, ez da posible seme-alabak izanez gero dena senarrari edo emazteari uztea (kalean askok kontrakoa uste izan arren), legeak oinordetza ondasunen bi heren hauentzat aurreikusten baititu. Honela oinordetza kasu honek hiru zati aurreikusten ditu: heren bati legitima hertsia deritzo, seme-alabak izatekotan derrigorrez aplikatzekoa zati proportzionaletan; besteari, hobetzeko herena, seme-alaba hauen artean nahi bezala banatzekoa. Azkenik, libreki banatzeko herena dago eta honekin nahi dena egin daiteke.


MIKEL ARROIABE

Seme-alabarik ez duten bikote askok legezko mugetatik salbu daudenaren uste okerra dute. Izan ere, ezkonduta dagoen bikotekideak gurasoak bizirik badítu hiltzerakoan herena derrigorrez hauentzat utzi beharko baitu. Ezkonduta ez dagoenak eta ondorengorik ez duenak erdia utzi beharko die oinordetzan aurrekoei.

**"Ezkonduta dagoen bikoteak gurasoak bizirik baldin baditu hiltzean herena haiei laga behar die ezinbestean"**

**"Testamentua egitean ondorengoei erraztuko diegu oinordetzaren banaketa eta istiluak ere ekidingo ditugu"**

Ezkontideak ere badu legez aurreikusitako eskubide sorta bat, ondorengoekin eta gurasoekin konparatuz oso txikia eta diskriminatzailea baldin bada ere. Hauek dira ezkontidearen oinordetza-legezkoak dituen berezitasunak: hainbat ondasunen erabilera, bizi arteraino jabetza beste batzuei egokitu arren; senipartea (legitima) izatea beste zenbat seniparte daudenaren araberakoa eta seme-alaba edota gurasoen senipartearekiko bateragarria eta aldiberekoa izatea. Zure kasu konkretuan zer dagokizun jakiteko hoberena kontsulta pertsonalizatua egitea duzu.

Legezko muga hauek ikusi ondoren, argi dago legez oinordetzera deituta dagoen norbaiti dagokiona ematerik nahi ez baduzu prozesu judizial bat zabaldu beharko duzula eta oinordetza eskubide hori epai bidez kendu. Kontutan hartu ere ondasunak ez dituzula zertan soilik jabetzan utzi behar, posible dela hainbatetan erabilera oinordetzea.

Eta adinari buruz zer esan? Heriotzak atean noiz joko duen jakiterik ez dagoenez, hobe da aurreikuspenez ibili. Edozein adin duzularik egitea komeni da. Hobe duzu hil arte itxaron baino testamentua egitea. Izango duzu hau aldatu eta 30 euroren-gatik (merkea, ezta?) nahi adina testamentu berri egiteko denbora eta. Zerbait izatekotan, noski. Eta bestela, badaezpada, ahaztu gaia.

*Larraitz Ugarte, abokatua da.

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Etxeko lanak ordaindu egin behar dira?

| | |
|---|---|
| BAI | %100 |
| EZ | %0 |

**> BAI**
Nik, behitzat, baietz uste dut. Lan kontsideratzen dut nik. Nik etxetik kanpo egiten dut lan, zortzi orduz eta astelehenetik egubakoitzera. Baina hor ikusten dut ama, egunero-egunero, astelehenetik domekara lanean eta goizeko 08:00etatik 22:00etara. Etxea garbitu, jatekoa egin, arropez arduratu, mediku lana egin, psikologo lana... Hori guztia ordaintzekoa ez bada, zerk merezi du bada, dirua jasotzea?
**Ainara**

**> DUDA BARIK**
Soldata izan beharko lukete, jai egunetako plusa eta noizean behin opor ordainduak. Gure amengatik izango ez balitz non egongo ginateke gutako asko...
**Ibai**

**> ZENBAT?**
Inongo zalantza barik bai. Ez dakidana da zenbat ordaindu beharko litzaiekeen etxean lan egiten dutenei. Nik, garbitzaileari 10 euro ordaintzen dizkiot.
**Ander**

**DATORREN ASTEKOA: Zenbat gimnasia ordu dira beharrezko eskolan?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

ezkutatzeko lanik hartu ez duen heinean. Realaren datorren urteko zuzendaritzak ederki asmatuko luke, atxikiko balu.

## Leo Bassiren kontra egitten jarraitzen dabe

**Iban Arantzabal**
www.goiena.net/blogak/arantzabal

Gure herriko alkatiak ohar bat etara dau Leo Bassik Elgetan jokatuko daben antzezlanaren harira jasotako spama dala-eta. Handik etaratako puntu batzuk:

- Elgetako Udalak 200 mezutik gora jaso dittu azken egunotan Internet bidez Leo Bassik abenduaren 1ian Espaloian egingo daben ikuskizuna bertan behera lagatzeko neurrixak hartzeko eskatzen.

- Bigarren aldixa da Bassi Elgetara datorrela eta iaz be antzerako mezuak jaso zittuan Elgetako Udalak.

- "Ez dot neurririk hartuko Leo Bassik Espaloia Kafe Antzokixan egingo daben ikuskizuna dela-eta".

- "Ez Leo Bassik, ez beste iñork, ez dau merezi bere ideia, iritzi edo pentsakerak libre azaltzeko eragozpenak izatia".

- Herritarrak animatu gura dittu *Instintos Ocultos* ikustera fateko: "Herritarrek erabakiko dabe ikuskizunak merezi daben edo ez . Bakoitzak bere iritzixa euko dau. Hoixe dauka oiñarri adierazpen askatasunak, danon askatasuna".

Goittik behera egitten dot bat gure herriko alkatiak esandakuekin. Halakoik!

Zer uste dabe dirala eskuma muturrekuok holako mezuekin spameatziaz gain artista baten jarduna eragozteko?

koplak

Mañex Agirre

## WSJ: Inkisizioa?

Edizio on, formala
dugu Wall Street Journal-a,
baina bertako norbaitek "gaizki"
irabazten du jornala...

Euskara inkisizioz
josteko zeuden desioz...
Ta helburua ondo lortuta
isildu dira, adios!

Izan nintzen leitzeko gai,
ta kezkak sailkatu lasai:
kazetariak ez nau kezkatzen,
baina Joseba Arregik bai.

"Jo, iritzi bat da, joño!,
zertan hainbeste enpeino?"
Bada, ez dakit lerratzen ez den
errespetu faltaraino.

"Hain handi al da kaltea?
Ez al da hobe bakea?"
Ez dakit baina geure esku dago
erantzun bat ematea.

Konklusio bat, larria
nahiz eta ez den berria:
ezjakinaren jarduna inoiz
ez da aberasgarria.

# Euskal Herri euskalduna eraiki

**Iraia Elorza** (Eskualdeko EHE)
Debagoiena

Euskal Herririk gabe, euskarak ez du etorkizunik izango. Ezta euskarak Euskal Herririk gabe ere.

Euskararen egoera iluna da. Debekuz eta zapalkuntzaz, egun indarrean dauden hizkuntza politika eta legediek ere, ez dute inongo urratsik eman Euskal Herriak behar duen berreuskalduntze prozesuan. Esku artean dugu datu esanguratsu bat; iaz, Vascuencearen Legeak 20 urte bete zituen, eta aste honetan Euskararen Legeak (EAE) 25 urte beteko ditu. Urte hauetan argi gelditu da ez dutela inondik inora euskararen etorkizuna bermatzeko urrats eraginkorrik eman. Oraindik orain, euskararen normalkuntza bermatzen ez duten plan eta egitasmoak jartzen dira martxan; euskaldunoi behin eta berriro iruzur eginez eta hizkuntzaren etorkizuna kolokan jarriz.

Eraso, debeku eta oztopo ezberdinek gure lana zaildu dute, baina inondik ere ez dugu Euskal Herria euskalduna lortzeko helburua alboratu. Aurreko astean bertan, ezabaketa astea burutu dugu, erdarazko seinaleak ezabatuz. Honela, euskaraz bizitzeko dugun eskubidea aldarrikatu dugu, hots, paisaia euskaldunaz gozatzeko aukera. Hizkuntza eskubideen urraketak salatzea xede izanik, 50 herri eta auzotan egin dira ekimenak eta, oro har, 1.000 seinale erdaldunetik gora izan dira Euskal Herriko txoko guztietan ezabatuak.

Euskaldunak gara gure hizkuntza eskubideen defentsan eta normalkuntza egitasmoen garapenean protagonista nagusiak. Datorren hilabetean, 11 euskaltzale epaituak izango dira beste 3 euskaltzaleren epaiketa batean *Euskal Herrian Euskaraz* abestia kantatzeagatik. 5 hilabeteko kartzela zigor eskaeren aurrean aurkitzen gara, justizia administrazioaren hizkuntza politika zein den agerian gelditzen delarik.

Egungo lege eta hizkuntza politikak gainditu behar ditugu ezinbestez. Euskal Herri osorako aldaketa suposatuko duen legedi berriaren alde indarrak biltzeko garaian gaude. Bost ezaugarri nagusi jasotzea beharrezkoa da:

1. Euskara berezko hizkuntza izendatu behar da.
2. Euskara ofiziala izan behar da Euskal Herri osoan.
3. Euskararen egoera ikusirik lehentasunezko hizkuntza izan behar da.
4. Euskara euskal herritar guztiek ezagutu behar dute.
5. Herritar guztien hizkuntza eskubideak Euskal Herri osoan aitortu behar dira.

Horixe da euskarak behar duen aldaketa eta jauzia. Planteatzen ari garena, azken batean, herri honek bere hizkuntza normalizatzeko duen eskubidea gauzatzea da. Gaur, eskubide hori bahitua dugu; horregatik, eta ezinbestez, guztion indarrez, Euskal Herria euskalduna eraiki!

# Leo Bassiren ikuskizuna: bakoitzak bere iritzia

**Oxel Erostarbe** (Elgetako alkatea) > Elgeta

Bigarren aldia da Espaloia Kafe Antzokiak Leo Bassiren ikuskizuna programatu duela. Lehenengo aldian hainbat mezu iritsi ziren udaletxera ikuskizuna eragozteko eskatuz. Oraingoan, 200etik gora izan dira alkateari ikuskizuna bertan behera uzteko neurriak hartzeko eskatuz, udaletxera iritsi diren mezuak.

Ez Leo Bassik eta ez beste inork ere ez du merezi bere ideia, iritzi edo pentsaerak libreki azaltzeko eragozpenak izatea. Pentsatzen dugu aberatsa dela ondokoak esan gura duena entzun eta ikustea.

Elgetako Udalak ez du Leo Bassik Espaloia Kafe Antzokian egingo duen ikuskizuna dela eta inongo neurririk hartuko. Ez ditu erantzungo ikuskizuna debekatzeko eskatuz jaso dituen mezuak. Elgetarrak animatu gura ditugu ikuskizuna ikustera, gero bakoitzak bere iritzia izango du han ikusi eta entzundakoaren gainean. Norbera libre da bere iritzia izateko, Leo Bassi libre den moduan bere ikuskizuna egiteko eta Espaloia Kafe Antzokia libre den moduan ikuskizuna antolatzeko. Izan ere, horretan datza adierazpen askatasunak, guztion askatasunean.

Azken hitza ikuskizunera joango direnek dute, beraz. Horiek bai, horiek erabakiko dute merezi duen edo ez ikuskizunak. Herritarrok zorteko gara aukera dugu-eta bertatik bertara ikusteko mundu mailako artista honek dioena, adierazteko duena. Iritziak garatzeko modua badugu eta guk ez diogu horri trabarik jarriko. Ia kultura ekintza honetaz gozatzerik duten ikus-entzuleek, horixe litzateke gure nahia.

# AHT: zergatik ez?

**Leire Alberdi**
(Arrasateko Segi)
Arrasate

Gazteok badauzkagu hamaika arrazoi Euskal Herriari inposatutako proiektu suntsitzaileen aurka borrokatzeko, hamaika arrazoi AHT betiko gelditzeko, hamaika arrazoi AHTri ez esateko.

Behin-behinekotasun soziala ekarriko du. AHTk hiriburuak elkarlotuko ditu. Honek:

- Herri txikien gainbehera bultzatuko du, besteen artean deslokalizazio industriala areagotuko duelako; hau da, enpresak hiriburuetara joatera behartuko ditu, herrien kalterako.
- Ondorioz, behin-behinekotasun soziala handituko da, herritarren bizi baldintzen kalterako.

Amalurra suntsituko du. Proiektu honek gure inguruetan izango duen eragina izugarria izango da:

- Udalatx zulatzea nahi dute, Kobateko bailaran 3 zubi-bidez gain, beste hainbeste zulo egin nahi dizkiote, barrenak atereaz.
- Aramaioko paisaia ederra txikituko dute, Suña eta Untzila auzoak herriarekin fisikoki bananduz eta bertako bailara osoa lurrez estaliz.
- Garagartza eta Santa Agedatik ehun metro eskasera pasatuko litzateke munstro hau, zarata eta dardara jasangaitzak pairatzeko arriskua eraginez.
- Herriak porlanez inguraturik geratuko dira. Animalia eta landaretza espezieak gutxituz joango dira... imajina ezina diren kalteak ekarriko ditu: suntsipena!

Euskal Herria kolokan jarriko du. Proiektu honek Euskal Herrian izango duen eragina:

- Oso larria izango da ikuspuntu ekologiko, sozioekonomiko zein politikotik.
- Atzeraezina izango da.

Bestalde proiektu inposatua da:

- Herritarrok ez dugulako informazio nahikorik izan.
- Ez delako eztabaida publiko duin bat egin gaiaren inguruan.
- Herritarrok ezin izan dugu gure iritzia adierazi.

Proiektuak izango dituen eragin kaltegarriak eta jarraitzen ari diren inposaketa eredua kontuan hartuta: *gure lurre defendiru deigun!* AHTrik ez!

# Aralar, herriaren hitza errespetatu

**Garikoitz Iturbe**
Aretxabaleta

Aurreko astean Atxabaltako Aralarrek, prentsaurreko bat eman zuen ANVk kaleratutako eskutitzaren aurrean. Eskutitz hau aurrean dudalarik, notizia irakurtzen hasi naiz. Ezer baino lehen argazkiari errepáratu nion eta ondoren irakurtzen hasi nintzen. Bertan, Aralarrek ANVri exijitu zion 4 puntuetako bakarrari egiten zioten aipamena. Ezetzaren pisua, eraso guztien kontrakotasunaren inguruan zentratu zuten. ANVk, publikoki esana du, kondena hutsetik haratago doazen konpromisoak hartzeko prest dagoela. Indarkeria mota guztiak gainditzeko bidean urratsak emateko prest dagoela.

Hori horrela izanik, zergatik ezkutatu zenuten ANVri exijitutako beste puntuak? Zergatik ez zenuten aipatu pertsona "garbi" bat exijitu zenutela? Honek bere kargua Aralarren eskuetan utzi behar zuela zuek nahi zenutenean zinegotzi kargutik kentzeko? ANVren parte hartzea sekretupean eramatearen exijentzia? Benetan uste al duzue ANVk, zuek aipatutako puntu bakar horri esan ziola ezetz! Alderdien legearen aplikapen zorrotza exijitu diozue eta gainera harritu egiten zaituzte ezetz esatea?

Gogora ekarri nahi dizuet 839 herritarren botoak medio ANV dela Atxabaltako lehen indarra. Nik uste dut perspektiba hori galduta duzuela. Zergatik ote? Ez zenuten lau haizetara aldarrikatu ditxosozko LOREG legea aplikatu behar zenutela ANVri zegokion alkatetza emateko? Erabakia nork hartu du zuok edo Aralarreko mahai nazionalak? Zuen sorreratik defendatzen duzuen autonomia horrek ez al du topea jo? Eta desobedientzia zibila?

Ez, Aralar. ANVk ez dio zuen proposamenari ezetz esan. Alderdien legea praktikara eraman nahi izan duzue. Zuok, antza, lege honen aurka zaudetenok eraman duzue ANVren erantzuna zuok nahi zenuten bidera. Ezetza zuok eman duzue. Boterean jarraitzeko nahi horrek itsutu zaituzte. Baina jakin, eta berriz ere azpimarratu nahi dut, herriak ANVko zerrenda aukeratu zuela zuok espainiar legeak baliatuz, hartu duzuen kargua ordezkatzeko. Herriaren hitza errespetatu.

# Ausardiarik eza?

**Juan Mari Urrutia**
Arexabaleta

ANV-EAEk, hilaren 10ean emandako prentsaurrekoan, Aralarrek Ezker Abertzalea gobernuan nahi ez duela pentsatzera eraman duten argumentuak ezagutzera eman ondoren, Aralarren erantzuna EAEren ausardia eza salatzea izan da, nahiz eta haiei egindako salaketak ukatu ez dituen.

Herri programaren 15. orrialdean..., Aralarrek, legeak esandakoa alde batera utziz, ideologia eta iritzi guztiak ordezkatuak egoteko bideak eraikitzeko konpromisoa hartu zuen.

Aralar, atxabaltar guztiei bidalitako idatzian hauteskundeetako emaitzak errespetatzera konprometitu zen, ANV-EAEko zerrendaburuari alkatetza uzteko ondorioarekin.

Aralarrek bere praktika politikoan bidegabekeria salatzeko bide bezala desobedientzia zibila defendatzen du, injustizia horien artean alderdien legea dagoelarik eta behin berriz kritikatua izan dena.

Atxabaltako Aralarrek hitz egiten du, idazten du eta konprometitzen da baina egiaren orduan ezer ere ez. Lotsagabea izan behar da gainontzekoak ausardia ezagatik salatzeko norberak oztopoak besterik ez dituenean jartzen, emandako hitza bete gabe.

Bukatzeko, ziur nago Ezker Abertzaleak orokorrean eta ANV-EAEk konkretuki, bere boto emaileekiko zein Atxabaltako herriarekiko, hartutako konpromisoak beteko dituela bai nahiko genukeen bezala udaletxe barruan bai behartzen ari diren bezala udaletxe kanpoan ere.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33 20570 BERGARA** | **Telefonoa:** 943 25 05 01 | **Faxa:** 943 25 05 13 | **Posta elektronikoa:** goienkaria@goiena.com


UDA GOIENEKO
OSTERA
Murugarren
Txuma eta Gari
DURANGO PLATERUENA
AZAROAK 30, BARIKUA, 22:00etan. SARRERA: 8 € AURRETIK 10 € BERTAN.
antolatzailea
Topagunea
Euskara Elkarteen Federazioa
babesleak
BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura
100bbk
laguntzaileak
PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia


JANTZIDENDA
LASAGABASTER
Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55
ETXE APAINKETA

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

**ARETXARGI**
Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## IGELTSEROAK

**DE LA TORRE IGELTSEROTZA**
Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

**G. IZCUE IRURZUN**
Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak…
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## ITURGINTZA

**ARETXABALETA ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**J.J. IRURE ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## KONPONKETAK

**MULTIARREGLOS**
Arrasate
• Konponketak: Altzariak, zoruak, zokaloak, entxufeak...
• Instalazioak; Geletan antenak, telefoneonkableak...
• Jartzeak: Koadroak, lanparak gordiank...
• Ahokadurak: Telebistak, bideoak, musika ekipoak...
Tel: 699 60 97 08

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIC**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**YOSU THERMIK**
Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

**LEIHATEK**
Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

**DAVILA MARGOAK**
Aretxabaleta
• Margoak orokorrean
San Migel 7, 3d.
Tel.: 646 22 41 09

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.




**> ARRASATE** Ume etorkinen hizkuntza integrazioa indartuko dute **> 18**





**> BERGARA** Zapatuko Patata Ferian pintxo eta sukaldaritza lehiaketak **> 25**






**> OÑATI** Lana Kooperatibak 16 milioi euroko inbertsioa egin du Txekian **> 33**





**> ANTZUOLA** Parrokiako lanak ordaintzeko dirulaguntza eske **> 36**


**DEBAGOIENA** > GABONETAKO ARGIAK

# Gabonetako argiak: Oñatik bideratu du diru gehien herria apaintzeko

**OÑATI** 17.950 euroko aurrekontua onartu dute Oñatin

**BERGARA** Azken hiru urteotan 7.000 euro inguru zuzendu dituzte apaingarritarako

**ARRASATE** Aurreko urteetako materiala aprobetxatuko dute kaleak apaintzeko



**OÑATI** Oñatiko kaleetan abenduaren 15etik urtarrilaren 7ra bitartean piztuko dituzte Gabonetako argiak. GOIENKARIA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Gabonak ate joka ditugula eta, dagoeneko hasi dira ibarreko udalak kaleak txukuntzeko lanekin arduratzen. Aurten ere Oñati izango da Gabonetako argiak jartzeko diru gehien bideratuko duena: 17.950 euroko aurrekontua onartu dute. Maykolux enpresa arduratuko da argiak jartzeaz. Kalebarria eta Atzeko kaletik arku batzuk kendu eta horren ordez Errementari plazan bi arku jarriko dituzte aurten. Bestalde, Foruen Enparantzan jartzen den zuhaitza Txantxiku Elektrizitateak jarriko du. Azken urteotan zeresan ugari eman du Oñatiko Udalak Gabonetako apaingarritarako bideratuko dirua. Aurten iazko aurrekontuaren erdia gastatuko dute.

**GABONETAKO GIROA PIZTU**

Maider Osa Bergarako Udaleko kultur teknikariaren arabera, azken hiru urteotan 7.000 euro inguru bideratu dituzte apaingarritarako. Aurten ere hainbat kaleri bizitasun gehiago ematea eta Gabon giroa indartzea dira helburuak. Bidekurutzeta, Barrenkalea, Artekalea eta San Pedro kaleetan arkuak jarriko dituzte. Irala kaleko farolak ere apainduko dituzte eta Oxirondo azokan, Mizpirualden eta Udaletxean Gabonak zorionduko dituzte. San Antonion eta Bolun ere izango dira apaingarriak. Oñatin moduan, Maykoluxi adjudikatu dizkiote lanak. Abenduaren 12an piztuko dituzte argiak.

Arrasaten aurreko urteetako materiala aprobetxatuko dute kaleak apaintzeko. Eskoriatzan 2.600 euro inguru bideratuko dituzte eta Antzuolan 6.000 euro aurreikusi dituzte apaingarritarako; Elgetan, berriz, ez dute oraindik horren inguruko erabakirik hartu.

Aretxabaletan, poliki-poliki gastua murrizten hasi nahi dute, Udaleko iturrien arabera. Era berean, beste era bateko apaingarriak jartzea aztertzen dabiltza, baina aurten oraindik ezingo dute hori egin eta iazko toki berdinetan jarriko dituzte argiak. Zuhaitzak apaintzen dituzte Aretxabaletan: Otalora kalean, Lausitta kalean, Errekabarren kalean, Loramendi kalean eta kirol etxe aurrean bana. Mitarte kaleko platanondo ilara eta Durana kaleko haritz ilara ere bai. Eta Gatzagan ere jarri izan dituzte argiak bi plazetan, baina oraingo udalbatzak oraindik ez du aurten zer egingo duten. Aramaion, ohi denez, zuhaitza jarriko dute sarrerako biribilgunean.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 23 | Etxeberria | Zarugalde 42 | 943 77 16 30 |
| Zapatua, 24 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Domeka, 25 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Astelehena, 26 | Corcuera | Maisu Aranbarri 1 | 943 79 22 26 |
| Martitzena, 27 | Irizar | Erguin 15 | 943 79 12 39 |
| Eguaztena, 28 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Eguena, 29 | Español | Araba Etorbidea 14 | 943 79 18 65 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 23 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Zapatua, 24 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Domeka, 25 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Astelehena, 26 | Urritikoetxea | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Martitzena, 27 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Eguaztena, 28 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Eguena, 29 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 23 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Zapatua, 24 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Domeka, 25 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 26 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 27 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 28 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguena, 29 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 23 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Zapatua, 24 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 25 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 26 | Anitua Arriola | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 27 | Anitua Arriola | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 28 | Anitua Arriola | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 29 | Anitua Arriola | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |

| Gasteiz | Aramaio | Arrasate |
|---|---|---|
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 24**

Elur-kota 1.000 m inguruan kokatuko da. Ipar/ipar-ekialdeko haizea bizi ibiliko da. Tenperaturak behera egingo du. Zaparrada arriskua.



**Domeka, 25**

Giroa hodeitsu egongo da, tartean zaparradak izango ditugularik. Iparraldeko haizeak zakar joko du. Tenperatura maximoak 10 ºC-ren bueltan.

### EUSKAL HERRIAN

Asteburua giro berdintsuarekin hasiko dugu. Zerua oso hodeitsu egongo da eta euria egingo du, Kantauri isurialdean batez ere eta litro gehienak, mendebaldean pilatuko dira. Lurraldearen hegoaldean, giroa argiagoa agertuko da eta zailagoa izango da euria egitea.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Domeka, 18 — **-6 ºC**

**MAXIMOA** Martitzena, 20 — **16 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **29,5 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 14** | 12 ºC | 8 ºC | 18,1 l/m² |
| **Eguena, 15** | 10 ºC | 6 ºC | - l/m² |
| **Egubakoitza, 16** | 8 ºC | -2 ºC | - l/m² |
| **Zapatua, 17** | 8 ºC | -5 ºC | - l/m² |
| **Domeka, 18** | 12 ºC | -6 ºC | - l/m² |
| **Astelehena, 19** | 16 ºC | 2 ºC | 1,5 l/m² |
| **Martitzena, 20** | 16 ºC | 8 ºC | 9,9 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA AZAROAN

| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| **1** | **11** | **17** | **24** |

## oharrak eta deialdiak

BERGARA

**> Kilometroak 07ko zozketako zenbakiak**

Bono laguntzarekin batera zozkatu ziren bi egonaldietako saridunak azaldu ez direnez, ordezko zenbakien berri eman dute Aranzadi-tik. Zenbakiok dira: 2591 eta 13455. Sari bakoitza da bi lagunendako egonaldia Getariako Saiasgetaria hotelean.

BERGARA

**> Aranzadiko ikastolako ikasle ohien afaria**

1976ko kintoek eta 5. mailan Miren Umerezen gelan ibili zirenek afaria egingo dute Sirimirin. Hilaren 24an izango da hori. Izena emateko deitu 652 71 74 27 zenbakira (Gorka).

ARAMAIO

**> KZguneko ikastaroetarako izenematea**

Dinamizatzailea hilaren 26an, astelehena egongo da KZgunean, 09:00-11:00 ordutegian. Ikastaroetan izena eman nahi duenak edo kontsultaren bat egin orduan du aukera.

ELGETA

**> KZguneko ikastaroetarako izenematea**

Dinamizatzailea gaur izango da KZgunean, 11:00-13:00 ordutegian. Ikastaroetan izena eman nahi duenak edo kontsultaren bat egin orduan du aukera.

ELGETA

**> Athleticen lagunarteak batzarra deitu du**

Lehenengo batzarra da eta karguak izendatuko dituzte: presidentea, presidenteordea, diruzaina eta bokalak. Batzarra irekia da eta izango da hilaren 25ean, 19:00etan, Bolatokia tabernan.

ARRASATE

**> Jostailuen Truke Merkaturako jostailuak batzen hasi dira**

Abenduaren 15ean eta 16an egingo dute azoka. Ordurako jostailuak batzeko hainbat hitzordu egin dute: gaur, egubakoitza, Erguingo ludotekan eta San Andreseko alkatetzaren lokalean egongo dira. 29an eta 30ean, Santa Marinako ludotekan eta abenduaren 4an eta 5ean, Okendokoan. Guztietan 17:00-19:00 ordutegian.

BERGARA

**> Kilometroetako boluntarioen afaria eta DVDa**

Abenduaren 1ean afaria egin nahi dute Kilometroak 07 jaian boluntario jardun zutenekin, Udal pilotalekuan. Txartelak honezkero salgai daude 25 eurotan Aranzadiko idazkaritzan, eta Pol-Pol, Ariznoa, Deportivo, Dixula eta Jam tabernetan. Eskuragarri egongo dira hilaren 25era arte. Bestetik, Kilometroen gaineko DVDa ere atera dute. Eskuratzeko eskariak egin behar dira Aranzadiko idazkaritzan abenduaren 1a baino lehen (943 76 90 71). Gero, banatuko dituzte abenduaren 17tik 21era bitartean eta ordaindu ere orduan egin beharko dira. Prezioa da 12 euro.

ARRASATE

**> Zabalik dago tenis eta igeriketa eskoletan izena ematekoa epea**

Mojategiko tenis pista berrietan izango dira tenis eskolak, 15 urtetik gorakoendako. Astelehen eta eguaztenetan, 16:15ean izango dira eskolak; martitzen eta eguenetan, berriz, 17:30ean, 18:30ean eta 19:30ean. Prezioa da 44 euro bazkideendako eta 54 gainerakoendako. Igeriketari dagokionez, bakarkako eskolak izango dira, onuradunak aukeratzen duen ordutegian, beti ere, 07:15etik 17:30era bitartean. Hileko prezioa da 31,95 euro bazkideendako eta 41,95 gainerakoendako.

ELGETA

**> Lennart Green magoa ikusteko sarrerak salgai**

Abenduaren 15ean Lennart Green Suediako mago handiak ikuskizuna egingo du Espaloia antzokian. Besteak beste, munduko txapelduna da kartomagian. Sarrerak dagoeneko salgai daude 15 euroren truke –12 bazkideendako–.

BERGARA

**> Jardun elkarteak koordinatzailea behar du**

Berriketan proiekturako eta haurren euskara errefortzuetarako koordinatzailea behar ditu. 8 orduko jarduna da. Beharrezkoak dira euskara menderatzea eta harremanetarako erraztasuna izatea. Interesatuek bidali curriculuma Jardun elkartera (Errotalde de jauregia, z/g, 20570 Bergara), hilaren 23a baino lehen. Argibide gehiago: 943 76 36 61.

DEBAGOIENA

**> Txikilandian parte hartzeko dei egiten die Txatxilipurdi elkarteak begiraleei**

Urtarrilaren 2tik 5era bitartean ospatuko da Txikilandia, Arrasaten, eta harako dei egin du Txatxilipurdik. Interesatuek izena eman dezakete abenduaren 10era bitartean, Txatxilipurdin. Curriculuma eta argazkia eraman behar dira. Ohiko begiraleek, berriz, izena ematearekin nahiko dute.

**943 25 05 01**
**goienkaria@goiena.com**

kale inkesta

# Zer iruditzen zaizu herrian Gabon argi gutxiago jartzea?



**Ramiro Litago**
Erretiratua
Elgeta

Aurrezteko modu ona ikusten dut. Ez nituzke faltan botako eta etxekoek ere ez. Beharbada halako gauzek haurrei egiten die ilusio gehiago. Ez dakit etxean ipiniko ditugun aurten.



**Idoia Belar**
Langilea
Elgeta

Ni Elgetan bizi naiz baina Eibarrekoa naiz, eta Eibarren badaude. Gainera Gabon giroa bertan islatzen da, niri gustatzen zaizkit. Zazpi urteko semea daukat eta etxean ipiniko ditugu aurten.



**Alex Arantzabal**
Langilea
Elgeta

Niretzat ondo. Gastu handia da, denbora luzea egoten direlako piztuta. Beraz, gutxiago ipintzen badituzte, ez ditut faltan botako. Beste herri batzuetan ere gutxitu dituzte Gabon argiak.



**Alberto Zabala**
Langilea
Elgeta

Niri ez zait batere axola zer egiten duten argiekin. Gainera, ez naiz Gabon zalea, baina egia da gutxi jartzen badituzte gastua ere gutxitu egiten dela, eta hori gauza garrantzitsua da.



**Arrate Aiastui**
Langilea
Elgeta

Hori pentsatzen badu udaletxeak ba ondo egongo da. Argi kopurua gutxitzearren Gabon giroa ez da galduko. Guk etxean ez dugu ipintzen. Beste herri batzuetan ere arazo bera dago argiekin.

txistuak



GOIENKARIA

## Arrapala arriskutsua

Bergarar batek bidali digu argazki hau. Martoko auzoan dagoen arrapala hau zeharo arriskutsua da, batez ere euria egiten duenean. Duela hilabete gainera emakume batek irrist egin eta min hartu zuen. Udaletxean ere salatu dute egoera, baina momentuz ez dute inongo erantzunik jaso. Gainera arrapala bat baino gehiago daude gune berean.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

# 1

Emakumeen indarkeriaren aurkako plataformak martitzenean Arrasaten egin zuen prentsaurrekoa. Debagoienean indarkeria jasaten duten 4 emakumeetatik 1 gaztea dela aipatu zuten bertan, datu esanguratsua benetan.

usteak uste

Larraitz Zeberio

## Zaborretan janaria biltzen dute

Gustatu egiten zait Cuatro telebista kateak bariku gauetan ematen duen *Callejeros* saioa. Gaueko 22:30ak inguruan ematen dute eta askotan izaten dugu hizpide lagunartean hurrengo egunean.Agiriak berritzeko gau osoa, ilaran, komisaria aurrean, egitea beste irtenbiderik ez duten etorkinak izan ziren behin protagonista.

Aurreko astean, berriz, denda eta supermerkatuen zabor edukiontzietan egin zuten ordu erdiko erreportajea. Jende asko bizi da bertan lortutako produktuak janaz. Egoera onean dauden produktu asko botatzen direla ikusi zen erreportajean. Gezurra badirudi ere askok iraungitze-data oraindik ere agortu gabea zuten eta ondo ontziratuak zeuden, zabaldu ere egin gabe. Erreportajean agertu ziren saltoki batzuk, horrelako produktuak zaborretara bota beharrean, gobernuz kanpoko erakundeei eskaintzen zizkietela azaldu zuten. Gutxiengoa ziren, zoritxarrez. Gehienek produktu horiek zabor ontzietara botatzen zituztela ikusi zen. Baten batek, gainera, bilketa zerbitzu berezia hartuta zuen jendea zaborretan ikustea inguruko bizilagunen kexak eragiten zituela-eta.

5 galdera...

# Martin Begiristain

Urederra
Iturgintzakoa

**1. Hotza inoiz baino gogorrago etorri da dagoeneko. Berogailu gehiago saldu dituzue orain arte?**

Berogailuen eskaera berdina da. Gutxi dira beraien etxeetan berogailurik ez dutenak. Orain jendeak 12 urteko galdarak aldatzeko deitzen digu, arazoak gutxi dira. Jendeak aurreikusi egiten du, eta mantentze lanak egiten ditu norberak bere etxean.

**2. Jendeak zein berogailu mota eskatzen du gehien?**

Egoeraren arabera da. Bi sistema daude: atmosferikoa eta iragazgaitza deitutakoa. Lehenengoa, tximinia edukiz gero posiblea da, keak tximiniatik gora joaten dira. Iragazgaitzek aldiz, motor txiki baten bitartez funtzionatzen dute, eta hobeagoak dira.

**3. Negu aldean konponketa gehiago izaten dituzue?**

Bai noski. Urtean zehar ur beroak funtzionatzen duen edo ez da ardura bakarra, baina negua heltzen denean, jendea arduratu egiten da batzuetan mantenu faltagatik berogailua ipintzean izan ditzakeen arazoetaz. Honegatik, gomendagarria da udan 2-3 minututan zehar balbulak probatzea, buxatuta dauden edo ez ikusteko.

**4. Jendeak modu egokian erabiltzen du berogailua etxean?**

Orokorrean baietz esan daiteke. Ezagutza minimo batzuk baditu eta.

**5. Aholku batzuk eman berogailua modu egokian erabiltzeko.**

Ez konplikatzea. Termostato bat ipintzerako orduan girotermostatoa ipini. Programatuak direnak ez, garestiagoak direlako eta funtzio bera egiten dute. Bestalde, inoiz ez ipini 21ºC baino gehiago tenperatura etxean, txarra baita girorako. Amaitzeko esango nuke, bi urtetik behin derrigorrezkoa dela galdararen azterketa egitea arazoak ekiditeko.





**ESKOLAN** Arrasateko hainbat ikastetxetako ume etorkinak Udal Euskaltegian. U.M.

**HEZKUNTZA** > HIZKUNTZA INTEGRAZIOA

# Euskara zerbitzu hobea ume etorkinendako

Lau urteotan dabil Arrasateko Udala ume etorkinendako euskara eskolak ematen; zerbitzua indartu egingo dute orain

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Ume etorkinen hizkuntza integrazioko zerbitzua indartzeko diru gehiago emango du Arrasateko Udalak. Burokrazia tramiteren bat falta da hori gauzatzeko, baina borondate politikoa badagoenez, aurrera egingo du Euskara Sailak asteon aurkeztutako proposamenak. Hain justu, bikoiztu egingo dute zerbitzuko langileen ordu kopurua, Jose Felix Diaz de Tuestak, Euskara Saileko teknikari-burua esan duenez.

Ume etorkinen hizkuntza integrazioko zerbitzuaren bitartez, euskara erakusten diete kanpotik etorritako familien seme-alabei. Zerbitzu hori Debagoieneko Mankomunitateak bideratu zuen. Hala, 5 urtetik 15 urtera bitarteko umeak, astean lau bider eta egunean ordubetez, Udal Euskaltegira joaten dira eskola orduetatik kanpo, euskara eskolak hartzera.

**AURTEN, 50 INGURU**

Aurten, 50 ume inguru dabiltza parte hartzen zerbitzu horretan. Asko dira hispanoak eta beste asko magrebiarrak. Iaz, berriz, 35 inguru ibili ziren; "mugikortasun handia izaten dute mota horietako umeek", Diaz de Tuestak adierazi duenez.

**MATERIAL BEREZITUA**

Euskara eskola horiek gauzatzeko material berezia erabiltzen dute, ume etorkinen integraziorako bereziki prestatutako materiala. Sortu, Arrasaten sortu dute material hori, Udal Euskaltegian, Mankomunitatearen finantzazioari esker; eta erabili, gaur egun erabiltzen dute Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta jakina, Arrasaten, baina Udaleko Euskara Sailetik jakinarazitakoaren arabera, EAEko herri askotatik jaso dute material hori eskuratzeko eskaera.

Izan ere, gaur egun, mota horretako material bakarra da Debagoienekoa. Hori horrela, aztertzen dabiltza ea posible den material hori argitaratzea, gero bestelako herrietara zabaltzeko. Idoia Hermosa eta Urrategi Elortza dabiltza material hori lantzen, Udal Euskaltegiko Elena San Martinek koordinatuta.

**GOIZ HASTEAREN ONURAK**

Hizkuntza integrazioko zerbitzuari dagokionez, Arrasaten orain dela bost urte hasi ziren eskola orduetatik kanpo euskara erakusten: "Orain sei urte, ume etorkin gutxi zegoen Arrasaten, baina ikusi genuen ugaldu baino lehen komeni zela gai horri heltzea. Horri esker dagoeneko badugu ezarrita sistema bat ume etorkinak kaptatu eta erakartzeko: eskolaratzen diren haurrengana jotzen dugu".

Arrasaten bost urte dela hasi ziren zerbitzuarekin, Bergara eta Oñatiko Udalekin batera. Gaur egun, Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere badihardute.

## Euskara erakusteko material berezitua

Momentuz, karpetatan dute gordeta orain arte landu duten materiala, baina 5-9 urte bitarteko umeei zuzendutakoa agitaratzeko moduan dagoela adierazi dute egileek. Aurten, gainera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gazteei zuzendutako materiala lantzen hasi dira.



Idoia Hermosa eta Urrategi Elortza, eurek landutako materialarekin. U.M.



Pedro Zumelaga. GOIENKARIA

**GIZARTEA**

# Pedro Zumelaga musikaria hil egin da

Beste batzuekin batera, zartzuela Arrasatera ekartzeko lan egin zuen

**U.M.** > ARRASATE

Zapatu goizaldean hil egin zen Pedro Zumelaga arrasatearra, 93 urte zituela. Bera izan zen, Juanito Artzamendi, David Artzamendi eta bestelakoen artean Azkoaga anaiekin batera zartzuela Arrasatera ekarri zuena.

Eta ez zartzuela bera bakarrik. Izan ere, 50-60ko hamarkadan dozena bat zartzuela taularatu zituzten Arrasaten, tartean, Jesus Guridiren *El Caserio* eta *Amaya*. Eta Guridi bera, izan zen Arrasateko ikuskizunetan.

Kantari fina (tiplea hasieran, baritonoa gero) parrokiako abesbatzan ere jardun zuen Pedro Zumelagak 14 urte zituenetik orain dela lau urte eskasera arte, gaixotu arte. Horrez gain, beti kolaboratu du herriko komunikabideekin; tartean Arrasate Press eta GOIENKARIA aldizkariekin.

2003an Iturbideko egoiliar egin zen. Egoitzatik kontatu duenez, joan arte bere egunak musika klasikoz beteta egon ziren.

MADINA ZURAK
Aroztegia
- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea • Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



PRENTSAURREKOA EAE-ANVko ordezkariak Kulturateko areto nagusian, martitzenean, prentsaurrekoan. MIREN ARREGI

**POLITIKA** > GORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK 2008

# EAE hauteskundeetarako atxikimenduak batzen

Gaur, egubakoitza, elkarretaratzea deitu dute, 19:00etan, Herriko Plazan; *Aldarria* manifestua aurkeztu eta atxikimenduak batzen hasiko dira

**UBANE MADERA**> ARRASATE

EAE-ANVk 2008ko martxoan Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan parte hartzeko asmoa erakutsi zuen joan den urriaren 12an Iruñean; bada, oraingo astean asmo hori berretsi egin dute Arrasaten. Prentsaurrekoa egin zuten horretarako martitzenean.

"Independentziaren aldeko mezua Espainiara eramateko konpromisoa hartu dugu, Euskal Herria nazioa dela adierazi eta Euskal Estatua sortzeko bidean bat egiten dugu guztion ahotsa entzunarazteko", adierazi zuen Oihana Aranburuk, EAEko kide eta Arrasateko alkate-ordeak..

Halaber, manifestu bat aurkeztu zuten, *Aldarria* izenekoa eta iragarri zuen egunotan manifestuaren aldeko atxikimenduak batzen hasiko direla "independentziaren aldarria Euskal Herriko lantegi, ikastetxe, erakunde, kultur, kirol eta mota guztietako elkarteetara eramanez. Indarrak biltzeko garaia delako, Euskal Herriaren etorkizuna euskal herritarron esku egon arte".

**ELKARRETARATZEA GAUR**

Arrasaten, gaur hasiko dira atxikimenduak batzen. 19:00etan Herriko Plazan elkarretaratzea egingo dute *Aldarria* aurkezteko.

*Aldarria* manifestuan zera diote, besteak beste: "Espainiar eta frantziar estatuek ez digute gure nortasunari atxikitzeko aukerarik ematen". Zera gaineratu dute: "Independentistak izan ginen, Nafarroaren izenpean, indarrez Estaturik gabe eta zatiturik utzi gintuzten arte". Hori horrela, diote "euskaldunok gure Estatua osatu behar dugula eta oro har, independentziaren aldeko hautua" egiten dutela. Azpimarratu dute "oso inportantea" dela hurrengo hauteskundeetan "independentziaren aldekoek eskubide guztiak izatea".

> GIZARTEA

## Mahai-jokoak eta nagusiei omenaldia, Abaroa elkartean

Mahai jokoak egingo dituzte Abaroan datorren eguenean, azaroaren 29an, 15:45ean. Interesa dutenek izena eman beharko dute datorren astelehenean, martitzenean edo eguaztenean. Bazkide txartela aurkeztu beharko dute izena emateko orduan.

Bestetik, Abaroa elkartetik jakinarazi dute datorren eguaztenean, azaroaren 28an, 90 urtetik gorako bizilagunei omenaldia egin behar dietela. Hitzordua egin dute 12:00etan, Abaroako bosgarren aretoan.

> AISIALDIA

## Domekan, Udalara, AEDren 'Mugarriz mugarri'-rekin

Domekarako egin dute hitzordua Arrasate Euskaldun Dezagun elkartekoek. *Mugarriz mugarri* izeneko ekimenaren barruan, irteera antolatu dute-eta. Hain justu ere, Udala aukeratu dute oraingo honetan. Iragarri dute "Udalako altxor ezkutuak ezagutzeko aukera" izango dela. Eta baita ere, irteera horretan Leintz Eskola kirolaren laguntza izango duela AED elkarteak.

Horrekin batera, azpimarratu dute "guztiondako moduko" ekimena dela, beraz, gonbitea herritar guztiei zabaldu diete. Hitzordua egin dute domekan, 09:00etan, Arbolapetan.

**AISIALDIA** > MUS TXAPELKETA DOMEKAN

# Mila euroko saria mus txapeldunentzat

Hotel Mondragonek antolatu du mus txapelketa; halako ekimen gehiago egiteko asmoa dute

**U.M.** > ARRASATE

Mus Txapelketa antolatu du Hotel Mondragonek, lehen aldiz. Hitzordua da domekan, 16:30ean, hotelean bertan. Parte hartu gura duenak 16:15ak baino lehen eman beharko du izena. Alberto Garro Hotel Mondragoneko zuzendariak azaldutakoaren arabera, izenemateak 40 euro balio du bikoteko, eta asko jota 50 bikote onartuko dituzte.

Sariak bikote kopuruaren arabera zehaztuko dituzte, "baina 50 bikote badatoz, lehen saria izango da 1.000 euro, gehi txapela eta urdaiazpikoa; bigarrena da 500 euro eta oparia; hirugarrena 300 euro eta oparia eta laugarrena, oparia", azaldu du Alberto Garrok.














**GOSE** Arrasateko taldeak argitaratuko duen diskoaren azala. GOSE

**MUSIKA** > DISKO AURKEZPENA

# Gose taldearen bigarren diskoa kaleratzear dago

Abenduaren 9an Durangoko Plateruenean izango dira disko berriarekin

**A.ARANBURUZABALA** > ARRASATE
Arrasateko Gose hirukoteak datorren astean Bilbon, prentsaren aurrean aurkeztuko du lan berria. Erritmo elektronikoak oinarri, trikitiaren eta gitarraren rock doinuak batzen ditu 11 abestik osatutako bildumak; horien artean, Hertzainak taldearen *Hil ezazu aita* abestiaren bertsioa dago. Iñaki Bengoa, taldekidearen esanetan, lan berria lehenengoaren jarraipena da: "Doinu aldetik, rockeroagoa dela suma daiteke, Osoronen, gitarraren eraginagatik izan daiteke".

Hitzek, berriz, lehenagoko bideari jarraitzen diote, hau da, probokatzaileak eta sentsualak. Horrela azaldu du Bengoak: "Aurrekoan moduan, oraingoan ere, hitzak nik idatzi ditut, eguneroko bizipenetan oinarritu naiz. Eguneroko prentsa sekulako inspirazio iturria da. Ondoren Osinagak kantuak euskarara moldatu ditu".

Abuztuan eta irailean grabatu zuten taldearen bigarren etxea duten Shot! estudioan. Aurrekoa, Oihukarekin argitaratu bazuten ere, bigarrenerako gustuko akordiorik lortu ez zutelaeta, Mungiako Baga Biga diskoetxearekin kaleratuko dute.

Taldea osatzen duten Ines Osinaga (abeslaria), Iñaki Bengoa (programazioa eta perkusioa) eta Jon Zubiaga *Osoron* (gitarra) kideez gain, beste musikari batzuk ere aurkituko ditugu diskoan, horien artean: Maixa trikitilaria, Txema Bad-F-Line eta Evaristo (La Polla, Gatillazo). Azken horrek abesteaz gain, *Mantis Atea* kantua idatzi du.

**ESKARMENTUKO TALDE GAZTEA**
2005ean sortu zen Gose taldea eta 2006ko urrirako kaleratu zuten lehen diskoa.

Taldeak dituen bi urte horietan, asko dira egin dituzten kontzertuak: "2007an 40 bat egin ditugu. Horien artean, zaila da bat aukeratzea, herriko jaietako Monterronekoa oso berezia izan zen, eta baita Carlinhos Brownekin egindako bira ere" gaineratu du taldearen sortzaileak.

**MUSIKA**

## EH Sukarra taldea gaur gauean, 3.60 aretoan

EH Sukarra eta Beñat Silum Sounz DJ-a, asteburuan 3.60 aretoan entzungai

**M.A.** > ARRASATE
Musika eskaintzarik ez da faltako asteburuan 3.60 aretoan, izan ere, EH Sukarra talde eibartarrak kontzertua eskainiko du gaur gauean. Gainera, bihar, DJ sesioa egongo da goizeko lauretatik aurrera, Beñat Silum Soundzen eskutik.

**EH SUKARRA**
EH Sukarraren kontzertua 23:00ean hasiko da. Taldeak, euren diskografia osatzen duten sei diskoetako abestiak eskainiko ditu, denetik, beraz. Hogeita bi kantuz osatutako errepertorioaz gozatu ahal izango dute bertaratzen direnek. Tartean, *10 urte gartzelan* eta *Lau teilatu* bezalako abestiak joko dituzte. Beste hainbat abesti, euren azken diskoan kaleratutakoak izango dira.

**MUSIKA** > OSPAKIZUNAK

## Santa Zezilia eguna dela eta, ekintza ugari gaur Arrasaten

Goikobalu abesbatzako eta Arrasate Musikal eskolako kideak kalera irtengo dira, gaur

**MIREN ARREGI** > ARRASATE
Atzo Santa Zezilia eguna izan zen, musikarien zaindarien eguna hain zuzen. Hori ospatzeko, gaur irtengo dira kalera, bai Arrasate Musikaleko zein Goikobalu abesbatzako kideak.

**ARRASATE MUSIKAL**
Arrasate Musikaleko ikasleak gaur aterako dira Santa Zezilia eguna ospatzera eta herriko kaleak musika doinuz alaitzera. Aurretik baina, Monterron-en bertan emango dute kontzertua; 18:15ean hasiko dira musika eskolako ikasleak euren instrumentuekin kontzertua eskaintzen. Saxofoiak, gitarrak, tronpetak, akordeoiak eta beste instrumentu batzuk ere entzun ahal izango dira. Kontzertuaren ostean, 19:30ak inguruan, Arrasate Musikaleko Banda kalera aterako da eta kalejira bat egingo dute herriko kaleetan zehar. Kalejira 20:00etan amaituko dute, Monterron jauregian.

**GOIKOBALU ABESBATZA**
Goikobalu abesbatzako kideak bestalde, 19:30ean elkartuko dira Portaloian, eta kantu poteoa egingo dute, herri erdiguneko tabernatan. Abesti herrikoiak kantatuko dituzte, eta honekin batera Goikobalu Txiki, Gazte eta Helduen abesbatzen gaineko informazio orriak ere banatuko dituzte. Baita Goikobalun bazkide egin ahal izateko txartelak ere.

Bestalde, bihar, Goikobalu Txiki Oñatin izango da Ganbara Txikirekin kontzertua ematen.



GOIENKARIA

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50




Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

# ZAHARRAK BERRI SAIOA

zahaRRak BERRI

Zure intereseko **elkarrizketak, erreportajeak** eta **tertuliak** batzen dituen programa berria daukazu **GOITBn**

EGUAZTENETAN **20:15**ean
EGUENETAN **13:15**ean

## Aste honetan:



**NOIZ:** **azaroak 28 eta 29**

**NOR:** **Amaia Diaz de Monasterioguren**
Dietista

**GAIA:** **Kruzifera barazkiak**
(brokolia, aza)
**Osasunerako oso onak**

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara, **SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!**
**Deitu** programan zehar **943 00 08 34** telefonora

Goitb
Goiena Telebista

**Ikustekoa!**

Babeslea:
kutxa URREZKO ZERBITZUA

TENISA

## Tenis ikastaroa egingo dute Mojategin

X.U. > ARRASATE

AUKEAk tenis ikastaroa antolatu du Mojategin pista berriak dituztela aprobetxatuta. Horrela, erabiltzaileek puntako instalakuntzetan ikasi ahal izango dute tenisean jokatzen. Iñigo Madrazo izango da irakaslea, eta martitzenetan eta eguenetan emango ditu eskolak, 17:30ean, 18:30ean eta 19:30ean.

**HILABETEKO IRAUPENA**

Hilabete iraungo du ikastaroak, eta bertan esku hartzeko bazkideek 44 euro ordaindu beharko dituzte; eta bazkide ez direnek, berriz, 54 euro. Bestalde, tenis pistak egunero daude alokagai.

> ATLETISMOA

### Santamasetako krosak 30 urte egingo ditu aurten

Arrasateko Atletismo Taldeak antolatuta, abenduaren 16an egingo dute Santamasetako krosa. 30. edizioa izango da aurtengoa, eta azken urteotan moduan, lehenengo gaztetxoenendako lasterketak egingo dituzte, eta 12:30ean egingo dute koadrilen lasterketa.



AURPEGI BERRIAK Aldaketa asko egin zituen joan den astean Merinok; tartean, Elortzaren debuta. J.A.

SASKIBALOIA > LEHENENGO MAILA

# Zortzigarrena Valsay Ardoiren kantxan

Ligako zazpi partiduak irabazi dituen Mondragon Unibertsitateak hirugarren postuan dagoen Valsay Ardoi taldea izango du bihar zain

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Zapatuan Iñaki Merinoren mutilek taldearen bertsio onena erakutsi beharko dute Valsay Ardoiren kantxan (19:30, Zizur Nagusian). Izan ere, Mondragon Unibertsitateko mutilek talde nafarraren kontra joan den astean moduan jokatzen badute, oraingoan jai dute.

**ATZETIK DATOZENAK**

Arrasateko taldearen atzetik datozenek ez dute ezer oparitzeko. Cafes Aitona, Valsay Ardoi eta Tabirako Baque dabiltza bigarren postuagatik lehian, hamabina punturekin berdinduta. Eta, hirurak ere deseatzen daude liderraren aurrean indarrak neurtzeko; motibazio iturria da hori.

Bihar Ardoiren txanda da, eta etorriko dira besteak, baina Merinoren mutilek ardura bakarra izan behar dute: joan den asteko loaldia noizbehinka baino ez gertatzea, eta talde makalen aurrean bada, hobe; horrela ere, MU irabazteko gauza da-eta. Aste barruan Merinok klubaren webgunean onartu moduan *(www.ointxe.com)* Ocaso Berrio Otxoaren aurrean taldeak tarteka baino ez zuen erakutsi ohi duen maila "bigarren minuturako lehenengo aldaketak egin behar izan genituen, taldearen jokoa ez zen-eta ona. Berrio Otxoa jokalari gutxirekin etorri zen, eta erritmo geldoa jartzen ahalegindu zen, partiduak eskuetatik ihes ez egiteko. Gure partetik lehenengo zatia akatsez betetakoa izan zen: jaurtiketetan, paseetan, erreboteetan, kontraeraso argietan...".

Bigarren zatian Santutxuko taldea nabarmen gerturatu zen markagailuan, baina zuri-moreek ez zuten kanpotarren erreakziorik onartu, eta 15-0eko partzialarekin erabakita utzi zuten norgehiagoka.

**TXOMIN ELORTZAREN DEBUTA**

Pozteko motibo bat ere utzi zuen joan den asteko partiduak, entrenamenduetan egindako lana sarritu guran, Merinok ligako lehenengo minutuak eman zizkioneta Elortzari.

futbitoa zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Cipris-THC | 8-3 |
| HLB 108-Lasagabaster | 1-6 |
| Abokajarro-Equs | 6-1 |
| Iriztu Taberna-Iturriotz Taberna | 2-2 |
| AT Celaya-Ekaitz Taberna | 1-3 |
| Cicatrus-Kalapatxak | 4-6 |
| Saukelu Abian-Bar Kokots | 7-2 |
| McAwen Dauen-Total Disaster | 18-2 |
| Iluntz-Betrayer | 4-4 |
| Dribling-Dribling | 3-2 |

**PARTIDUAK**

| Azaroak 24, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| **10:00** THC-Equs | Bar Kokots |
| **11:00** AT Celaya-Bar Kokots | Equs |
| **12:00** Lasagabaster-Cipris | AT Celaya |
| **13:00** Iturriotz Tab.-HLB 108 | Cipris |
| **16:00** Betrayer-Saukelu Abian | Abokajarro |
| **17:00** Abokajarro-Ekaitz Tab. | Saukelu Ab. |
| **18:00** Iriztu Tab.-Kalapatxak | Ekaitz Tab. |

| Azaroak 25, domeka | Epaileak |
|---|---|
| **11:00** Cicatrus-Total Disaster | McAwen Dau. |
| **12:00** Dribling-McAwen Dauen | Total Disast. |
| **13:00** Iluntz-Dublin Irish Pub | Dribling |

**SAILKAPENA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | McAwen Dauen | 9 | 3 |
| 2. | Dublin Irish Pub | 9 | 3 |
| 3. | Iriztu Taberna | 7 | 3 |
| 4. | Lasagabaster | 6 | 3 |
| 5. | Dribling | 6 | 3 |
| 6. | Saukelu Abian | 6 | 3 |
| 7. | Cipris | 6 | 3 |
| 8. | Ekaitz Taberna | 6 | 3 |
| 9. | THC | 6 | 3 |
| 10. | Betrayer | 4 | 3 |
| 11. | Iluntz | 4 | 3 |
| 12. | Iturriotz Taberna | 4 | 3 |
| 13. | Aboakajarro | 3 | 3 |
| 14. | Atletico Celaya | 3 | 3 |
| 15. | HLB 108 | 3 | 3 |
| 16. | Equs | 3 | 3 |
| 17. | Kalapatxak | 3 | 3 |
| 18. | Cicatrus | 0 | 3 |
| 19. | Bar Kokots | 0 | 3 |
| 20. | Total Disaster | 0 | 3 |

### Oraingo asteburuan badago zer aukeratu

Norgehiagoka erakargarriak izango dira asteburuan Zaldibarren ikusgai. Gainontzeko taldeak alde batera utzi barik, sailkapenari begiratuta domeka goizean lider dagoen McAwen Dauen taldeak bosgarren postuan dagoen Dribling izango du aurrean. Horrekin batera, eta nahiz eta sailkapenean ez dauden horren aurrean, zapatu arratsaldean berobero egongo da giroa. 16:00etan Betrayerrek eta Saukeluk jokatuko dute, eta 17:00etan Abokajarro eta Ekaitz izango dira aurrez aurre.

MULTIARREGLOS
Mikel 699609708
Etxeetan, komertzioetan eta ostalaritzan mantentze-lanak orokorrean.
Instalazioak: Edozein gelatan antenak, telefonen kableak...
Konponketak: Altzariak, zoruak, zokaloak, sabai zuloak, entxufeak, zisternak, baldosak...
Jartzeak: Koadroak, gortinak, lanparak, apalak, dekorazio objektuak...
Ahokadurak: Telebistak, bideoak, musika ekipoak, galdarak...
Erreformak egiten dira.

((112)) SOS DEIAK

arbolapeta arrasate beinke

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

bote prontuen

**Iñaki Pildain** > Santa Ana hoteleko nagusia

# "Aitaren baserriak zuen Santa Ana izena"

JASONE ZABALA > ARRASATE

**Iñaki Pildain arrasatearrak, bizitza guztia darama sukaldari lanetan. 19 urte Bergarako Lasa jatetxean lan egin ondoren, bere negozioa zabaldu zuen eta urria erdialdea geroztik martxan da Santa Ana hotela, Uribarri auzoan. Bertako jatetxean sukaldari dabil Iñaki Pildain.**



**Nolatan sukaldari? Izan duzu beste lanbiderik?**

Ez, ez dut izan beste lanbiderik, beti sukaldari lanetan aritu naiz. Beste jatetxe batzuetan esperientzia hartu nuen. Bergarako Lasa jatetxean 19 urtetan zehar aritu nintzen lanean. Nire osaba ere sukaldaria da.

**Zeintzuen artean eramaten duzue hotela?**

Bi neska harreran daude, beste hiru zerbitzari lanetan eta hiru gehiago sukaldean.

**Nola burutu zitzaizun hotel bat zabaltzearen ideia?**

Beti beste batzuentzat lanean arituta, nire negozio propioa zabaltzeko gogoa nuen eta halaxe egin dut. Gainera orain hotel berria dagoen lekuan nire aitaren baserria zegoen eta hemen bizi naiz.

**Zein da sukaldeko zure berezitasuna?**

Arraina eta batez ere kokotxak saltsa berdean.

**Sukaldari ez bazina izango zein beste ofiziotan arituko zinateke?**

Baserrian animaliekin. Baina gaur egun nire ustez baserrian animaliekin lana eginda ez dago irabazteko gauza handirik.

**Zergatik Santa Ana izena?**

Aspaldi hemen zegoen baserriak halaxe zuen izena, eta gure aitaren baserria zenez izena ez aldatzea erabaki nuen.

**Zein da sukaldean lan egitearen gauza onena eta txarrena?**

Onena bezeroak pozik uztea da, eta txarrena egun guztia egin beharreko lana dela, eguneko 24 orduak eta urtean 365 egun. Nahikoa lotua dena lanbidea da baina momentuz pozik nago.

argazki zaharra

## 1968-69 denboraldia Iturripen



Irudikoak, 1968-69 denboraldiko Mondrako futbol taldekoak dira. Argazkia Iturripe zaharrean aterata dago. Urte horretan preferente mailan jokatzen zuten arrasatearrek, 3. mailatik jaitsi berriak. Zutik, ezkerretik eskumara, Unamuno, Cid, Unzueta, Uribesalgo, Ramos, Aguriondo eta Uribarren. Behean makurtuta, Gonzalez, bi ume, Azpiazu, Biain, Isasmendi eta Mondragon.

**Argazkia:** Inazio Isasmendi.
**Testua:** Jasone Zabala
**Urtea:** 1968-69 denboraldia.

bere ustez



**Antxon Mendizabal**

## Hauteskunde osteko udaletxeak

Apartheidean oinarritutako hauteskundeak ez dira demokratikoak izan. Zenbait udaletan herritarren ordezkariak ez dira herritarrek aukeratutakoak. Emergentzia egoeran gaude. Egoera berezi horren aurrean, nire irudikoz, bi dira gure udalek dauzkaten oinarrizko egin beharrak.

Bake prozesua lehena eta udaletxeko kudeaketan sistema partehartzailearen ezarkuntza bigarrena.

Bake prozesua lehena. Baina ez hamarkadetan frankismoak goraipatu duen bakea, baizik eta eskubide nazional eta demokratikoetan oinarritzen den bakea. Estatu mailan gizartearen izaera nazional anitza onartuko duena eta gure nazioari autodeterminazio eskubidea eta lurraldetasuna onartuko dioena.

**"Udaleko eremuetan kontsultak eta erreferenduma egingo dituena"**

Udaletxeak kudeatzeko sistema partehartzaileagoak bigarrena; demokraziaren eraikuntzarekin bateragarri dena.

Udaletxeko diseinu estrategikoan, aurrekontu banaketan, eta eguneroko gauzetan, herritarren iritsi, eztabaida, ekarpen eta ekimenei lekua emango diena. Udaleko eremuetan kontsultak eta erreferendumak egingo dituena.

RECYCLING ekobai
recycling system
Kartutxoen berrerabilpena eta birziklapena.
Aurrezteko aukera bikaina!
*Zatoz eta informa zaitez!*
Arimazubi 1, behea • Arrasate • Tel/fax: 943 53 25 59


**EUSKARA** > BERGARAKO EUSKALTZALEON BILGUNEA

# Euskaltzaleoi dei egin die Berba elkarteak

## Euskara planak bultzatu dituzten enpresak omenduko dituzte Euskararen Egunean



**BERBA** Aurrean, Mendizabal eta Unamuno, martitzeneko prentsaurrekoan. E.M.

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Dagoeneko lau urte bete dira Berba, Bergarako Euskaltzaleon Bilgunea sortu zenetik. Hasieran, Euskal Herrian Euskaraz, AEK eta Jardun bildu zituen Berbak eta gaur egun eragile gehiago batu dira haren ingurura, Aranzadi Ikastola, Badihardugu eta Goiena kooperatiba tartean.

Berbaren helburu nagusia euskararen normalizaziorako urratsak ematea da eta ahalegin horretan hainbat ekimen burutu dituzte azken lau urteotan: norbanakoen euskararekiko konpromisoa, udalean euskararen egoera zein den aztertu eta lantegietan euskarak duen presentziaren jarraipena egitea, besteak beste.

**LAN MUNDUA OMENDUKO DUTE**

Martitzenean prentsaurrekoa eskaini zuten kultura etxean, abenduaren 3ko Euskararen Egunerako antolatutako ekitaldien berri emateko.

Nerea Mendizabalek eta Jon Unamuno Berbako kideek egin zuten orain arte egindako lanaren balorazioa eta, esan bezala, abenduaren 3an izango diren ekitaldiak plazaratu zituzten. Aranzadiko Ane Barrusoren, AEKko Naiara Aginagalderen eta Ipintza Institutuko Aitor Arrutiren babesa izan zuten komunikabideen aurreko agerraldian.

Abenduaren 3ko egitarauari dagokionez, 17:30ean jolasak izango dira Munibe plazan eta ondoren, 19:00etan, euskara plana martxan dituzten enpresek omenalditxoa jasoko dute Aroztegi aretoan. Soraluce, GKN Lazpiur, Arcelor, Lazpiur, Fit Automocion eta Geyser Gastech izango dira aurten omendutakoak.

Era berean, euskararen egoera Bergaran gaur egun zer nolakoa den azalduko dute egun horretan.

Berbako kideek herritar guztiak Euskararen Eguneko ekitaldietan parte hartzera gonbidatu dituzte. Bilgunea sendotzeko asmoz, euskaltzale guztiek Berban lekua dutela azpimarratu zuten martitzenean.

**HEZKUNTZA**

# Keinuen hizkuntza ikastaroa

**E.M.** > BERGARA

Keinuen hizkuntza ikastaroa antolatu du Aransgik, Udaleko Gizarte Ongizate Sailaren laguntzarekin. Gorrekin komunikazio ahalmenak hobetu nahi dituzten pertsonei zuzendutako ikastaroa da. Eskolak urtarrilean hasiko dira, Aransgin: hasierako mailan, eskolak martitzenero izango dira, 19:00etatik 21:00etara. Sakontze maila ere eskainiko dute. Ikasle kopurua mugatua da eta senitartekoek eta lagunek dute lehentasuna.

**DEBAGOIENDAR GUZTIENTZAT**

Interesatutako debagoiendar guztiek har dezakete parte. Matrikulak 85 euro balio du. Argibideak 943 76 27 03 telefonoan. Dagoeneko 35 urte bete dira Aransgi Bergaran kokatu zutenetik.

**ZAHARRAK** > MIZPIRUALDE EGOITZAREN ASTEA

# Mizpirualde Egoitzako egoiliarrek zapatuan emango diote amaiera ospakizun asteari

**E.M.** > BERGARA

Urteko sasoi honetan ohikoa denez, ospakizun ekitaldiak izan dituzte asteon Mizpirualde Egoitzan. Bihar, zapatua, amaituko dira ekitaldiok: goizean, 11:45ean, meza izango da erresidentziako kaperan (berogailuak ez zuela funtzionatzen eta, kexak izan dira egunotan hainbat herritarren partetik ), jarraian Alai Taldeak emanaldia egingo du eta ondoren bazkaria izango da Mizpirualden bertan. Egoiliarrekin batera, Antzuolako, Elgetako eta Bergarako udaletako ordezkariak eta erretiratuen elkarteetakoak izango dira zapatuko bazkarian. Bazkalostean, dantzaldia izango da, astean jokatutako txapelketetako sari banaketa egingo dute eta, azkenik, hainbat opariren zozketa.

**ERRESIDENTZIA BETETA**

Mizpirualden 106 lagun bizi dira gaur eta hainbat lagun itxaron zerrendan daude. Egoiliarren batez besteko adina 82,2 urtekoa da eta emakumeak dira nagusi (65). Ehun langilek dihardute lanean, 40 bat boluntarioren laguntzaz. Egoitza handitzeko proiektuaren zain dira agintariak.


**SEVILLANAK** Azahar taldeak sevillanak eskaini zituen martitzenean. E.M.

> ODOL ATERALDIA

### Bergarako Odol Emaileen elkarteak dei egiten du eguazteneko odol ateraldian parte hartzera

Aurtengo azken aurreko odol ateraldia egingo dute odol emaileek eguaztenean, hilaren 28an. Ohi denez, Seminarioko lokalean izango da, 18:30etik aurrera. Urteko azken odol ateraldia abenduaren 19koa izango da, ordu eta toki berean.

> KILOMETROAK

### Kilometroetan lanean jardundakoek afaria egingo dute abenduaren 1ean Udal Pilotalekuan

Kilometroetan lanean jardundako boluntarioek afaria egingo dute abenduaren 1ean Udal Pilotalekuan. Afarirako txartelak (25 euro) salgai daude azaroaren 25era arte Aranzadi ikastolan eta Pol-Polen, Deportivon, Ariznoan, Dixulan eta Jam aretoan.

> GABONAK

### Serafin Esnaola zenaren omenez, Gabonetako postalen lehiaketa deitu du Gure Ametsak

Gabonetako postalen III. lehiaketa deitu du Gure Ametsa elkarteak. 3 eta 12 urte bitarteko haurrek har dezakete parte. Orri laurdeneko kartulinatan Gabonen gaineko marrazkiak jasoko dituzte abenduaren 21ean, 19:00etatik 21:00etara. Sari banaketa abenduaren 22an egingo dute.




TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55





**PINTXO LEHIAKETA** Pintxoak egiteko orduan patata izango da erabili beharreko osagai nagusia. GOIENKARIA

**JAIAK** > PATATA FERIA BIHAR SAN ANTONION

# Hamahiru taberna eta sei elkarte lehian zapatuan

Gure Ametsa elkarteak antolatutako pintxo lehiaketa eta sukaldaritza lehiaketa bihar goizean

**EDU MENDIBIL** > BERGARA
Gure Ametsa elkarteak antolatuta, patata feria izango da bihar, zapatua, San Antonion. Feria 10:30ean zabalduko dute eta goiz osoan zehar hainbat ekitaldi izango dira. Esate baterako, Javier Pascualena adituak hamabi patata motaren gaineko azalpenak emango ditu eta artisau eta gastronomia produktuen postuak jarriko dituzte antolatzaileek, Udapa eta Natuber enpresen laguntzarekin, besteak beste. Patata izango da zalantzarik gabe biharko protagonista nagusia.

**PINTXO LEHIAKETA**
Pintxo lehiaketan Bergarako hamahiru taberna izango dira lehian: Mekolalde, Euxebio II, Hamaika, Ariznoa, Etxalar, Kaixo, Paulaner, Arkupe, The Cavern, Bodegon Hernandez, Sirimiri, Belengua, Avenida eta Agorrosingo taberna. Pintxoak egiteko orduan patata izango da erabili beharreko osagai nagusia. Antolatzaileek 2,5 kiloko patata poltsa bana emango diete partaideei eta gainerako osagaiak haien kontura izango dira. Hiru pintxo onenak sarituko dituzte. Txapelketa 11:30ean hasiko da.

Era berean, elkarte gastronomikoen arteko sukaldaritza lehiaketa jokatuko da ordu berean. Sei elkartek jardungo dute lehian eta ikusteko dago zeinek gertatzen dituen ondoen patatak saltsak berdean. San Migel-Pe, Umore Ona, Lasai Toki, Madura, Basalgo eta Gure Ametsako sukaldariak arituko dira lapiko artean.

Epaimahaiak ez du lan erraza izango bihar. Gastronomia Euskal Kofradiako Luis Mokoroak eta Rafael Indok eta Koldo Lasa sukaldari bergarararrak osatuko dute epaimahaia.

**PATATAK ETA HARAGI GISATUA**
Arabako Patataren Kofradiako Isidro Urzelai presidentearen eskutik patata dastatzea izango da Gure Ametsan, 11:30ean, eta ondoren patata eta haragi gisatuarena, kalitatezko label produktuekin. Feriari bukaera emateko, sari banaketa ekitaldia izango da 13:30ean.

**GIZARTEA**

## Adinekoak zaintzen ikasteko eskolak

Abenduaren 10ean, 12an, 14an, 17an eta 19an, erretiratuen egoitzan

**E.M.** > BERGARA
Mendekotasuna duten adineko pertsonak zaintzen dituzten familiarrei zuzendutako ikastaroak izango dira Bergaran datorren abenduan.

*Zure nagusiak maite dituzunez hobeto zaintzen ikasi* lelopean, Diputazioko Gizarte Politikako Departamentuak antolatu ditu ikastaroak. Hilaren 10ean, 12an, 14an, 17an eta 19an izango dira, erretiratuen egoitzan, 15:00etatik 19:00etara. Helburua zera da: adineko mendeko pertsonak zaintzen dituztenei laguntza eta prestakuntza eskaintzea

Medikuntza, psikologia, lege eta gizarte arloetako gaiak eta laguntza teknikoei buruzkoak landuko dituzte, hainbat adituren laguntzaz. Argibideak Udaleko Gizarte Zerbitzuan (943 77 91 65).

## Arcelorreko langileen protesta

Arcelorreko 40 bat langilek elkarretaratzea egin zuten martitzen eguerdian, ordu erdiz. Langileen arabera, bajen ordainketa ez da adostutako moduan egiten: 1992an aurreikuspen kutxa abian jartzea adostu zuten zuzendaritzak eta langileek, bajaren 21. egunetik aurrera soldataren %100 bermatzeko. Hala ere, soldataren %48 ordaintzera iritsi da enpresa azkenaldian. Langileak zuzendaritzarekin biltzekoak ziren gaur, arazoari irtenbidea emateko.




EDU MENDIBIL

**AZPIEGITURAK** > ABIADURA HANDIKO TRENA

## AHTren kontrako hainbat ekitaldi aste bukaeran

Bihar, zapatua, mendi martxa egingo dute Angiozarrera, 09:30ean hasita

**E.M.** > BERGARA
Abiadura Handiko Trenaren aurkako Bergarako taldeak hainbat ekitaldi egin ditu asteon. Aste bukaerako ekitaldiei dagokienez, gaur, egubakoitza, bilera irekia izango da gaztetxean, 19:30ean, eta aurretik panel informatiboak jarriko dituzte San Martin plazan. Bihar, mendi martxa egingo dute Angiozarrera 09:30ean, eta ondoren herri bazkaria gaztetxean. Bazkalostean kafe tertulia izango da.

**ANTZERKIA DOMEKAN**
Azkenik, domekan, *Trinomio kaotiko* izenburuko antzezlana izango da gaztetxean, 18:30ean, Terror taldearen eskutik eta Koloklown taldeak Klownstrofobias lana eskainiko du.

Irrintzi
kafetegia
Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.
Era guztietako lanak | Paper pintatuak
Moketa eta sintasola | Harea zorrotada
Iztuku esponjatua | Iztuku faltsua
Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

**MUSIKA** > SANTA ZEZILIA EGUNA OSPATZEKO

# Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du gaur

Kontzertua, gaur, arratsaldeko 20:00tan, Mariaren Lagundiko elizan izango da

Hiru parte izango ditu: haize-egurrezko taldea, haize-metal taldea eta orkestra



**ORKESTRA SINFONIKOA** Mariaren Lagundia elizan eskainiko dute kontzertua. GOIENKARIA

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Santa Zezilia eguna ospatzeko, Bergarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, 20:00tan Mariaren Lagundia elizan.

**EGITARAUA**

Hiru zatitan banatuko dute emanaldia. Lehenik eta behin, Orkestrako haize-egurrezko taldeak 4 lan eskainiko ditu: *La traviata* (Verdi), *Yesterday* (Lennon-Mc Cartey), *Lau trio* (Handel) eta *Film parade* (Coppola). Haize-metal taldeak bestalde, bi lan eskainiko ditu: *First Elisabethan Suite* (Anonimoa) eta *Another Cat: Kraken* (Hazell). Amaitzeko, Orkestra Sinfonikoak hiru lan eskainiko dit: *Andante Cantabile* (Tschaikowski), *The Producers* (Mel Brooks) eta *Waltz Nº2* (Shostakovich). Emanaldiak 40 minutu inguruko iraupena izango du. Orkestra Sinfonikoa 65 musikarik osatzen dute gaur egun eta zuzendaria Alfredo Gonzalez Chirlaque da.

> MUSIKA

## Kantariko azken saioa domekan izango da

Debagoienean Kantari karaoke ikuskizunak igande honetan izango du amaiera Bergarako Jam aretoan. Guztira lau saio izango dira, eta arratsaldeko 16:30tan izango dute hasiera. 24 talde igoko dira taula gainera. Aipatu, aurreko igandean jendetza handia bildu zela Jam-en eta haur eta gaztetxoek ez zituzten animuak faltan izan.

Herri guztietako saioak GOITBk eskainiko ditu datozen egunotan.

> 'GAZTAÑATAN'

## Eriz magoaren emanaldia zapatuan Osintxun

Bihar, zapatua, arratsaldeko 17:30 tan Eriz magoaren emanaldia izango da Osintxuko ludotekan. Sarrera doanekoa izango da.

Bergarako udaletxearen eta Kutxaren laguntzaz, hainbat ekitaldi antolatzen ari dira Osintxun *Gaztañatan* programaren barruan. Asteburu honetan, magiaz gozatu nahi duenak, aukera ezin hobea du Osintxun.

## 'Gomendatzen dizut' sariak banatu dituzte

2007 Gomendatzen dizut sarien banaketa egin zuten pasa den astean Bergaran. Irabazlek ondorengoak izan ziren: 12-17 urte bitarteko kategorian, Bergarako Matxalen Zezeaga Larrañagaren Eurodisney gomendioak irabazi zuen. Kamera digital bat irabazi zuen Matxalenek (irudian).
18 eta 34 urte bitartekoen artean, Iker Larreak irabazi zuen, Oportoko gomendioarekin. Bidaia bonoa jaso zuen Ikerrek.



GAZTE INFORMAZIO GUNEA

**AMODIOZKO GUTUNAK** > LEHIAKETA

## Amodiozko Gutunen 16. ekitaldia deitu du Jardunek

Amodiozko gutunena ez ezik, SMS bidezko mezuen lehiaketa ere egongo da

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Jardun euskara elkarteak antolatuta, Amodiozko Gutunen Lehiakertaren 16. ekitaldia da aurtengoa.

**PARTEHARTZEKO OINARRIAK**

Lanak jasotzeko epea, bai gutunak zein SMS mezuak, urtarrilaren 6an amaituko da. Oinarriak ondorengoak dira: lanak, argitaragabeak, jatorrizkoak eta euskaraz idatziak izan behar dira. Lehiaketan 1993a baino lehenago jaiotako edonork parte har dezake. Lanek gutun forma izan beharko dute, eta DIN A-4 orritan. Eskuz zein ordenagailuz aurkeztu ahal izango dira eta luzera ezingo da izan bi orrialde baino gehiagokoa. Sari bikainak egongo dira.

Argibidetarako, Jardunera (Errotalde Jauregia), 943763661 telefonora edo *www.jardun.net* webgunera jo dezakezue.

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

EDEL
TAPIZ DENDA
Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

IRISH PUB GALWAYS

Egubakoitzean
Komikoen gaua

Azaroaren 23an,
23:00etan TOÑIN

Zapatuan
kontzertua




Etorri eta dibertitu!!!

San Martin plaza z/g BERGARA Tel.: 943 76 30 86



ANDAMIORIK GABEKO LANAK



ÑAÑARRI
LAN BERTIKALAK

680 641 401
676 952 968

Fatxaden eta barruko patioen
berrikuntza eta pintaketak

Teilatuak • Kanaloiak • Bajanteak Tximiniak
Altuerako kimatzeak

**Bixente Pagaldai** > Atleta

# "Azken maratoia izango da, bai, hori da uste dudana, behintzat"

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

**Donostiako maratoiak 30 urte beteko ditu domekan, eta korrikalari bakarra dago edizio guztietan parte hartu duena: Bixente Pagaldai bergararra. Iazko lasterketa amaitutakoan (3:45:39) *Asteleheneko Goienkaria*-ri esan zion aurtengoa azken proba izango zela. Hori da galdetu diogun lehenengo gauza.**



Bixente Pagaldai Agorrosinen egindako erretratuan. JOSETXO ARANTZABAL

**Seguru azkena izango dela?**

Hori da orain uste dudana, behintzat. Dena dela, urteak luze jotzen du, eta ikusiko dugu (barre).

**Zerk bultzatzen zaitu maratoietan erretiroa hartzera?**

Adinak. Maratoia lasterketa oso gogorra da, ez da paseatzera irtetea, eta ondo entrenatzea eskatzen du. Dagoeneko 59 urte ditut, eta gorputzak igarri egiten du hori. 30 kilometroko distantzian ondo moldatzen naiz, baina hortik aurrera... komeriak. Aurten ere gorriak ikusi beharko ditugu.

**Eta gainera, ustekabeko arazo bat izan berri duzu.**

Egia esan, azken urteotan beti izan dut zer edo zer. Eta aurten ere zerbait izan behar: ziztada batengatik hanka handituta izan dut aste barruan, eta antibiotikoa hartzen ibili naiz. Baina, espero dut lasterketan arazo barik ibiltzea.

**Ondo entrenatu zara?**

Ez pentsa, bi hilabete egin ditut maratoirako entrenatzen. Proba hasi baino bost hilabete lehenago mendian ibiltzen hasten naiz, neguan hartutako kiloren bat edo beste kentzeko. Eta, azken hilabeteak errepidean egiten ditut entrenatzen, oso ezberdina baita mendian korrika ibiltzea edo errepidean jardutea. Aurtengo udan, baina, koliko bat tarteko jota ibili naiz: korrikan hasi eta ezin. Hori dela-eta bi hilabete baino ez ditut izan proba prestatzeko, baina nahiko ondo nagoela esango nuke.

**Bakarrik egiten dituzu entrenamenduak?**

Bai, gurago dut neure erritmoan ibili. Lehen lagunekin joaten nintzen entrenatzera, Donostiako maratoira ere koadrilan joaten ginen-eta. Baina, lagunek aspaldi utzi zioten korrika egiteari, eta ordutik bakarrik ibiltzen naiz. Gazteek askotan esaten didate eurekin joateko entrenatzera, baina bai zera! Edonork jarraitzen die horiei!

**"Donostian ez naiz sekula erretiratu; koadrilakook debekatuta geneukan"**

**"Gurago izaten dut bakarrik entrenatu eta neure erritmoan ibiltzea, bestela..."**

**Donostiako maratoi guztietan hartu duzu parte, baina gehiago egin dituzu.**

Bai, guztira 42 maratoitan hartu dut parte, eta Donostiako maratoi guztiak amaitu baditut ere, gainontzeko probetatik bostetan ez nintzen helmugara iritsi. Donostian koadrilakook debekatuta geneukan erretiroa hartzea, eta burugogorkeriagatik amaitzen nuen, bestela, banekielako ez nintzela gehiago itzuliko.

**Donostiako maratoiko antolatzaileek izango dute, bada, omenalditxo bat prestatuta, ala?**

Bai zera! Izenematea ordaindu eta gero esan didate diru hori itzuli egingo didatela, eta horrekin batera 30 zenbakidun dortsala ere eman didate. Baina hortik aurrera ez dut ezer espero. Orain dela bost urte Xabier Zubizarreta pasaiarra eta biok ginen beteranoak, 25 urtetan lasterketan parte hartuta. Eta hori ospatzeko Zubizarretak dantzariak ekarri zituen Pasaiatik.

## labegaraieta

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Niu Tim-Hamaika Jintxi | **11-2** |
| Belengua-Komando Piperrak | **3-5** |
| Irubide-Deportivo Oriente | **9-7** |
| Irish Pub-El Mapet | **7-2** |
| CM Errotagain-Tiki-Taka | **5-3** |
| Carboneros-Los Blus | **7-3** |

**PARTIDUAK**

| Azaroak 25, domeka, kanpoan | Epaileak |
|---|---|
| **11:30** CM Errotagain-Los Blus | **Irubide** |
| **12:30** Irubide-Komando Pip. | **Los Blus** |
| **16:00** Carboneros-El Mapet | **Hamaika Jintxi** |
| **17:00** Irish Pub-Hamaika Jintxi | **Carboneros** |
| **18:00** Belengua-Tiki Taka | **Irish Pub** |
| **19:00** Niu Tim-Deportivo Oriente | **Tiki Taka** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | CM Errotagain | 15 | 5 |
| **2.** | Irish Pub | 12 | 5 |
| **3.** | Los Blus | 10 | 5 |
| **4.** | Belengua | 10 | 5 |
| **5.** | Carboneros | 9 | 5 |
| **6.** | Tiki-Taka | 9 | 5 |
| **7.** | Komando Piperrak | 9 | 5 |
| **8.** | Niu Tim | 6 | 5 |
| **9.** | Irubide | 6 | 5 |
| **10.** | El Mapet | 3 | 5 |
| **11.** | Hamaika Jintxi | 0 | 5 |
| **12.** | Deportivo Oriente | -3 | 5 |

### Txapelketako hiru talde batzarrera deitu dituzte antolatzaileek

Martitzenean, antolatzaileek batzarra egingo dute Belengua, Los Blus eta Hamaika Jintxi taldeekin (19:30ean Kultura Etxean). Antolatzaileen asmoa da joan den asteko partiduarekin gainean berba egitea, eta partidua jokatu zuten eta epaile lanetan ibili zirenak deitu dituzte horretarako.

Horrekin batera, taldeendako ohar bat: norgehiagokak euren orduan hasi behar dituztela. Aurrerantzean, norgehiagokara bost minutu atzeratzen denak galdu egingo du partidua.

**MENDIA** > POL-POL IRTEERA

# Barazar aldean egin dute azken irteera

Domekan esan zioten Pol-Pol mendi elkartekoek denboraldiari agur, Barazarko inguruetan

**X.U.** > BERGARA

Bizkaiko parajeak aukeratu dituzte Pol-Pol elkarteko lagunek mendiko irteeren denboraldia agurtzeko. Domekan erretratuan azaltzen den koadrila (42 lagun guztira) animatu ziren Barazar eta Zeanuri banatzen dituzten kilometroak oinez egiteko –Arrabatik igarota–. Goiz freskoa izan zuten, baina mendian ibiltzeko giro ona. Hala, lau ordu eta erdi behar izan zituzten mendi zeharkaldia egiteko, eta ondoren, Barazarrera itzuli ziren bazkaltzera.

Baba-jana eginda agurtu zuten denboraldia; otsailean etorriko dira irteerak bueltan.



**BIZKAIAN** Pol-Polekoak Barazartik Zeanurira bidean, domekan, urteko azken irteeran. POL-POL

GOIENKARIAren PUBLIZITATE GEHIGARRIA

# Etxebizitzak

Egubakoitza / 2007ko azaroaren 23a / **Arduraduna:** Monika Belastegi / **Maketazioa:** Oxel Arrieta / **Publizitatea:** Mireia Larrañaga



EGITEN DIHARDUTEN ETA EGINGO DITUZTEN ETXEAK
•
BIZIGUNE PROGRAMA
•
TRUKE PROGRAMA
•
ETXEBIDE
•
ELKARRIZKETA: JOXE MARI ALTUBE
•
BIGARREN ESKUKO ETXEAK

ARGAZKILARIA OXEL ARRIETA

edertu

masterreka 9-11 Tel.: 943 76 58 79

barrenkale 23 Tel. /faxa: 943 76 29 65

BERGARA



MIKEL LASA, ASEGURU ARTEKARITZA

# “Etxebizitza ondo aseguratuta izateko gakoak eskura jartzen dizkizugu”

**Gaur egun, etxebizitza asegurua beharrezkoa dela ez du inork zalantzan jartzen. Dena den, asegurua kontratatu aurretik, hainbat faktore garrantzitsu kontuan hartu behar dira, baldin eta ezbeharren aurrean aseguruaren erabateko eraginkortasuna lortu nahi bada, ondasunei zein balio eman behar zaien jakin nahi badugu, eta abar.**

Etxebizitza asegurua modu egokian eta bezeroaren beharretara egiteko, hainbat dira argitu behar diren zalantzak. Horiek denak argitzen laguntzen dizu Mikel Lasa aseguru-artekaritzak Axaren Hogar Seguro sortaren bitartez, egungo merkatu aseguratzailean dagoen eskaintzarik onenetarikoa baita. Etxebizitza aseguru honen arrakasta bezeroen ikuspegia kontuan hartuta egina izatean datza, uneoro aseguruaren garapenean eta sortzean parte hartuz euren iritzi eta iradokizunekin. Prozesu honek emaitza ezin hobeak ematen ditu, konfiantzan eta hurbiltasunean oinarritutako prozesua da-eta. Ezaugarri horrek, gainera, aseguru polizak era errazean eta argian idatzita egotea ziurtatzen du.

Era berean, Axaren Hogar Seguro sortak aspektu guztiak hartzen ditu kontuan, etxebizitza mota bakoitzari egokitutako garantiarekin, bezeroak bere beharretara egokitutako asegurua aukeratzeko modua izan dezan. Urak, kristalek eta fenomeno atmosferikoek egindako kalteak dira estaldurarik ohikoenak. Eta sorpresak saihesteko, Axak berme zehatzak eskaintzen ditu, hala nola, Arrisku Oro Arte, Arrisku Oro Akzidentala, Zuhaitz eta Zuhaixkei kalteak edo Babes Juridikoa. Ildo beretik, Axak eskaintzen duen Lapurreta bermeak, esaterako, ondoko egoerak hartzen ditu bere baitan: ekintza bandalikoak, etxeko eta lorategiko altzariak, altzari profesionalak eta aseguratuta dauden bitxiak. Era berean, kalean gerta daitekeen diruaren, jantzien eta bestelako objektu pertsonalen lapurreta, kreditu txartelak bidegabe erabiltzea, eta giltzen eta sarrailen ordezkatzea edo galtzea hartzen ditu kontuan, etxebizitzan modu errazean sartzea saihesteko eta zuhurtziaz jokatzeko.

Axa Etxebizitza Asegurua kontratatzerakoan bezeroak lor ditzakeen beste abantaila batzuk familiarentzat eta etxebizitzarentzat eskaintzen diren doako urgentziazko zerbitzu ugariak dira. Izan ere, bezeroek etxebizitzaren zaintza eta babesa izango dute baldin eta, ezbeharren bat dela eta, etxebizitza babesik gabe gelditzen bada: urgentziazko iturgintza zerbitzua, instalakuntza finkoen apurketaren ondorioz sortutako kalteak konpontzeko; urgentziazko kristaleria, kanpoko itxiduran kristalen bat puskatzen bada eta etxebizitza fenomeno atmosferikoen aurrean babesik gabe gelditzen den kasuetarako; urgentziazko elektrizitatea, argindarra martxan jartzeko; eta urgentziazko sarrailagintza. Ildo beretik, polizaren titularra edo bikotea ezbehar bategatik mugitu ezinda geldit判uko balitz, etxeko lanetarako laguntzailea izango lukete. Gainera, errezeta duten botikak bidaliko zaizkie etxera.

Axaren Hogar Segurok eskaintzen dituen bestelako doako zerbitzuak hauexek dira: edozein hobekuntza edo erreforma egiteko profesionalak bidaltzea (Axak bere gain hartzen ditu desplazamendu eta aurrekontu gastuak) eta lorezaintzari eta igerilekuaren mantenuari buruzko zalantzak argitzen dituen informazio zerbitzua. Telefono dei baten bitartez lorategiko landareen egoeraz galde dezakegu, izurrien aurrean zer egin, landareak ereiteko garaiaz edo zuhaitz eta zuhaixken inausketaz, igerilekuko uraren tratamenduaz, zein produktu kimiko erabili behar diren, erabileraren maiztasuna... Zerbitzu honetako telefono zenbakia ezbeharretarako edo bezeroari zuzendutako arreta zenbaki bera da. Zerbitzu hau urteko 365 egunetan eta 24 orduz egoten da martxan, aseguruari errentagarritasun handiena ateratzeko asmoz. Dei bakar batekin, Axaren Bezeroarentzako Arreta-zerbitzuak konpontzailerik eraginkorrenak bidaliko dizkizu, ur ihesek edota kristal apurketek sortzen dituzten egoera ezatseginak berehala konponduz.

Axaren Hogar Seguro gamak edozein etxebizitzatako beharrak asetzeko prestakuntza osoa dauka: etxebizitza tradizionalak, txalet atxikiak, independenteak, apartamentuak. Azken hauentzat, bereziki, produktu zehatza eskaintzen du: Hogar Seguro Tisket. Formula erraza eta ekonomikoa da, eta bere prezioa benetan lehiakorra da. Horretaz jabetzeko, ikusi ondoko adibidea:



***90 metro koadro izango dituen etxebizitza berri baten inguruko adibidea:***
***- Kontinentea: 63.000 €***
***- Altzariak: 20.000 €***
***- Bitxiak: 1.200 €***
***- Prima osoa: 112,86 € urtean.***

% 25erainoko deskontua

Prezio paregabea eskaintzeaz gain, aseguruaren estaldura ere halakoa da. Izan ere, urak, suak, leherketek, fenomeno atmosferikoek, kristalen apurketak, edo lapurretek egindako kalteen %100 estaltzen du.

Interesgarria da kontuan izatea, prezioaz gain, kontratazio erraza eskaintzen duela eta aseguruaren polizari dagokion dokumentazio guztia momentuan jasotzen duela bezeroak. Zentzu horretan, oso egokia da hipoteka-kredituak dituzten pertsonentzat.

***“Aseguru mota honek bezeroak bere beharretara egokitutako asegurua egiteko aukera guztiak ematen ditu”***



■ ERAIKITZEN ARI DIREN ETA ERAIKIKO DITUZTEN ETXEAK

# Etxe berriak Debagoienean

## Arrasate

**AGERRE KALEA**
- 82 etxebizitza aurreikusita ditu Plan Orokorrak
- 46 familiabakarrak
- 36 libreak

**AKISOALDE**
**Garagartza**
- 96 etxebizitza egiteko asmoa dago
- 38 libre eta gainontzeko 58ak babes ofizialekoak

**ATXABALPE**
- 224 etxebizitza egiteko asmoa dago
- Erdiak libreak; besteak, finkatutako preziodunak

**AZERI**
**Polmetasa lantegia dagoen lekuan**
- 220 etxebizitza aurreikusita
- 154 libre, 66 babes ofizialekoak

**ELEXGARAI**
**Aita Menni ospitale alboan**
- 16 etxebizitza libre aurreikusita

**GARAIA**
- 6 etxebizitza egiten ari dira

**GESALIBAR**
- 25 etxebizitza libre aurreikusita

**LEGARRE**
- 76 etxebizitza libre egiteko asmoa

**MAALAKO ERRABALA (okindegia dagoen lekuan)**
- 30 etxebizitza libre egiten ari dira

**MAALAKO ERRABALA (31. zenbakia)**
- 8 etxebizitza libre egiteko asmoa dago

**MAALAKO ERRABALA (4. zenbakia)**
- Etxebizitzak egitea aurreikusita dago, baina oraindik zehaztu gabe dago zenbat eraikiko diren

**URIBARRI**
- 180 etxebizitza.
- 84 egiten hasi dira. Horietatik, 44 babes ofizialekoak dira

**URUBURU**
**Uribarriko elizaren alboan**
- 74 etxebizitza aurreikusita

**ZALDIBAR**
- 18 etxebizitza eraikitzea aurreikusita

**ZABALGUNEA**
- 418 etxebizitza.
- 125 babes ofizialekoak
- Eraikitzen ari dira

**ZERRAJERA**
- 672 etxebizitza
- 200 aurki emango dituzte, babes ofizialekoak.
- 148 alokairuzko etxebizitza eraikitzen hasi dira. 35 urte beherakoendako eta pertsona nagusiendako dira.
- Eusko Jaurlaritzak lurzoru bat du, babes ofizialeko 108 etxe egiteko
- Udalak beste lurzoru bat du, babes ofizialeko 216 etxebizitza eraikitzeko

## Bergara

**MARTOKO KALEA**
- 14 etxebizitza
- Guztiak libreak dira.
- Lanak hasita daude.

**MASTERREKA**
- 14 etxebizitza
- Libreak dira.
- Eraikitzen hasi dira.

**BIDEGURUTZETA**
- 7 etxebizitza
- Libreak dira.
- Lanak hasita daude.

**LEIZARIAKO SAN LORENTZO**
- 90 etxebizitza.
- Guztiak libreak dira.
- Lehenengo 18 etxeak eraikitzen hasi dira dagoeneko.

**URTEAGA**
- 82 etxebizitza
- Babes ofizialeko 22 eta gainontzeko 60 libreak izango dira.
- Egiten hasi dira.

**SAN ANTONIO**
**Algodonera lantegia egon zen lekuan**
- Hainbat etxebizitza, laster hastekoak
- 24 babes ofizialekoak
- Gainerakoak libreak

**SAN ANTONIO**
**Kamineruaren etxea egon zen lekuan**
- 38 etxebizitza
- Aldundiak finkatutako preziodunak dira.
- Eraikitzen hasi dira

## Eskoriatza

**INTXAURTXUETA**
- 48 etxebizitza libre. Azken fasean daude

**SANTA MARINA**
- 145 etxebizitza
- 32 finkatutako preziodunak eta 16 libre egiten ari dira dagoeneko. Gainontzekoak zehazteke daude

**ELORRETA**
**Bolibarrera bidean**
- 50 txalet egingo dira guztira; eraikitzen ari dira

**KUATRUENA**
- 28 elkarri atxikitako etxebizitza. Emateko moduan daude
- Bifamiliakoak egiteko baimena eskatu dute

## Aretxabaleta

**DEBA IBAIAREN BESTE ALDEAN**
- 428 etxebizitza 4 urtean egiteko. Eraikitzen hasi dira dagoeneko. 2008 bukaeran %40 emango da. 2010. urterako guztiak banatzea aurreikusita dago.
- 100 babes ofizialekoak.
- 230 Udalak finkatutako preziodunak; zozketa eginda dago.
- 80 duplex. Libreak.
- 18 familiabakarrak edo bifamiliakoak. Libreak dira horiek ere

**CERRAJERA VALLE LENIZ**
**lantegi alboan**
- 160 etxebizitza libre
- Eraikitzen ari dira dagoeneko. Datorren urte bukaeran ematea aurreikusita dago.

## Oñati

**UGARKALDE**
- 304 etxebizitza
- Horietatik, 195 babes ofizialekoak. 75 berehala emango dituzte, 80 eraikitzen ari dira eta gainontzeko 40ak ez dira oraindik egiten hasi
- 19 finkatutako preziodunak. Eraikitzen ari dira
- 30 bifamiliakoak egiteke
- 60 libreak izango dira. Eraikitzen ari dira dagoeneko

**SAN MARTIN**
- 257 etxebizitza
- 151 babes ofizialekoak.
- 151 horietatik, 45 etxebizitzak lizentzia emanda dute eta datorren urtean hasiko dira eraikitzen.
- 11 finkatutako preziodunak. Oraindik egiteke daude
- 95 libre egiteke

**KASABLANKA**
- 120 etxebizitza
- 24 babes ofizialekoak. Lanak noiz hasiko diren zehazteke dago
- 96 finkatutako preziodunak. 32 lizentziarekin.

## Antzuola

**EGUZKI AUZOA**
- Udal promozioko 20 etxebizitza. Udalak finkatutako preziodunak dira hor doazenak.
- Eraikitzen hasi dira. Datorren urtean banatuko dituzte.

**SAILABENTEN**
- 8 etxebizitza atxikiak.
- Datorren urtean ematea aurreikusita dago.

**BUZTINZURI**
- 9 etxebizitza birgaituko dituzte. Libreak izango dira.
- Lanak hasita daude eta 2008an emango dituzte

## Aramaio

**PEDRO INAZIO BARRUTIA**
- 44 etxebizitza
- Babes ofizialekoak izango dira guztiak. Eraikitzen hasi dira dagoeneko eta datorren urtean banatuko dituzte.

**KALE BERRIA**
- 11 etxebizitza
- Elkarri atxikiak
- Libreak izango dira guztiak
- Lanak oso aurreratuta daude. 2008an emango dituzte

## Elgeta

**TORREALDEA**
- 76 etxebizitza
- 20 babes ofizialekoak: 2008 hasieran banatuko dituzte
- 56 libre: 16 etxebizitzako bigarren blokea datorren urtean banatuko dute. Udalan ez dakite oraindik 24 etxebizitza dituen hirugarren blokea eraikitzen noiz hasiko diren

**URIBURU**
- 66 etxebizitza. Datorren urtean emango dira guztiak.
- 10 familiabakarrak
- 20 bifamiliakoak
- 18 elkarri atxikiak
- 18 finkatutako preziodunak

## Leintz Gatzaga

- Egun ez da promoziorik eraikitzen udalerri horretan eta datorren urtean ez dute etxebizitza berririk eraikiko.

ITURRIA: DEBAGOIENEKO UDALETXEAK

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

■ BIZIGUNE PROGRAMA

# Bizigune sozietate publiko bihurtu da

ARANTZAZU EZKIBEL

**Hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeko programaren marka berria aurkeztu du Jabier Madrazok, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak; oraingo egoera berrian, sozietatearen 100% publikoa izango da. Etxebizitzak erakartzeko kanpainaren bigarren fasea hilaren 5ean hasi zen.**

Bizigunek marka berria aurkeztu du: orain arte, Vivesa izeneko Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza babestuaren sozietatearen menpeko programa izan da. Baina hemendik aurrera enpresa guztiz publikoa izango da.

**HELBURUAK, ARGIAK**

Biziguneren helburuak hauek dira: batetik, Bizigune programaren iraunkortasuna eta iraupena bermatzea; eta bestetik, etxe hutsak Eusko Jaurlaritzaren esku jartzen dituzten pertsonei egonkortasuna bermatzea. Aldaketa horrekin, berme are handiagoak eman gura dizkiete etxeen jabeei. Modu horretan, Biziguneren sendotasuna ziurtatu gura dute; izan ere, helburu soziala eta ingurumenekoa duen ekimena da Bizigune programa.

**Aldaketa horrekin, berme are handiagoak eman gura dizkiete etxeen jabeei**

**Helburu soziala eta ingurumenekoa duen ekimena da Bizigune programa**

**ALOKAIRU SOZIALA**

Bizigune programaren bidez alokairu soziala sustatu gura dute; etxebizitza libreak eskuratzeko dauden zailtasunak ikusita, alokairua bide alternatiboa izan daitekeela uste du Etxebizitza eta Gizarte Sailak.

**Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera 26.700 etxebizitza huts daude EAEn**

**Jabeen eta maizterren %90 gustura daude Bizigune programarekin**

Hutsik dauden etxebizitzak erakartzeko bigarren fasea azaroaren 5ean hasi zen.

**26.700 ETXEBIZITZA KUDEAGARRI**

Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, 26.700 etxebizitza huts daude EAEn kudeagarri. Etxebizitza bat kudeagarri izateko bete beharrekoak hauek dira: etxebizitza urtebetetik gora hutsik egotea, bigarren bizileku modura ez erabiltzea eta ez egotea merkatuan alokagai.

Etxebizitza huts horietatik, Bizigunek, orain arte, 3.717 etxebizitza erakarri ditu. Bizigunen izena eman ondoren, etxebizitza egoera onean dagoela ziurtatzen da. Gero, Etxebiden izena eman duen eta Biziguneren bidez alokairu sozialeko etxebizitzaren bat eskatzen duen pertsona bati esleitzen zaio etxebizitza. Jaurlaritzak gaur egun dituen datuen arabera, jabeen eta maizterren %90ek gomendatuko liokete Bizigune ezagunen bati.


Bergaran (irudian) 17 etxebizitza daude Bizigunen.



# Ibarrean zazpi udalerrik sinatu dute hitzarmena Bizigunerekin


OXEL ARRIETA

A.E.

**Euskadiko udalerriek hitzarmenak sinatu dituzte Bizigunerekin, udal horietako etxebizitza hutsak mobilizatzeko ekintza zuzenak ezartzeko. Hitzarmena sinatu duten 25 udalerrien artea daude Arrasate, Eskoriatza, Bergara, Aretxabaleta, Antzuola, Oñati eta Elgeta.**

Bizigunerekin hitzarmena sinatu duten 25 udalerrietatik zazpi gure ibarrekoak dira. Udalerri kopuruari begiratuta, Debagoienean eskaintza zabala dagoela esan daiteke; baina udalerri bakoitzean zenbat etxek eman dute izena Bizigune programan?

**ARRASATE, LEHENA**

Arrasatek 2004. urtean sinatu zuen hitzarmena Bizigunerekin. Ordutik hona 37 etxe jaberen espedienteak tramitatu dituzte Arrasateko udaletxean eta 83 esleipen tramitatu dituzte.

Gaur egun, 32 etxebizitza daude Bizigune programan eta beste bost etxebizitza tramitatzen ari dira. Bestalde, Arrasaten 609 pertsonak eman dute izena etxebizitza errentan hartzeko; pertsona horiek Arrasaten erroldatuta egon eta eskaera Etxebiden egin dutenak dira.

Ibarreko beste udalerrietan, Mankomunitatearen bitartez egiten dira esleipenak. Gaur egun, Eskoriatzan bost etxebizitza daude programan, Bergaran 17 etxebizitza, Aretxabaletan bost etxebizitza, Oñatin lau etxebizitza, Elgetan beste lau eta Antzuolan ez dago etxerik Bizigunen.

Mankomunitatean tramitea egin duten etxeen datuak dira horiek, baina baliteke beste etxe jabe batzuek Etxebideko egoitzan, Donostian, egin izana Bizigunen sartzeko tramitea.

**Arrasaten, 2004. urteaz geroztik 83 etxebizitza esleipen tramitatu dituzte**

**Arrasate ez den beste udalerrietan Mankomunitatean egin behar dira tramiteak**


Mankomunitateak Arrasaten duen bulego zerbitzua. OXEL ARRIETA


## Gal ezazu ordubete eta egun guztia pasako duzu bere bila.
Richard Wathely



Minutu bat bera ere galdu gabe, gaur egungo sukalde berritzaileenak zure etxeko beharretara egokituta aurkitu nahi badituzu. **Zatoz Bastida Sukaldeak-era.**

Hitzordua eskatzeko aukera eskeintzen dizugu, denbora aurrez dezazun. **8:45etik - 20:30era arteko ordutegi jarraia** benetan axola zaizkizun gauzetarako denbora izan dezazun.

Hitzorduetarako tfnoak.:
azpeitia 943 150 510
zarautz 943 894 999
bergara 943 767 058

bastidasukaldeak

www.bastidasukaldeak.com

■ SURADESA

# Etxean lanak egiteko laguntzak

GOIENKARIA

**Debagoieneko Birgaitze Elkartearen (Suradesa) egitekoa da etxean obrak egiteagatik jaso daitezkeen dirulaguntzak kudeatzea, besteak beste. Baina zein lanengatik jaso daitezke laguntzak? Non eskatu behar dira? Horri guztiorri erantzuteko herriz herriko arreta zerbitzua du elkarteak.**

Suradesak, Debagoieneko Birgaitze Elkarteak, etxean obrak egiteagatik jaso daitezkeen dirulaguntzak gestionatzen ditu. Esandako laguntzak etxebizitza barruko lanengatik eta jabekideen komunitateek egiten dituzten obrengatik jaso daitezke.

Suradesak azaldu duenez, onura fiskalak edo laguntza zuzenak izan daitezke horiek. Itzuli beharrik gabeko laguntzak eta baldintza onuragarrietan ezarritako maileguak kudeatzen ditu, besteak beste.

**ESKAERA, LANAK HASI AURRETIK**

Garrantzitsua da kontuan izatea, eta hala gogorarazi dute Suradesatik, laguntzak eskatu behar direla lanak hasi baino lehenago. Hala, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Ordezkaritzan eskaera egin behar dute interesatuek, Suradesako bulegoetan jaso daitekeen den instantzia baten bitartez.

Ibarreko udalen eta Jaurlaritzaren bidez lor daitezke esandako laguntzak. Udalek onartutakoak ordenantza munizipaletan ezarritakoaren araberakoak dira. Jaurlaritzarenak eskatzeko, ondare urbanizatu eta eraikinak birgaitzeko jarduerei buruzko 317/2002 Dekretua hartu behar da kontuan.

**Etxe barruko zein jabekideen komunitateen lanengatik jaso daitezke laguntzak**

**Suradesa birgaitze elkarteak herriz herriko arreta zerbitzua eskaintzen du**



Irudian Bergarako etxebizitza bateko lanak. GOIENKARIA

## Herriz herriko arreta zerbitzua

ARRASATE
Suradesako bulegora joan daitezke interesatuak: Arrasate pasealekua 5, behea.
Astelehenetik egubakoitzera emango dute zerbitzu hori Suradesako bulegoan (eguaztenetan izan ezik), 07:30-14:00 ordutegian.

BERGARA
Udaletxean, eguazten goizetan, 09:30-13:00 ordutegian.

OÑATI
Udaletxean, martitzen goizetan, 09:45-13:00 ordutegian.

ARETXABALETA
Udaletxean, eguen goizetan, 12:00-13:00 ordutegian.

ESKORIATZA
Udaletxean, eguazten goizetan, 12:00-13:30 ordutegian.

ANTZUOLA
Udaletxean, astelehen goizetan, 10:30.11:30 ordutegian.

ELGETA
Udaletxean, astelehenetan, 09:00-10:00 ordutegian.

LEINTZ GATZAGA
Aldez aurretik txanda eskatu beharra dago, udaletxean.




OMEGA
Omega Elevator, s.a.
Megalift Gearless igogailu elektrikoak, makina gelarik gabe.
•
Igogailu hidraulikoak
Igogailuak auzo-komunitateetan jartzea
•
Igogailuen berritzea
Tel.: 945 29 03 08
www.omegaelevator.com
Vitoria-Gasteiz

Artaio S.Coop. Etxebizitzen Kooperatiba




20 txalet atxiki
Banan-banako lorategia eta berdegune komunitarioa igerilekua eta guzti

Arrasate
INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK, S.A.
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

943 79 20 48
943 77 14 11
Arrasate: Iturriotz, 11

www.inmoarrasate.com








iKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
BAINUAK: ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR

■ TRUKE PROGRAMA

# Etxebizitza babestuak elkartrukatzeko poltsa dago

EDU MENDIBIL

**Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak aitzindaria den programa jarri du abian: babes ofizialeko etxebizitzaren bat dutenek beste BOE baten jabea den pertsona batekin etxea elkartrukatzeko aukera daukate, eta egungo egoerara egokitzen den etxea eskuratu. Ekimenak harrera bikaina izan du.**

Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak emandako datuen arabera, ehun pertsona baino gehiago euren etxebizitza beharretara egokitu ahal izan dira babes ofizialeko etxebizitzak elkartrukatuz.

Arrazoiak askotarikoak izan daitezke: lanez aldatu eta beste herri batera bizitzera joan direnak; azken urteotan familia handitu duten bikoteak edo kontrako kasuak: hiru logelako etxebizitza eskuratu eta espazioa soberan dutenak orain... Elkartrukatzearen poltsak hauxe eskaintzen du: eskaerak eta eskaintzak bat egiten dutenean etxebizitzen jabeak harremanetan jarri, egungo egoerara hobeto egokitzen den etxea eskuratu ahal izateko. Merkatu librera joan beharrik ez dago. Elkartrukatzearen poltsa oso zabala da dagoeneko, altan emandako 750 iragarki inguru-rekin. Hilero, batez beste, 25 alta berri jasotzen dituzte Etxebide-ko webgunean. Arrakastaren lekuko beste datu bat: 2.750 bisita inguru jasotzen dituzte hilero.

**Ehun pertsona inguruk elkartrukatu dute babes ofizialeko etxea dagoeneko**

Esan bezala, Espainiako Estatuan aitzindaria den tresna hori orain dela bi urte jarri zuten martxan. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko ordezkariak pozik daude jasotako erantzunarekin.

### BIDE ERRAZA INTERNETEN

Jaurlaritzako arduradunek azpimarratzen dutenez, alta eskaera egitea oso erraza da. Nahikoa da eskabide bat betetzea, elkartrukatu nahi den etxebizitzari buruzko ahalik zehaztasun gehien emanda. Aldi berean, trukean eskuratu nahi duen etxebizitzak bete beharko lituzkeen baldintzak ere zehaztu behar ditu eskatzaileak. Baldintza bakarra, hauxe: babes ofizialeko etxebizitzatzat kalifikatua izan den etxebizitza baten jabe izatea.

Interesatuek Interneteko helbide honetara jo dezakete: *http://www.etxebide.info/html/etx/intro_c.htm*.



Familia handitu duten bikoteek jo dezakete truke programara. GOIENKARIA












## HONDARTZA ORIO Bizitegi Gunea

30 BANAKAKO ETXEBIZITZA

Lehen mailako materialak. Terraza-solariumak
Igogailua, txokoa eta garaje bikoitza
Orioko hondartza eta Kirol Portuaren ondoan
A-8 Autobidetik sarbide zuzena. Donostiatik 10 minutura eta Zarauztik 5era

Grupo LAZKANO Taldea

CONSTRUCCION ANTZIBAR ERAIKUNTZA

Informazioa
943 81 24 62

Landeta Auzoa z/g. 176 Postakutxa - 20730 Azpeitia (Gipuzkoa) - Tel.: +34 943 812462 - Fax: +34 943 816619
www.antzibar.com



■ ELKARRIZKETA: JOSE MARI ALTUBE / OÑATIKO MAPFRE ASEGURU ETXEKOA

# "Etxe asegurua beharrezkoa da, baina ez derrigorrezkoa"



Jose Mari Altube, Oñatiko buelgoan. MIREIA BIKUÑA

MIREIA BIKUÑA

**Gaur egun etxe bat erosteko hipoteka-kreditua eskatzen dugunean, banketxeak edo aurrezki kutxak etxerako asegurua egiteko beharraz hitz egiten digu. Hala eta guztiz ere, eta asegurua gure mesederako baldin bada ere, hura egitea beharrezko ez dela azaldu digu Oñatiko Mapfre aseguru etxeko arduradun Jose Mari Altubek.**

**Etxeko asegurua egitea beharrezkoa al da?**

Ez da derrigorrez egin beharreko asegurua, baina oso gomendagarria da. Edozelan ere, banketxe edo aurrezki kutxa batean aseguru-kreditua eskatzen dugunean, haiek asegurua egitera behartzen gaituzte. Hori bai, asegurua ez da kreditua eman digun entitatearekin egin behar: guk aukera dezakegu norekin egin asegurua. Horrekin lotuta, gaur egun bi aseguru bakarrik dira beharrezkoak: autoarena eta ehizan egitekoa, hain zuzen ere.

**Aseguru-kreditua eskatzerakoan bizi-asegurua egitera behartzen gaituzte. Gomendagarriak dira halako kredituak?**

Bizi asegurua ez da derrigorrezkoa, baina guk gomendatu egiten dugu; batez ere, seme-alaba gazteak dituzten bikoteen kasuan. Askok, kreditua ordaintzen bukatzen dutenean, bizi aseguruan baja ematen dute. Gure ustez, kredituarekin bukatu ondoren ere bizi aseguruarekin jarraitzea gomendagarria da.

**Aseguruak egiten dituenak zein onura ditu? Eta ze arazo izan ditzake?**

Aseguruak ematen duen onura nagusia lasaitasuna da, gure gauzak babestuta daudela dakiguta. Hala ere, arazoak sortzen dira bakoitzak duen asegurua egokiena ez denean edo aseguru-polizak etxean izan dugun ezbeharra estaltzen ez duenean: teilatua edo hoditeriak aldatzea, adibidez.

**Ze motatako aseguruak eskaintzen dituzue?**

Orokorrean etxerako aseguruetan aukera zabala dago. Oinarrizko aseguruak daude, aseguru osoak eta edozein ezbehar estaltzen dituzten aseguruak ere bai. Hala, aseguru aukera zabala dago, bezeroak dituen beharretara hobeto egokitzeko; hortaz, hura da azken aukera egiten duena. Edozelan ere, egun, oso garrantzitsua da erantzukizun zibila egitea. Gure bezeroei aholkatzen diegun gauza bat da.

**Uholde edo haize-boladen erruz izaten diren ezbeharrak aseguruak estaltzen ditu?**

**"Behar guztiak estaltzeko askotariko aseguruak eskaintzen ditugu"**

Zuk esandako moduko egoerak ematen direnean, uholdeak, haizete handiak... eta kaltetu asko dagoenean, Aseguru Kontsorzioa da kargu hartzen duena. Hura arduratzen da halako egoerak eragindako kalteez.

**"Asegurua konfiantzazko aseguru-etxearekin egin behar da"**

**Amaitzeko, ze aholku emango zenioke asegurua egin nahi duen pertsonari?**

Oso garrantzitsua da asegurua konfiantzazko aseguru-etxearekin egitea, etxetik gertu dugun entitatearekin egitea.

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Energia fotovoltaikoa
Energia termikoa
Geotermikoa
ALET
ALET TALDEA S.L.
Amillaga 10, 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
620561316 / 669366953 • Faxa: 943762052
e.maila: info@alet-taldea.com • www.alet-taldea.com
Erregistro industriala: 20/28318 • INSTAGIren sozietate elkartua

# BERGARAKO URTEAGA AUZOAN

## 247 Etxebizitzako Auzo Berri baten
## 1, 2 eta 3 Logelako Etxebizitzak









# BERGARAKO SAN JUAN AUZOAN

## Azalera Ezberdineko Pabiloiak
## Salmentan edo Alokairuan



Informazioa eta Salmenta: **943 76 27 58** ARTZAMENDI. Burdiñate 6 Behea, Bergara

■ BIGARREN ESKUKO ETXEAK SALGAI

# Bigarren eskuko etxeak garestiegi

JASONE ZABALA

**Debagoienean dauden bigarren eskuko etxeen kopurua nahiko handia da. Lehen eskuko etxeen prezioek gora egin dute nabarmen eta bigarren eskukoak saltzea ez da batere erraza gaur egun, horietako askoren prezioak etxe berrienak baino garestiagoak direlako.**

Debagoieneko herrietan etxe asko daude saltzeko, bai lehen eskukoak zein bigarrenekoak.

Arazoa bera da herri guztietan: bigarren eskuko etxe asko daude saltzeko eta lehenengo eskukoen edo berrien prezioa oso handia da, nahiz eta saldu saltzen diren.

Duela 6 urte inguru, bankuetako interes-tasak ziren etxea ezin ordaintzearen errudunak, baina aspalditik interes-tasak %4,5ean daude eta hori ez litzateke arazoa izan beharko etxeak saltzeko orduan. Kontsultatu ditugun etxe agentzien arabera,

**Debagoienean bigarren eskuko etxe asko daude salgai, 50 bat herri bakoitzeko**

**Aurreikuspenek diotenaren arabera, prezioek behera egingo dute**



Debagoienean bigarren mailako etxe asko daude salgai; Bergaran eta Arrasaten, esaterako, 50 inguru. OXEL ARRIETA

arazoa beste bat da; izan ere, guztiaren funtsa jendearen beharrean dago. Etxe baten jabeak bere etxea saldu nahi du berri bat erosteko, eta berriaren prezioa oso handia da, metro karratuaren prezioa handia delako. Horregatik, bigarren eskukoa prezio handian saldu nahi du jabeak, normalean etxe agentziak tasatutako prezioaren, prezio errealaren, gainetik beti; eta noski, gutxi dira prezio horretan erosiko dutenak. Horren ondorioz, bigarren eskuko etxe asko saldu ezinik daude. Debagoieneko hainbat etxe agentziari galdetu diegu, eta hauxe esan dezakegu bigarren eskuko etxeen inguruan:

Arrasaten, Debagoieneko herri handiena izanda, bigarren eskuko 50 etxe inguru daude, eta batez besteko prezioa, metro karratuen arabera, 216.000 euro eta 270.000 euro bitartean dago. Bergaran, aldiz, Arrasate baino herri txikiagoa izanik, bigarren eskuko 51 etxe daude salmentan eta Arrasatekoen antzerako prezioa dute, batez beste 270.000 euro, eta prezio horretatik gorakoak ere asko daude. Herri txikiagoetan, Aretxabaletan esaterako, aurreko bi herriak baino txikiagoa izanik, bigarren eskuko 16 etxe daude saltzeko, guk kontsultatutakoaren arabera, eta batez besteko prezioa 43 milioitan dago. Bestalde, normalena da –etxe agentzietako arduradunek hala

(14. orrialdean jarraitzen du)



ADOSATUAK SALGAI ELGETAN
BEREHALA EMATEKOAK
353.000 €-tik aurrera
3 eta 4 gelako 110 m²-ko etxebizitzak
160 m²-ko partzelekin
bi autorendako 30 m²-ko garajearekin
Informazioa: 943 76 72 64


maialen lizarralde
interiorismoa
www.mlinteriorismoa.com
proiektuak
erreformak
gremioen koordinazioa
barne arkitektura
interiorismoa
dekorazioa

Kruz Gallastegi 9 20570 Bergara • Tel/Faxa: 943 53 21 17 • Poltsikokoa: 688 627 351 • ml@mlinteriorismoa.com

# "Proiektu bakoitza sormen eta berrikuntza jardueratzat hartzen dugu"

## Zetabi arkitektura bulegoan bezeroarekiko gertutasuna eta zerbitzua bermatzen dugu

**-Zenbat pertsona zabiltzate lanean?**
Hasieran bi pertsona hasi ginen, Aitor Zubia Azkue oñatiarra eta Xabier Zabala Urriategi bergararra. Orain dela bi urte enpresari Zetabi Arkitektura Bulegoa izena jarri genion eta lankide berri bat hasi zen gurekin lanean; hura Uzuri Larrañaga Zubizarreta arrasatearra da. Dena dela, proiektu desberdinen arabera kolaboratzaile puntualak ditugu.

**-Nolatan hasi zineten elkarrekin lanean?**
Donostiako Arkitektura Eskolan ezagutu genuen elkar. Karrera amaierako proiektua 2002. urtean bukatu genuen eta orduan hasi ginen batera lanean. Hasieran Donostian geunden, baina 2005. urtetik Bergarako Labegaraietako industrialdean kokatu genuen bulegoa

**-Zein izan zen zuen lehen proiektua?**
Adunan famili bakarreko etxe bat izan zen, gaur egun gure bezero izaten jarraitzen duen eraikitzaile baten eskutik etorri zen lehen aukera; elkarlanak gainera erlazio profesional pertsonalera eraman du…

**-Zein lan esparru jorratzen dituzue?**
Arkitektura oso mundu zabala izan arren, bere esparru guztiak jorratzen digutu: proiektuen diseinua, eraikuntza, hirigintza eta lurralde antolamendua…

**-Zein proiektu daukazue eskuartean?**
Era guztietako proiektuekin gabiltza, tamaina txiki eta ertainekoez gain (famili bakarreko etxebizitzak, berrikuntzak, lokal komertzialak,…), proiektu handiagoen artean Zubillagan Zugaztui industriagunea, Legazpin elkarri atxikitako (adosatu) 28 etxebizitza eta Amezketan 66 etxebizitza eta auzo berriaren hirigintza antolamendua. Hala ere proiektu bakoitza (txiki zein handi) sormen eta berrikuntza jarduera berezitzat hartzen dugu.

**-Zein desberdintasun dago zuen lanean bezeroa enpresa handia izan edo partikularra izan?**
Helburua bera da bietan, kalitatezko zerbitzua ematea; komunikazioa eta elkarlana oinarrizkoak dira gure eguneroko lana aurrera eramateko. Beti ere bezeroaren beharretara egokituz, gertutasuna eta konfiantza eskainiz. Egin beharreko bidean dago desberdintasuna; partikularren kasuan, bezeroarentzako bere bizitzako proiektua denez ilusio hori barneratu eta paperean isladatzen ahalegintzen gara. Eraikitzaile eta sustatzaileei batez ere efizientzia eta azkartasuna eskaintzen diegu, baimen eta eskaeren onarpenek denbora luzea eraman ohi dutelako.

**-Eta etorkizunari begira?**
William Faulkner aipatuz, behar besteko amets handiak izatea gustatuko litzaiguke, hauek jarraitzen ditugun bitartean begi-bistatik ez galtzeko.

**-Zuen lanaren gauzarik onena eta txarrena?**
Onena, proiektuen dinamikotasuna,bezeroarekin zuzeneko harremana eta leku berri asko ezagutzen ditugula. Txarrena, berriz, burokrazia.

## "Bergarako Labegaraietako industrialdean dugu estudioa"





(12. orrialdetik dator)

baieztatu dute–, norbaitek etxea saldu nahi badu, saldu beharreko etxearen iragarkia herriko etxe agentzia batean ipintzen, errazago delako modu horretan etxea saltzea.

**PREZIO JAITSIERA**

Egoera horretatik hauxe ondoriozta dezakegu: orokorrean Debagoienean bigarren eskuko etxe asko daudela saltzeko. Etxe agentzietako arduradunen arabera, tasazio prezioek etengabeko igoera izan dute merkatuaren errealitateagatik –amaiezina zirudien eskariagatik– eta asko prezio erreala baino garestiago ari direlako saltzen. Azkenaldian, baina, eskaria asko jaitsi da, eta ikusi egin beharko da zer gertatzen den eskaintza eta eskariarekin hemendik aurrera.

## Hala eta guztiz ere etxeen salmenta ez da gelditu Debagoienean

## Batez beste, bigarren mailako etxe baten prezioa 260.000 eurokoa da orain



Etxebizitzen prezioak gora egin du nabarmen. OXEL ARRIETA

## ETXE AGENTZIETAKO ARDURADUNEN IRITZIA



**NEREA ARRESE**
**KOROSTI**
**(BERGARA)**

Orain arte, jendeak etxe berri bat erosteko, lehenagotik zuen etxearen prezioa igotzen zuen nabarnen tasatutakotik, baina jendeak erosi egiten zuen. Horrek guztiorrek gaina jo zuen eta salmentek orain behera egin dute. Prezio errealak hasi da ipintzen jendea, ikusten duelako bestela ez duela etxerik salduko, edota saltzeko asko jaitsi beharko duela prezioa. Nik uste dut jendeak kontzienteago ipintzen dituela prezioak orain.



**IÑIGO SAN MIGUEL**
**ARRIETA&SAN MIGUEL**
**(ARETXABALETA)**

Prezioen jaitsierak derrigorrez egon behar du bigarren mailako etxeetan; saldu nahi badira, behintzat. Nire ustez, epe motzean gertatuko da hori guztiori. Bigarren eskuko etxea saldu eta berria erosi nahi duenak prezio errealetara gehiago hurbildu behar du; tasazio prezioetara, alegia. Bestela, oso zaila izango du etxe hori saltzea. Hobe da justua eta egokia den prezioan saltzea, ez saltzea baino. Egoera normaldu egingo dela uste dut.



**OLATZ ZUBIA**
**ANBOTO**
**(ARRASATE)**

Etxeen salmenta gelditu egin da azkenaldian, prezioak ordainezinak direlako. Gutxika, baina bigarren eskuko etxeen prezioa jaisten doa. Modu horretan, uste dugu etxeen prezioa jaistean, gehiago salduko direla. Egoera ez da batere ona. Bigarren eskuko etxea saldu nahi dutenek, erositako etxea ordaindu ahal izateko, tasazio errealaren gainetik jartzen dute beraien etxea saltzen, eta modu horretan oso zaila da etxeak saldu ahal izatea.



**JESUS MARKAIDE**
**DEBA GARAIA**
**(ARRASATE)**

Geldi dago bigarren eskuko etxeen salmenta. Jendeak nahiago izaten du hasieran, behintzat, etxea errentan hartzea, prezioak oso garestiak direlako gaur egun. Gainera, 22 eta 30 urte bitarteko gazteentzat dirulaguntza bat ematen hasi da gobernua. Horrela, modu batean edo bestean etxe bat eduki dezakete gazteek. Gainera, bigarren eskuko etxea saldu nahi duenak argi dauka etxea saltzeko prezio errealetara hurbildu behar duela.

ESKORIATZAN SANTA MARINAN


Eraikitzailea construcciones Goitu eraikuntzak S.L.
Sustatzailea GRUPO GOITU
38 Etxebizitza, Trasteroak eta Garajeak
1. Fasea Hastekotan - Primerako Materialak
AENOR Empresa Registrada ER IQNet CERTIFIED MANAGEMENT SYSTEM

BIZIGUNE ETXEBIZITZA HUTSEN PROGRAMA

bizitzaz bete



hutsik duzun etxea

**Euskadin 75.000 pertsonak baino gehiagok aldarrikatzen dute etxebizitza duina izateko eskubidea dutela. Bestalde, 26.000 pisu daude hutsik.**

Pisu horietako baten jabea bazara, **Bizigune Etxebizitza Hutsen Programak alokatu eta honakoa bermatuko dizu:**

- 5 urteko alokairua.
- Alokairuaren kudeaketa.
- Errentariekin zerikusia duten kudeaketak.
- Mantentzea eta zaintzea.
- Obren finantzazioa.

ETXEBIZITZA HUTS BAT BADUZU,
EUSKO JAURLARITZAK ALOKATUKO DIZU

900 251 251 INFORMA ZAITEZ

aurrera doan herria
un país en marcha
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILAK
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES
bizigune

# Elorreta auzoa: zure etxea natura ingurune paregabean

**Sukibide SL enpresa sustatzailea Eskoriatzako Elorreta auzoko etxebizitzen eraikitze prozesuaren azken fasean dago. Donostian finkatutako enpresa sustatzaileak esperientzia luzeko lantaldea du eta urtez urte haztea eta kalitate handiagoko etxebizitzak egitea ahalbidetzen du.**

Elorreta auzoan eraikitzen ari diren sustapenaren lehen fase horretan, gehienak binaka adosatuak dira eta familia bakarreko bakanen bat ere badago.

Dudarik gabe, Eskoriatzako herriarenganako gertutasuna da auzo berri horren ezaugarri erakargarriena, San Juan kaleak zuzenean lotuko baitu auzoa Eskoriatzako erdigunearekin. Alde horretatik, aukera paregabea da Elorreta auzoa, gertutasunak eta erosotasunak bat egingo dute-eta naturarekin.

### GURE LURRA ZAIN DEZAGUN...

Ekainaren 30eko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 legeak ezarri duenez, lurzoru okupazioaren modua berrantolatu egin nahi izan da, etxe sakabanatuak eraikitzeko kultura murriztu nahian, hain zuzen ere. Guztiok dakigunez, lurra ondasun urria da eta denon helburua da hori kontuan izatea, baita Sukibide SL enpresarena ere. Beraz, Elorretako Bizigune moduko promozio berriak gutxi ikusi ahal izango ditugu aurrerantzean Euskadin..

### KALITATEA DA HELBURUA

Eskoriatzako sustapen horretan, enpresak bere filosofia aurrera eraman du. Lehen mailako kalitatezko materialen erabilera eta inguruarekin era egokian uztartuko den ingurunearen eraketa dira filosofia horren oinarriak, bertan bizi behar duten pertsonen ongizatea azken helburu nagusia izanik.





Helburu hori lortzeko kalitatearen aldeko apustu garbia egin da oraingo honetan ere. Fatxadetan, eguratsaren aurrean era egokienean erantzungo duten materialak erabili dira. Horretarako, eraikuntza sistema tradizionalak material berrienekin konbinatu dira, eta horrek etxebizitzen kanpo itxuran ere eragin nabarmena izango du.

Barnealdean ere erabiltzaileen erosotasuna eta bizi baldintza onenak bilatuko dira. Berokuntza eta telekomunikazio sistema onenez gainera, etxebizitza gestionatzeko domotika sistema zentrala instalatuta izango dute etxebizitza guztiek; bidegabeko sarreren kontrako detektagailuak, suteen kontrako zaintza eta ur nahiz gas ihesen detektagailua izango dira sistema horrek eskaintzen dituen aurrerapenetako batzuk.

Horrez gain, etxebizitzek aire girotuaren aurreinstalazioa eta etorkizunean tximinia instalatu ahal izateko aurreinstalazioa ere ezarrita izango dituzte, erabiltzaileak etxebizitza bere gustura jar dezan. Aurrerapen guztiak erabiltzaileen erosotasuna bilatzeko.

### BISITA EZAZU ETXE EREDUA

Ezaugarri horietako etxebizitza batean egoteko aukera paregabea. Nahi duenak bisita dezake obran eraikitako etxe pilotua. Horretarako, **Anboto etxe agentziarekin 943 79 20 48** edo **Marisol Muruarekin 666 53 95 39** harremanetan jarri beharko da hitzordua eskatzeko.

Etxe agentziak:

Arrasate
INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK, S.A.
INVERSIONES Y SERVICIOS, S.A.
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK
ASESORES INMOBILIARIOS
Tel.: 943 79 20 48

ops
Tel.: 943 77 15 66

sukia
Zure etxean zaude.
943 31 65 85
www.sukia.com

**bergararrak kanpoan**

**Ainhoa Alberdi** > Naturopatia ikasten ari da Berlinen bizi da

# "Ederki moldatu gara Berlineko bizimodura eta gustura gaude"

JASONE ZABALA > BERGARA

**Ainhoa Alberdi bergararra Berlinen bizi da. 2006ko martxoan heldu zen bertara Jon Jauregi bere mutilarekin. Txakurra ere eraman zuten. Ainhoak esanda bezala, "bizitza berri bat hasteko asmoz" joan ziren.**

Aurrez zazpi hilabete inguru egona zen Ainhoa Berlinen. Hiriburu interesgarria iruditu zitzaion eta bueltatzea erabaki zuen. Bertan, bi gauza egin nahi zituen Ainhoak. Alde batetik, alemana ikasi eta, bestetik, bere psikologiako ikasketak aberastu asmoz naturopatia ikasi. Bitartean Ainhoak, taberna baten egiten du lan dirua ateratzeko. Bere mutilak ez zuen arazorik izan sukaldari lana topatzeko, eta Ainhoak esan bezala, "hemen sukaldari euskaldunak ondo onartuak daude, eta Berlineko jatetxerik zaharreneann hasi zen lanean Jon. Orain bost izarreko hotel bateko sukaldari izateko deitu dute".

Ainhoaren arabera, bai kulturalki eta baita historikoki aberatsa da, modernoa eta kosmopolita; "Oraindik ere berreraikitzen dago, eta paisaiaren zati handi batean garabiak baino ez dira ikusten. Parkez eta lakuz beteriko hiriburua da, eta hiriburu bat izateko natura asko dagoela esan daiteke, eta noizean behin gainera azeriren bat kalean galduta ikustea ez da batere arraroa", dio Ainhoak.

**"Berlin hiri oso sofistikatua eta kosmopolita da, eta kulturalki eta historia oso aberatsa"**


Ainhoa Alberdi.

**KANPOTAR ASKO**

Kanpotar asko bizi da bertan, 185 naziotasun ezberdin, eta kanpotar gehienak turkiarrak dira. Jendea jatorra dela, eta beraiekin harremana ona dela aitortu digu Ainhoak.

Gastronomia aldetik, Euskal Herriarekin konparatuz, Berlinen ez dago kultura handirik, baina ohitura horiek badoaz aldatzen kanpotarren eraginagatik. Klimari dagokionez, Ainhoak esan digu neguak oso hotzak direla eta udak nahiko beroak.

Agur modura zera aipatu digu Ainhoak: "Berlinen oso pozik bizi gara, familia, lagunak eta Euskal Herriko giroa faltan botatzen ditugun arren, baina hasierako zailtasuna gainditu ondoren, oraindik ere denboraldi bat geratzeko intentzioa daukagu".

**argazki zaharra**

# Pol-Poleko mendizaleen irteera

1962ko apirilaren 1ean, duela 45 urte alegia, Pol-Pol mendizale elkartekoek irteera egin zuten Irutontorreta mendira. Bertan postontziaren inaugurazioa egin zuten. Tontorrera heldu ondoren bertan ateratako irudia da ondorengoa, txakur eta guzti gainera. Ezkerretik eskumara hasita hauek dira argazkian agertzen direnak: Ana Mª Otaño, Kontxi Irizar, Itziar Ibarra, eta mutikoa Valentin Irizar.

**Argazkia:** Itziar Ibarra.
**Testua:** Jasone Zabala
**Urtea:** 1962ko apirilak 1.



**bere ustez**


Unai Lopez

# Aspaldiko hautsak ezin astindu

Aste honetan *13 rosas* filma ikustea suertatu zait. Nahiz eta genero bereko hamaika luzemetrai aurkeztu zaizkigun, honako honek luzerako hondar garratza utzi dit barnealdean. Bertan istorio hunkigarri bezain goibela aurkitzen du ikusleak, Espainiako gerra amaitzean Madrilen fusilatutako hamahiru neskatoren azkeneko egunen kondaira gordina, alajaina. Beste garai batekoak izanik ere, badugu orduko erregimenaren faxismo zorrotz haren berri, besteak beste horrelako filmei esker.

**"Zorionez badirudi legedi berria dela-eta aurtengoa azken estanpa nostalgikoa izatea"**

Urtero hil honen amaieran ohikoa dugunez, aurtengoan ere ikusi ditugu Valle de los Caídos aldeko ekitaldi politiko anakroniko eta zaharkituak. Gezurra dirudi oraindik ere bietan temati jarraitzea. Zorionez badirudi legedi berria dela-eta aurtengoa azken estanpa nostalgikoa izatea.

Hala ere, edozein legediren hatz artetik ihes egiten dutenak azken aste hauetan Madrilen eta beste hiriburu batzuetan ildo beretik jazotako agerraldi eta gertakari polarizatuak dira, hauek bai kezkagarriak. Zer ikusiko? Gizarteak nora joko? Ultraeskuin, ultraezker, ultra aurrizkia duenik ez zaio gizarte honi komeni.

BERGARA Margoak
Certificado ISO 9001 por BVQi
Kalitatea eta zerbitzua.
Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

## Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
# giro!




































LANAK > DURANA KALEKO PASABIDEA

# Duranako pasabidea egiten hasiko dira urte berriarekin

Abendua bukatu baino lehen esleitu gura dituzte lanak

Pasabide garbi eta argia izango da, eta ez du ezkutuko gunerik izango

Gune komertzialari bultzada emango diolakoan daude



**DURANAKO LOKALA** Atea itxita duen garajetik egingo dute Errekabarren kaleko 1. eta 3. zenbakidun atarteetara joko duen pasabidea. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Durana kaleko 28. zenbakiko etxabea erosi zuen iaz Udalak. Durana eta Errekabarren kalea elkartuko dituen pasabidea egiteko asmoarekin erosi zuen orduan, eta urte eta erdi geroago lanak hasiko dituzte.

**PASABIDE GARBI ETA SEGURUA**

Proiektua Bilboko Alberto Sanz arkitektoak egin du, kulturarako eraikinaren proiektua egin zuen berberak. 217.534 euro aurreikusi dituzte lanak egiteko, eta urtea bukatu aurretik esleitu gura dituzte: "Datozen egunetan argitaratuko dute lanak egiteko lehiaketaren deia, eta abendu bukaerarako esleituta izango ditugu", adierazi dute Hirigintza Saileko arduradunek.

Ez dute edonolako pasabidea egingo. Oinezkoendako izango da, eta hainbat irizpide hartu dituzte kontuan proiektua egiterakoan: kalitatea, zabalera, segurtasuna, diseinua eta garbitasuna. "Alboko hormek ez dute gainazal laurik, okerdurak izango dira nagusi. Ez dago ezkutuko gunerik edo puntu beltzik, eta argitasuna lurretik eta alboetatik indartuko dugu. Gainera, harrizko materialak erabiliko ditugu presiopeko urarekin samur garbitzeko hormak zein lurra", argitu dute Hirigintza Sailetik.

**KOMERTZIOARI LAGUNDU**

Errekabarren kaleko 1. eta 3. zenbakidun atarteetara joko du pasabideak. Hala, herriko gune komertzialari bultzada emateko izango dela uste du Udalak; horregatik, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari dirulaguntza eskatu dio; 118.766 euroko dirulaguntza, hain zuzen.

LANAK > OTALORA KALEA ZABALIK

# Zabaldu dute Otalora kalea

Martitzenean zabaldu zuten eta noranzko bakarra dauka orain; parrokia eta Bedarreta auzune arteko zatia urtebete egon da itxita

**M.A.** > ARETXABALETA

Martitzenean, hilak 20, zabaldu zuten Otalora kalea; parrokia eta Bedarreta auzune arteko zatia, hain zuzen. Urtebete pasatu da lanak hasi zituztela, eta kale guztia ez dago oraindik bukatuta.

Parrokiatik Santutxuko ermitaraino doan Otalora kaleak itxura guztiz berritua dauka orain. Saneamendu lanak aprobetxatuta, kalea goitik behera berritzea erabaki zuen aurreko agintaldiko udalbatzak. Urtebete itxita egon ostean zabaldu dute lehenengo zatia, eta noranzko bakarra jarri diote: Arrasatetik Aretxabaletara sartzeko izango da, bai automobilak, bai autobusak.

Azken faseko lanak egiten dabiltza orain, musika eskolatik Santutxuko ermitara bitartean, eta abendu bukaerarako amaitzea aurreikusita daukate.




**OTALORA KALEA** Parrokiatik Bedarretara arteko zatia autoendako zabalik. M.A.

Iber
Loteria
Paper denda
Liburuak
Otalora 2. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

RaijinTattoo
MANTENDU DEBAGOIENA EDERRA!
TATUATU ZAITEZ!
Iralabarri plaza 1, behea
Aretxabaleta
Tel.: 610 85 91 54
www.myspace.com/raijintatoo

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



KIROL ETXEKO PROIEKTUA Kirol etxe berriaren planoak ikusi zituen Galdos diputatuak eta argibideak jaso alkate, zinegotzi eta kirol eta hirigintza teknikariengandik. M.A.

**KIROLAK** > KIROL ETXE BERRIA

# Kirol etxea ikustera etorri da astean Iñaki Galdos

Kiroletako diputatu Iñaki Galdosek kirol etxe berriaren proiektua ezagutu zuen eguaztenean, eta oraingoa egoera eskasean dagoela erakutsi zioten

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Kiroletako diputatu Iñaki Galdos etorri zen eguaztenean gurera. Kirol etxe berriaren proiektua ezagutzera etorri zen, eta planoak erakutsi zizkioten udal gobernuko kideek eta kirol eta hirigintza teknikariek. 10 milioi inguruko aurrekontua duela ere jakinarazi zioten, eta behin betiko proiektua martxo inguruan onartu, eta lanak hasi gura dituztela. Galdosek erantzun zien Aldundiko plan bereziaren barruan sartu izan dituztela halako proiektuak, eta martxo-apiril inguruan onartuko dutela aipatutako planaren aurrekontua.

**EGOERA ESKASEAN**

Proiektu berria ikusi ostean, oraingo kirol etxea ezagutzera joan zen Galdos. Dagoeneko 20 urte ditu, eta 1975 inguruan eraikitako frontoi bat estalita eraiki zuten. Egoera benetan eskasean dagoela jakinarazi zioten: teilatuko uralita zatiak zintzilik, igerilekuko kale bat itxita sabaia jausiko delakoan… Eta berria lehenbailehen behar dela gaineratu zuten agintari zein teknikariek.

**AHT**

## AHTren gaineko berbaldia, domekan

AHTren gainean dauden kezkak jarriko dituzte mahai gainean

**M.A.** > ARETXABALETA

AHT gelditu! Elkalana taldeak berbaldia antolatu du abiadura handiko trenaren gaineko argibideak emateko. Hiru hizlari gonbidatu ditu, eta bakoitzak gai bat landuko du. Ekologistak Martxan taldeko kide eta unibertsitateko irakasle Iñaki Barcenak ingurugiroa eta AHT izango du berbagai; Elkartzen taldeko Igor Uriartek, gastu soziala eta AHT; eta Aramaioko alkate Asier Agirrek, herri galdeketa eta egungo egoeraren gainean jardungo du. Gaiaren gainean kezkak dituzten herritarrei dei berezia egin diete.

Berbaldia domekan egingo dute, azaroak 25, 12:00etan, Kurtzebarri eskolan; euskaraz eta gazteleraz izango da.

**EUSKARA** > EKITALDIAK

# Antzerkia, porra eta afaria, egunotan

**M.A.** > ARETXABALETA

Hainbat ekitaldi gertatu ditu Loramendi Euskara Elkarteak datozen egunetarako. Gaur, egubakoitza, Gilkitxaro antzerki taldeak *Honolulu, leku bat* antzezlana eskainiko du, Express tabernan, 22:00etan. Etxebizitzaren jabe izan beharraren gaia landuko du antzezlanak. Lulu eta Elmer pertsonaiek, ostera, "bizitza bera da gure bizilekua!" aldarrikatuko dute.

**PALA TXAPELKETAKO PORRA**

Bestalde, Joteko prest! II. pala txapelketa aurrera doa eta finala abenduaren 14an jokatuko dute. Finala berotzen joateko porra antolatu dute Loramendi EEko kideek. Abenduaren 5etik 14ra bitartean egingo dute eta Urbaltz, Arlutz edo Gurea tabernetako barran euro bat emanda apustua egiteko aukera izango dute herritarrek. Bi galdera erantzun beharko dituzte: Zein bikote pasatuko da finalera? Nork irabaziko du txapelketa? Finala jokatu ostean zozketa egingo dute galderok asmatu dituztenen artean eta sari interesgarriak dituztela jakitera eman dute antolatzaileek.

**ABENDUAREN 14AN, AFARIA**

Abenduaren 14an, egubakoitza, jokatuko dute bigarren pala txapelketaren finala, Iturrigorri pilotalekuan, 19:00etan. Eta ostean txikiteoari egingo diote tartea musikak alaituta. 21:30ean afaria izango dute Muru-Alde gastronomi elkartean, eta Jon Maia eta Aitor Mendiluze bertsolariek girotuko diete afalostea. Bertso afarira joateko txartelak dagoeneko jarri dituzte salgai Urbaltz eta Azkena tabernetan, eta Loramendin bertan ere salduko dituzte 15 euroren truke. 60 txartel bakarrik daude herritarren eskura, hortaz, interesatuek lehenbailehen erostea komeni da.



ANTZERKIA *Honolulu, leku bat* antzezlana gaur, 22:00etan. GILKITXARO

> IRTEERA

### Tolosara irteera antolatu du ludotekak txotxongiloak ikusteko

Udal Gazteria Zerbitzuak eta Algara ludotekak irteera antolatu dute Tolosara abenduaren 1ean, zapatua. Titirijai 07 Txotxongilo Topaketa barruan *Marionetas sobre el agua de Vietnam* emanaldia ikustera joango dira. 7 eta 12 urte arteko gaztetxoak hezitzaileekin joan daitezke, baina emanaldia familia osoari zuzenduta dago, eta aberasgarriagoa iritzi diote antolatzaileek gurasoekin joatea. Autobusa 16:00etan aterako da eta 20:00ak inguruan itzuli.

Izena emateko azken eguna astelehena da, ludotekan edo Gazteria Zerbitzuan.

BENGOA
URDAITEGIA
Bertako okelak
eta mortzilak
Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79



K21
AZKARATE
AROZTEGIA
Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
Arotz lanetan behar duzun guztia
Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak
Parketak • Sukaldeak
www.goiena.net/blogak/azkarate

**LANA KOOPERATIBA** > LANTEGI BERRIA CZECH-EN

# Lana kooperatibak lantegi berria zabaldu du Txekian

Aurreikuspenen arabera, zazpi milioi euro fakturatuko du guztira enpresak

30 lanpostu sortuko ditu kooperatibak Txekian zabaldu berri duen lantegiak




**LANA KOOPERATIBA TXEKIAN** Argazkian urriaren 26an Czech-en zabaldu zuten lantegia. LANA KOOPERATIBA

**MAIDER ARREGI** > OÑATI

Lana Kooperatibak 16 milioi euroko inbertsioa egin du Txekiako lantegi berrian. Hain zuzen ere, Txekiar Errepublika erdian dago kokatuta lantegia, Czech herrian. Merkatu estrategikotik gertu dago planta berria. Hala, kalitatezko lehengaiak baldintza onenetan lortzeko aukera izango duela iragarri dute.

Gainera, lantegi berrian, enkofraturarako hiru geruza dituen taularen produkzioa bikoiztea eta Europan daukan lidertza finkatu eta bermatzea dutela helburu adierazi dute. 2010erako, lanpostuak ere bikoizteko asmoa dute.

**LANA KOOPERATIBA**

MCCko enpresa aitzindarietako bat da Lana. 1961. urtean sortu zuten eta Eraikuntzaren sektorera zuzendutako zuraren bigarren transformazioan espezializatuta dago. Alor horretan, Lana erreferentea da Europan bere produktuen eta irtenbideen berrikuntzagatik.

> ELKARRETARATZEA

## Emakumearen aurkako indarkeria salatuko dute domekan

*Emakumearen aurkako indarkeriarik ez!* lelopean, Ezker Batua-Berdeak, Aralar eta Zutik koalizioak elkarretaratzea deitu dute azaroaren 25erako, domekarako. Oñatiko Foruen Enparantzan izango da, 13:00etan.

Igandean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko eguna da. Aurten, bereziki neska gazteen aurkako biolentziarengan arreta jarri nahi da, indarkeria hori ugaldu egin da eta.

> EAE-ANV

## Zapatuan ekitaldi politikoa egingo du EAE-ANVk plazan

Oñatiko EAE-ANV taldeak ekintza politikoa egingo du. Ekimena, zapatuan, azaroaren 24an egingo da herriko plazan 19:00etan. *Ilegalizazioaren aurka eta Independentziaren alde* ekitaldian, jarduera ugari izango da. Besteak beste, txalapartariak, dantzariak edota bertsolariak izango dira. Manifestazioa egingo da eta aldarri politikoa irakurri.



**JOSEBA IRAZOKI** Gaur gauean Gaztelekuan egongo da. GOIENKARIA

**KULTURA** > KONTZERTUA LAIXANEN ESKUTIK

## Gaur Gaztelekuan izango da Joseba Irazoki musikaria

Kide zen Onddo taldearen ildotik jarraituz, pop estiloko abestiz egindako proposamena dakar

**MIREN ARREGI** > OÑATI

Debagoieneko I. Kultur Zirkuituaren baitan, Joseba Irazoki musikaria izango da gaur Oñatiko Gaztelekuan. Lehen Kultur Zirkuitu hau, Topaguneak eta Debagoieneko hainbat euskara elkartek elkarlanean antolatu duten ekimena da. Joseba Irazokiren kontzertua, esan bezala, ekimen horren baitan kokatzen da eta Laixanen eskutik dator Oñatira.

**KONTZERTUA**

Irazokik kantu intimu eta lasaiak eskainiko ditu era akustikoan, Mikel Artieda baxu-jotzailearen laguntzarekin. Ibilbide luzea du Irazokik eta gaur izango da ikusteko aukera, 22:30ean.

**KONTZERTUA** > GANBARA ETA GOIKOBALU TXIKI ABESBATZAK

## Santa Zezilia eguna ospatzeko Ganbara Txiki eta Goikobalu Txiki, Santa Anan

Bihar, arratsaldeko zazpiretan eskainiko dute kontzertua, Ganbara Txiki eta Goikobalu Txiki eta Gazte abesbatzek



**GANBARA TXIKI** Taldekideak irakasleekin. GOIENKARIA

**MIREN ARREGI** > OÑATI

Santa Zezilia eguna ospatzeko kontzertua izango da Oñatiko Santa Ana antzokian, bihar, 19:00etan. Protagonistak, Ganbara Txikiko eta Arrasateko Goikobalu Txiki eta Gazte abesbatzetako haurrak. Kontzertu benetan betea izango da eta kutsu berezia ere izango du, izan ere, Ganbara txiki abesbatzako Tailler I taldea bihar estreinatuko da. 4 eta 5 urte bitarteko haurrak dira hauek, eta ilusioz beterik daude estreinaldirako; bi abesti kantatuko dituzte, biak ere, Imanol Urbietak egindakoak. Lehena *Jan eta Jan*, eta bigarrena *Txirrisklas*. Hauetaz gain, Ganbara Txiki abesbatza osatzen duten beste hiru taldeak ere igoko dira oholtza gainera eta baita Goikobalu Txiki eta Gazte abesbatzak ere. Guztira beraz, sei talde arituko dira biharko kontzertu erraldoian. Era guztietako musika estiloak entzun ahalko dira gainera; euskal kantak, gospel doinuak edota erritmodun abestiak. Piano jotzaile lanetan, Araceli Guridi arituko da.

**GOIKOBALU TXIKI ETA GAZTE**

Arrasateko Goikobalu Txiki eta Gazte abesbatzek ere hainbat abesti eskainiko dituzte. Goikobalu Txikik lau abesti eskainiko ditu, Amaia Aboitizek zuzenduta eta Arantza Nuñez piano jotzaileak lagunduta. Goikobalu gaztek ere errepertorio osatua eta zabala eskainiko du. Piano jotzailea Arantza Nuñez izango da eta zuzendari lanetan berriz, Rakel Murgiondo arituko da.

Sei abesbatza hauek batera eskainiko dute Xabier Sarasola konposatzailearen *Lau euskal abesti I* lana.

**AZPIEGITURAK** > EIBAR-GASTEIZ AUTOBIDEA

# Autobideari egindako alegazioak onartu barik

## Onbidek aurkeztutako lau alegazioetatik bat aintzat hartu dute eta beste hirurak ez

## Onbidek salatu du proiektu aldaketa egitearen arrazoia dela beste 13 lurjaberen lurrak hartzea

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide azpiegituretako departamenduak ez ditu onartu Onbide elkarteak Gasteiz-Eibar autobidearen Arlaban-Eskoriatza iparra zatia egiteko aurkeztutako alegazioak.

Aldundiak jakinarazi du laugarren proiektu aldatuan honako aldaketak sartu zituztela: lur mugimenduetan aldaketak, hondakindegi handiagoa, drainatzea aldatzea, Arlabango tunela luzatzea, eta Arlaban eta Zarimuzko tuneletako obra zibila aldatzea, besteak beste.

Horiek guztiak jendaurrean erakusteko eta iradokizunak jasotzeko, alegazio epea zabaldu zuten.

Hala, Onbide elkarteko ordezkariek eskatu zuten Marin eta Zarimutz arteko pasabide edo zubiko alboak egurrezkoak egitea; eta inbutu forma ematea. Horren arrazoia da animaliak hortik ibiltzeko erraztasunak ematea. Aldundiak erantzun die hala egingo dutela, baina Onbidekoak zalantzak dituzte proiektua ikusita.



**ZUBI DEZENTE** Eskoriatzako hainbat elizatetan zubiak eta pasabideak egiten dabiltza autobidearendako. IKER BARANDIARAN

**'PETATXUAK JARTZEN'**

Bigarren alegazioa orokor samarra dela jakinarazi dute. Hain zuzen ere, eskatu zuten kaltetuen eskaerei erantzuteko. Horren aurrean, Bidegik eta Aldundiak petatxuak jarri dituztela uste dute Onbidekoek. "Adibidez, Zarimutzera Arabatik datozen urak ez galtzeko eskatu genuen, eta azkenean horren hodia zubi gainetik jarri dute. Ez dugu uste hori konponbide onena denik", azaldu zigun Onbideko Juan Carlos Belokik.

Belokik aipatutako beste arazo bat da Mazmelako bidea konpontzeko eskatu zutela. "Eskas samar konpondu dute behin-behineko bidea, eta izugarrizko hobekuntza egingo balute moduan azaldu dute".

Uren drainadurari dagokionez, Onbidek uste du ura edozein lekutara botatzen dabiltzala; besteak beste, trenbide zaharrera; eta hori akats larria dela uste dute. "Antontxu eta Aingerubarriko adibideak aipatu dituzte, baina arazoa oso orokorra da".

Onbidekoak haserre daude Bidegik "garbi jokatzen ez duelako, eta auzotarrenganako errespeturik ez daukalako. Eta, orain esaten dute lanen atzerapena eskoriatzarrengatik dela...".

**HIRIGINTZA** > AUTOBUS GELTOKIETARAKO MARKESINAK

# Markesina berriak jarriko dituzte Aranburuzabalan

## Egurrezko bi markesina berri jarriko dituzte; eskatuta daude eta Gabonak aurretik ipini gura dituzte

**I.B.** > ESKORIATZA

Astelehenean aukeratu zituen Udaleko Hirigintza batzordeak Aranburuzabala kalean jarri beharreko markesinak. Egurrezkoak jartzea erabaki dute.

Markesina mota aukeratu aurretik, baina hainbat pauso eman dituzte. Hain zuzen ere, orain dela hilabete gutxi Udalak erabaki zuen Aranburuzabala kaleko autobus geltokiko markesina bat egoera txarrean zegoela. Hala, markesinen gaineko dirulaguntzak aztertzen hasi ziren; eta bide batez, zer markesina jarri erabakitzeko prozedura zabaldu zuten.

Gai horri hainbat buelta eman dizkiote, baina azkenean erabaki dute egurrezko markesinak erosi eta jartzea. "Prezio merkeagoa dute, eta ekologikoagoak dira, birziklatzeko erraztasun handiagoak ematen dituzte-eta; horiek biak kontuan hartzeko bi arrazoi garrantzitsu dira. Horregatik aukeratu dugu eredu hori", azaldu zigun Udaleko Obra eta Zerbitzuetako batzordeko arduradun Dorleta Lezetak. Aukerake-



**EGURREZKOA** Argazkian Aranburuzabalan jarriko dituzten markesinak. GOIENKARIA

ta egin aurretik, baina, Udaleko Obra eta Zerbitzuetako arduradunak konturatu ziren Santa Ana auzoaren parean dagoen autobus geltokiko markesina ere zaharkitua eta erdi apurtua dagoela. Lezetaren hitzetan, "Aranburuzabalakoak premia handiena duen arren, konturatu ginen Santa Anakoa ere aldatzea aproposa zela. Baina, ez genuen markesinatan diru askorik gastatu gura, beste premia asko ditugulako". Hortaz, Santa Anako bi autobus geltokietako markesinak desberdinak izan ez daitezen, Aranburuzabalako bat, ondo dagoena, hara eramango dute. Eta egurrezko bi markesina berriak Aranburuzabala kalean jarriko dituzte.

**MARKESINA BERRIENDAKO EREDU**

Udaleko ordezkariek jakinarazi digute euren asmoa dela zahartzen doazen heinean herriko gainontzeko autobus geltokietako markesinak ere aldatzea; eta egurrezko berriekin ordezkatzea.

Lehenik eta behin, Aranburuzabalako markesinak Gabonak aurretik jarri gura dituzte.

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

**DASTATZEA** > ARDO DASTATZE EGUNA

# Hainbat ardo dastatzeko aukera izango da bihar plazan

Aitzorrotz kultura elkarteak hirugarren ardo dastatze eguna antolatu du biharko

Hainbat ardo dastatzeko eta pintxoak jateko aukera, herriko plazan



**EKIMEN ARRAKASTATSUA** Arrasaten moduan (argazkian) Eskoriatzan ere arrakasta du ardo dastatzeak. GOIENKARIA

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Aitzorrotz kultura elkarteak antolatzen duen ekitaldi arrakastatsuenetako bat da urtero egiten duten Ardo Dastatze Eguna. Aurtengoa bihar, zapatua, egingo dute herriko plazan 19:00etatik 21:30era bitartean.

Aurtengo berrikuntza nagusiena da kultura elkartekoek ardoak aukeratu bai, baina eurek ez dutela zerbitzatuko. Ardandegikoek hartuko dute ardura hori honakoan.

**ARDO ESKAINTZA ZABALA**

Honako ardoak eramango dituzte dastatzeko: Larchago urtekoa, ondua eta erreserba; Iporos 06 urtekoa; Sonsierra 04 ondua; Sonsierra 2001 erreserba; Eredun 06 urtekoa; ea Marques de Vitoria ondua eta erreserba.

Egunean bertan salgai jarriko dituzte bonoak Aitzorrotz kultura elkarteko postuan.

Hiru euro ordainduta, bost txartel banatuko dituzte; eta txartel horiekin pintxoak edota mota desberdinetako ardoak hartu ahal izango dira plazan bertan.

Hain zuzen ere, txartel bakarrarekin urteko ardo bat edo pintxo bat hartu ahal izango dira aukeran; bi txartelekin ardo ondu bat; eta hiru txartelekin erreserba bat, besteak beste.

Ardoa zerbitzatzen 19:00etan hasiko dira eta 21:30ak inguruara arte izango da horretarako aukera. Antolatzaileek jakinarazi digutenez, gero eta jende gehiago joaten da. "Joan den urtean ikaragarria izan zen batutako jende mordoa. Gainera, Pirritx eta Porrotxen saioarekin bat egin zuen, eta jende ugari batu zen. Aurten ere asko batuko gara", azaldu ziguten Aitzorrotz kultura elkartekoek. Bestalde, azpimarratu dute gero eta gazte gehiagok dastatzen dutela ardoa egun horretan.

Horrez gain, arratsalde horretan, Mendraka txakolina zelan lantzen den jakiteko argazki proiekzioak emango dituzte ardo dastatzeak iraungo duen denbora berean.

> AISIALDIA

### Gabonetako jolas parkerako begirale bila dabiltza

Eskoriatzako Udalak Gabonetako jolas parkea egingo du, ohitura duen moduan, abenduaren 26an, 27an eta 28an. Kiroldegian izango da hori.

Horren harira, Udaleko Gazteria Zerbitzutik jakinarazi digute jolas parkean lan egiteko begiraleak behar dituztela.

Interesatuek curriculuma bidali beharko dute Gazteria Zerbitzura azaroaren 30a aurretik. Horretarako hainbat bide daude: Hidalga kaleko egoitzara eramatea; honako e-postara bidali: *gazteria@eskoriatza.net* edo 943 71 44 07 telefonora deitzea.

> ADINDUAK

### Bainuetxe eta opor programak Imsersoren bidez

Eskoriatzako Udaleko Gizarte Zerbitzutik jakinarazi digute Imsersok adinduendako aisialdi programen gaineko kanpaina egin berri duela.

Espainiako Gizarte Segurantzak erretiratu eta pentsionistak oporretara joateko eta bainuetxeetan egonaldiak egiteko programa antolatzen du urtero.

Hala, programa horren bidez oporretan joan gura dutenek abendua aurretik eman behar dute izena. Bainuetxeren batera joan gura dutenek, berriz, ez dute epe mugarik.

Horren gaineko informazioa eskuratzeko, jo Udaleko Gizarte Zerbitzura.

**MUSIKA** > SANTA ZEZILIA, MUSIKARIEN ZAINDARIA

# Musika Eskolako Bandaren Santa Zeziliako kontzertua bihar

Musika Eskolako Bandak urteroko hitzordua dauka zapatuan; Parrokian egingo dute emanaldia, 20:00etan

**I.B.** > ESKORIATZA
Bihar, zapatua, Musika Eskolako Bandak Santa Zezilia eguneko kontzertua egingo du. Ohitura duten moduan, emanaldia San Pedro parrokian egingo dute, 20:00etan.

Gaur egun Musika Eskolako Bandan 35 bat musikari dabiltza entseatzen eta kontzertuak egiten. Iraganean 25 bat lagun ibili izan dira, baina gaur egun oraindik zenbaki polita dute. Musikarien artean gazteenek 11 bat urte dituzte eta nagusienek 36 bat urte. Horrez gain, badira laguntzera etortzen diren lehengo bandako kide batzuk eta Angel Bañares zuzendaria ere. Hain zuzen ere, Bandako kide Imanol Andetxagak azaldutakoaren arabera oso banda gaztea da Eskoriatzakoa. "Kideetako erdiek baino gehiagok 13 bat urte dituzte".

**HIRU ORDU LAURDENEKOA**

Zapatuko kontzertuari dagokionez, ohiko ildoari jarraituko diotela jakinarazi digu Andetxagak: "Martxa edo pasodoble batekin hasi; horren ostean, zartzuela edo klasiko bat; soinu bandaren bat; euskal doinuak eta bukatzeko, pieza dibertigarri edo ezagunen bat. Hori da kontzertu honetarako erabiltzen dugun eskema, eta jendeak gustukoa du".

Emanaldi horrek 45 bat minutu inguruko iraupena izango du, eta honako piezak entzuteko aukera izango da, mota eta estilo askotakoak: Mariano Puigen *Ateneo musical*, Richard Comellok moldatutako *Opera favourites*, J.Serranoren *La cancion del olvido*; Jacob de Haanen *Dakota* laneko hainbat pieza; eta Luigi Di Ghisalloren *Caribean summer* laneko beste hainbat kantu.

Kontzertu hori egin bezain pronto, Bandako kideek entseatzen jarraituko dute, eta jakinarazi dutenez asmoa daukate Gabonetan herrian beste kontzerturen bat egiteko.

**AISIALDIA** > GAZTAINA ERRE EGUNA

# Gaztaina erre eguna egingo dute gaur Luis Ezeizan

Gaztainak erretzeaz gain, txikienendako tailerrak eta lehiaketak ere bai

**I.B.** > ESKORIATZA
Gaurko, egubakoitza, Luis Ezeizako gurasoen elkarteak gaztaina erre eguna antolatu du. Aspaldiko ohiturari jarraituta, ospatuko dute egun hori.

Gaztainak erretzen 17:00etan hasiko dira pilotalekuaren alboan, eta pilotalekuan bertan ume eta gaztetxoek tailerrak izango dituzte ordu horretan.

**40 KILOGRAMO GAZTAINA**

Guztira 40 kilogramo gaztaina eramango dituzte pilotalekura han erreteko. Horrez gain, txokolatea eta bizkotxoak ere banatuko dituzte. Horren harira, gurasoen elkarteak deia egin die borondatea duten gurasoei etxean bizkotxoak egin ditzaten. Hala, bizkotxoa eta txokolateak prezio sinboliko baten truke banatuko dituzte. "Guraso elkarteak gero eta diru gutxiago daukagu, eta horren helburua da gutxienez gastuak estaltzeko", azaldu zigun elkarteko Jose Angel Urrutiak.

**EDALONTZIA NORBERAK**

Gaztetxoenendako, tailerrez gain, txinga, sokatira, arto batzea, tiragoma lehiaketa eta beste antolatu dituzte. Horrez gain, hanka-paluetan ibiltzeko aukera ere izango da.

Bestalde, jakinarazi dute, plastikoa ez erabiltzeko, norberak edalontzia eramateko.



**LANAK** Kanpoko aldea eraberritzen dihardute gaur egun; momentu honetan, erreteila konpontzen dabiltza. A.I.

**ELIZA** > PARROKIAKO ERABERRITZE LANAK

# Parrokia eraberritzeko diru-laguntza eskaera

Parrokiako batzordeko kideak abenduaren 1ean hasiko dira herritarrei diru-laguntza eskatzen; etxez etxe jardungo dute, azalpenak ematen

**AINTZANE IRIZAR**> ANTZUOLA
Irailean hasi zituzten Errukizko Amaren parrokia eraberritzeko lanak. Lehenengo fasean kanpoko aldea eraberrituko dute eta bigarrenean barrukoa. 1.400.000 euroko aurrekontua dute lanek. Diputazioak 700.000 euroko diru-laguntza eman du; Udalak, 150.000 eurokoa, 25 urtean zehar emango diena. Donostiako Elizbarrutiaren eskutik ere jasoko dute laguntza, nahiz eta oraindik ez dakiten zenbatekoa. Parrokiako batzordeko kideen asmoa da kostuen %20 (270.000 euro) herritarren ekarpenetatik jasotzea.

Horretarako, batzordeko kideek etxez etxe jardungo dute, azalpenak ematen eta herritarrei lanak diruz laguntzeko eskatzen. Abenduaren 1ean hasiko dira horretan. Dirua emateko bi bide egongo dira: batetik, banatuko duten gutunazalean dirua sartzea; abenduaren 15ean pasatuko dira gutunazala jasotzera. Bestalde, Euskadiko Kutxan eta Kutxan kontu korrontea dute eta hantxe sartu daiteke dirua.

Lanen bigarren fasearekin hasten direnean, laguntasuna eman ahal izango da hilabeteroko kuotatan.

Aipatzekoa da, azkenik, lanen gaineko informazioa emateko web orria prestatzen dihardutela; martxan jarriko dute abendu hasieran.

**MUSIKA** > SANTA ZEZILIA EGUNA

## Herriko abesbatza txikiak lehen emanaldia egingo du

Bihar ospatuko dute herriko musikariek Santa Zezilia eguna, herriko parrokian

**A.I.** > ANTZUOLA
Atzo, azaroak 22, zen Santa Zezilia musikarien zaindariaren eguna. Antzuolan zapatuan ospatuko dute. Errukizko Amaren parrokian Irun eta Antzuolako abesbatzen emanaldia izango dugu, 20:00etan.

Aurtengo berritasuna da ospakizun horretan bere lehen emanaldia egingo duela Antzuolako Musika Eskolako neska-mutikoen abesbatza sortu berriak ere. Eurek emango diote, gainera, hasiera zapatuko emanaldiari, hiru abestirekin.

Gaztetxoen abesbatza hori osatzen dute 10 eta 12 urte bitarteko 13 neska-mutikok. Euren irakaslea eta zuzendaria da Alberto Carrera.

Ondoren, Irungo eta Antzuolako abesbatzen emanaldia izango dugu.

**GIZARTEA** > ABIADURA HANDIKO TRENA

## AHT Gelditu! Elkarlana taldea osatu dute herrian

Martitzenean egin zuten lehenengo batzarra eta 20 bat lagun elkartu ziren

**A.I.** > ANTZUOLA
AHT Gelditu! Elkarlana taldeak herriko taldea osatu du Antzuolan. Oraingo astean, martitzenean egin zuten lehenengo batzarra eta hogei lagunetik gora elkartu ziren deialdi horri erantzunez. Aurrerantzean, printzipioz, martitzenero egingo dituzte batzarrak, 19:00etan, udaletxean.

Taldearen helburua da Abiadura Handiko Trenaren proiektua geldiaraztea, "benetako eztabaida eta herritarren partehartzea bultzatzeko". Bestalde, herritarrei informazioa eman nahi diete eta mobilizazioa bultzatu.

Abenduaren 15ean AHTren aurkako manifestazio nazionala egingo dute Arrasaten eta horri begira lan egingo dute datozen asteetan.

> ANELKAR

### Kongoko proiektuen gaineko berbaldia martitzenean, Olaranen

Anelkarrek, beste batzuen artean, Kongoko hainbat proiektu aurrera eramateko batu izan du dirua. Bittor Arbuluk eta Tomas Madinabeitiak Kongoko proiektuen gainean berba egingo dute datorren martitzenean, azaroak 27, 19:00etan, Olaranen. Kongotik itzuli berriak dira Arbulu eta Madinabeitia.

> KALE AGERRALDIA

### Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra, kale agerraldia, etzi

Azaroaren 25a, domeka, Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrakoa nazioarteko eguna da. Hori dela eta, kale agerraldia egingo dute Antzuolan, domekan, 12:30ean, Herriko Plazan. Aipatzekoa da, bestalde, udalbatzarrak eguaztenean aho batez onartu zuela indarkeria hori gaitzesten duen idatzia.

> GAZTAINA JANA

### Gaztaina erre jan herrikoia antolatu du Udalak domekarako

Urtero bezala, Udalak antolatuta, gaztaina erre jan herrikoia izango da herrian etzi, domeka, 18:00etan. Herriko Plazara joaten diren herritar guztiek izango dute gaztaina erreak jateko eta Antzuolako sagardoa edateko. Aurten, garai bateko ohiturari helduta, zinegotziak ibiliko dira jatekoa eta edatekoa banatzen.

> GABONAK

### Euskal produktuen katalogoa banatuko dute etxez etxe

Gabonak gainean ditugula eta, Udalak etxez etxe banatuko du euskal produktuen katalogoa. Katalogo hori egin dute Euskal Herriko hainbat udalen artean, gurasoei lana errazteko eta euskarazko jolasak ezagutarazteko. Katalogo hori Interneten ere topatu daiteke, honako web gunean, hain justu: *www.katalogoa.org*.

> ERRETIRATUAK

### Antzuolako historiaren gaineko berbaldia datorren eguenean

Erretiratuen elkarteak eta Udalak antolatuta, Antzuolako historiaren gaineko berbaldia egingo du Josu Tellabide etnologoak eguenean, hilak 29, Olaranen, 18:00etan. Josu Tellabidek ondo ezagutzen du herria; besteak beste, larrugintzaren interpretazio zentroaren proiektua zuzentzen dihardu.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19
INDUSTRI MANTENIMENDUA

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23




**ARAUTEGIA** Pilotalekuan eta gimnasioan dago arautegi berria ikusgai, udaletxean ere bai. L.Z.

**KIROL INSTALAZIOAK** > ERABILERA ETA MANTENUA KOORDINATZEA HELBURU

# Abendutik aurrera arautegi berria indarrean

Abenduaren 1ean sartuko da indarrean udal kirol instalazioen erabilera eta mantenua koordinatzeko balioko duen arautegia

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Elgetak, aurrerantzean, udal kirol instalazioen erabilera, mantenua eta garbitze lanak finkatuko dituen arautegia izango du. Abenduaren 1ean sartu dira arau horiek indarrean eta ez dute, beraz, kirol instalazioen egunerokoan aldaketa nabarmenik suposatuko. "Arautegiak, derrigorrezkoak dira instalazioen funtzionamendu egokia lortzeko", esan du kirol teknikari Oskar Carrascalek. "Kirol instalazioen eta zerbitzuen erabilerak arautu egingo dira herritarrek modu koordinatu eta egoki batean erabili ahal izateko", adierazi du.

Arautegia pilotalekuan eta gimnasioan dago ikusgai eta informazio gehiago behar izanez gero udal kirol zerbitzura jo behar da. Oinarrizko araudi batek eta pilotalekuaren erabilerarako berezi-ki egindako araudi batek osatzen dute.

**ERABILERA ARDURATSUA**

Kirol instalazioetan sartzeko erabiltzailea edo baimendua izan beharko da eta haurrak ezingo dira arduradunik gabe egon. Kirol jantziekin eta zapatilekin sartu beharko da eta erretzea zein jatea debekatuta egongo da. Ezingo da materiala baimenik gabe instalazioetatik atera eta erabili ostean bere lekuan laga beharko dira. Eragindako kalteen berri Bolatokian edo udaletxean eman beharko da eta erabilera desegokiagatik kalteak eragiten badira arduradunak ordaindu beharko ditu. Armairuak erabiltzaileek soilik erabil ditzakete eta inoiz ez eguneko kirol jarduera irauten duen baino denbora gehiago.

**PILOTALEKUAREN ARAUTEGIA**

Pilotalekua 10:00etatik 22:00etara egongo da zabalik eta erreserbak egin ahalko dira. Ezingo da erre, zesta-puntan egin edo bizikletan ibili. Patinek gomazko gurpilak beharko dituzte eta argiak piztek o dagokion prezioa ordaindu beharko da. Erabilpen libreko orduetan ezingo da kantxa osoa hartu eta jendea zain egonez gero ordubetera libre utzi beharko da.

**LEO BASSI ELGETAN**

## Emanaldia eragozteko 200 eskaera Udaletxera

Leo Bassik abenduaren 1ean egingo du emanaldia Espaloian

**L.Z.** > ELGETA

Elgetako Udalak 200 mezutik gora jaso ditu azken egunotan Internet bidez Leo Bassik abenduaren 1ean Espaloian egingo duen ikuskizuna bertan behera uzteko neurriak hartzeko eskatuz. Bigarren aldia da Bassi Elgetara datorrela eta iaz ere antzerako mezuak jaso zituen Elgetako Udalak.

"Ez dut Leo Bassik Espaloia Kafe Antzokian egingo duen ikuskizuna dela-eta inongo neurririk hartuko", esan du Oxel Erostarbe alkateak. "Ez Leo Bassik, ez beste inork, ez du merezi bere ideia, iritzi edo pentsaerak libreki azaltzeko eragozpenak izatea".

Leo Bassiren aurkako kanpaina bortitza piztu zen iaz artistak *La Revelación* delako lana aurkeztu zuenean. Erostarbek herritarrak animatu gura ditu aurtengoan *Instintos ocultos* delakoa ikustera joateko. "Herritarrek erabakiko dute ikuskizunak merezi duen edo ez . Bakoitzak bere iritzia izango du. Horretan datza adierazpen askatasunak, guztion askatasunean".



Leo Bassi iaz Espaloian. ARTXIBOA

> BILKURA ETA HITZALDIA

### Emakumeen aurkako indarkeria salatzeko bi ekintza gaur Elgetan

Domeka, hilaren 25a, emakumeen aurkako indarkeria salatzeko nazioarteko eguna izango da. Elgetan bi ekintza daude iragarrita, biak ere gaur, barikua, burutuko dira. Lehenik eta behin kontzentrazioa dago deituta 18:30ean Herriko Plazan. Jarraian, 19:00etan, hitzaldia egingo dute Espaloia Kafe Antzokian Mexikoko Ciudad Juarez herriko *Nuestras Hijas de Regreso a Casa* elkarteko Elia Escobedok eta Julia Esther Canok. Biak dira Ciudad Juarezen hildako bi neska gazteren amak.

> ATHLETIC ZALEAK

### Lagunartea eratzeko batzarra domekan Bolatokian , 19:00etan

Talde zurigorriak lagunartea izango du aurrerantzean Elgetan. Domekan, hilaren 25ean, egingo dute eratzebatzarra 19:00etan. Bertan presidentea, presidente ordea, idazkaria, diruzaina eta bokalak aukeratuko dituzte. "Badira hilabete batzuk lagunartea osatzeko asmoa sortu zela eta dagoeneko 25 bat lagun daude izena emanda", esan dute bultzatzaileek. "Batzarra gure egoitza izango den Bolatokian egingo dugu eta irekia da".

> FAMILIARENDAKO ZINEA

### Ez da saiorik egingo Ruper Ordorikaren kontzertua dagoelako

Ruper Ordorika musikari oñatiarrak kontzertua egingo du domekan, hilaren 25ean, Espaloia Kafe Antzokian. Bere azken lana, *Memoriaren mapa* aurkeztuko du 20:00etan hasita.

Hori dela-eta, bertan behera gelditzen da aurreikusita zegoen familiarendako zinema emanaldia. Hurrengo saioa abenduaren 2an egingo dute. *Babe txerritxo ausarta* emango dute.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

RECYDE
RECYDE, S.A.
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es
AENOR
ER
Enpresa Erregistratua
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949



TURROIAK EGITEKO IKASTAROA Aramaioko zortzi emakume ari dira turroi eta Gabonetako gozoak egiteko ikastaroan. ARRITXU BARRUSO

**AISIALDIA** > TURROI ETA GOZO IKASTAROA

# Turroiak eta Gabonetako gozoak egiteko ikastaroa

Datorren martitzenera arte turroi artean jardungo dute Aramaioko zortzi emakumek

Daniel Quintana gozogile gasteiztarraren aginduak jarraituko dituzte ikastaroan

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Aste honetan, arratsaldez, Aramaioko Eskolara gerturatu direnek usai goxoa sumatuko zuten seguruenik inguruan. Azukre edota txokolate usaia. Izan ere, astelehenean hasita turroiak eta Gabonetako gozoak egiten jardun dute Aramaioko zortzi emakumek. Daniel Quintana gozogile gasteiztarra izan dute irakasle eta klase eta zapore guztietako gozoak egiten erakutsi die. "Gabonetan gehien jaten diren gozoak egiten ikasiko dugu, eta beti ere modu errazean, etxe guztietan dauden osagaiekin". azaldu du Quintanak.

Ikastaroan parte hartu duten gehienek sukaldea gustuko dute baina turroiak egitea gauza berria da beraientzat. Dena dela, aitortu digute uste zutena baino errazagoa dela. "Turroiak egitea ez da horren zaila, zailagoa da horretarako irakasleak erabiltzen dituen tresna elektrikoak aurkitzea, gehienak industrialak dira-eta" dio Mertxe Nafarratek.

Kontua da, denak ere adi-adi egon direla ikastaroan irakasleak emandako aholkuak jarraitzen. Aurtengo Gabonetan familiartekoak euren turroi gozoekin harritzeko asmoa izango dute gehienek, eta ikusitakoa ikusita seguru lortuko dutela.

**UDALA**

## Errekako arratoiak akabatuko ditu Udalak

Udalak erreka inguruan kontuz ibiltzeko eskatu die umeak dituztenei

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Azken hilabeteotan, Aramaioko erreka inguruan, asko ugaritu dira arratoiak. Hori horrela Udalak arratoi gehien biltzen diren puntuak zehaztu eta kontrolatu ditu. Arazoari irtenbide bat emateko datorren astean puntu horietan pozoia jarriko dute arratoiak akabatzeko. Udaletik azaldu dute, erreka-arratoiak direla eta ez direla gizakiarendako kaltegarriak. Neurri batean errekako zikinkeria garbitzen ere laguntzen dutela azaldu dute. Baina azken aldian erreka inguruan dabilen arratoi kopuru handia ikusita neurriak hartzea erabaki dute. Pozoia erabiliko dutela-eta udaletik kontuz ibiltzeko eskatu diete herritarrei. Batez ere, umetxoak eta etxeko animaliak dituztenei.

**ERREKA GARBITZEKO LANAK**

Arratoiak akabatzeaz gain, Udalak Ibarra auzoan erreka garbitzeko lanak ere hasiko ditu datorren astean. Udaleko ur departamentuarekin bilera egin dute aste honetan, eta seguruenik, astelehenean hasiko dituzte lanak. Sastraka eta belar txarrak kenduko dituzte. Parke ingurua eta Aita Garbiel pareko erreka garbituko dituzte.

## Neguak irabazi du argazki lehiaketako lehenengo saria

Argazki lehiaketan parte hartzeko urtaroak islatzen zituzten argazkiak aurkeztu behar ziren. Aurten negua izan da irabazle Aitziber Aginagalderen *Neguko arratsaldie* argazkiarekin. Hori horrela, 200 euroko saria jasoko du Aginagaldek. Sari bereziak ere banatu dituzte urtaro bakoitzeko, 100 euroko sariak. Guztira 40 argazki aurkeztu ziren lehiaketara eta horiekin 2008ko egutegia egingo du Udalak.



AITZIBER AGINAGALDE

> ZINEMA

### Domekan 'Zientzia fikzioa' filma ikusgai kultura etxean

Aramaioko gaztetxoek *Zientzia fikzioa* filma ikusteko aukera izango dute domekan, hilak 25. Zinearekin hitzordua, astero moduan, 17:00etan izango da Aramaioko kultura etxean.

*Zientzia fikzioa* filmak Andreas izeneko 10 urteko mutiko baten istorioa kontatzen du. Andreas berria da herrian eta bere gelakideei esan die bere gurasoak puntako zientzialariak direla. Verok, berriz, Andreasen gurasoak arraro xamarrak direla-eta hauek espiatzea erabaki du. Verok uste zuena baino arraroagoak dira Andreasen gurasoak; estralurtarrak dira.

**LANAK** > GASA

# Gas-tangak egun batetik bestera beteta

Lehenengo gatzagarrek hamabost egun barru izango dutela gasa etxean uste du Udalak

Bigarren faseko lanak urtea bukatu aurretik esleituko dituzte, eta martxoan hasiko dira



**LANAK** Gasa sartzeko lehen faseko lanak iaz egin zituzten. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Orain dela urtebete iritsiko zela gasa Gatzagara uste izan zuen aurreko agintaldiko udalbatzak; izan ere, lehen faseko lanak, 2006ko irailerako bukatuta zituzten. Baimen eskaera eta paper kontuek, baina, asko atzeratu dute gasaren etorrera. Hala, 2007ko neguan berotuko ditu gasak gatzagarrak.

**GASA, 15 EGUN BARRU**

Jaurlaritzako Industria Sailak eman dio baimena Repsol enpresari herriaren gainaldean dauden bi tangak gasez betetzeko, eta egun batetik bestera egingo dutela uste du Eusebio Villar alkateak. Behin tangak beteta alta eman behar dute interesatuek, eta horren berri emango duen oharra kaleratuko du Udalak herritarrak jakinaren gainean egon daitezen. Hori horrela, hainbat pausu jarraitu behar dituzte gasa izan gura dutenek: lehenengo alta eskatu eta gero Repsolekin kontratua sinatu. Etxe barrura gasa sartzeko instalakuntza egin beharko dute gero iturginen batekin –batzuk eginda daukate–, eta instalakuntza ondo dagoen begiratzera etorriko dira Repsoleko langileak azkenik. "Ea hamabost bat egun barru lehenengo herritarrek gasa daukaten etxean", esan digu itxaropentsu alkateak.

**BIGARREN FASEKO LANAK 2008AN**

Bigarren faseko lanak egitea onartu zuen udalbatzak urriaren 25eko osoko bilkuran. Eta joan zen egubakoitzeko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratu zuten lanak esleitzeko lehiaketa deialdia. 291.162 euro aurreikusi dute lanondako, eta sei hilabetetan bukatuko dituztelakoan daude: "Urtea bukatu aurretik esleituko ditugu lanok; ikusi egin behar zenbat enpresa aurkeztuko diren deialdira. Eta martxo edo apiril inguruan hasiko lirateke kaleak zabaltzen", azaldu digu alkateak. Hala, irail inguruan bukatzea gurako lukete Udaleko arduradunek, ezustekorik agertu ezean behintzat: "Gas-tangak martxan egongo dira ordurako, hortaz, Industria Sailaren baimenik ez dugu beharko eta bigarren faseko herritarrek bizkorrago izango dutela gasa etxean pentsatu gura dugu".

Gaserako hodiak sartzeko hainbat kaletan egin beharko dituzte lanak, baina gatzagarrei eragozpen handirik ez dizkietela sortuko uste du Villarrek.

## Dominagara bidea astean bukatu dute

Arlabango errepidetik Dominaga baserrira doan bidea konpontzen ibili dira azken hilabetean –porlana bota eta zabaldu–, eta bukatu dute. Aldundiak egin ditu lanok, eta alkatea pozik azaldu da: "Eskatutakoak bete ditu, urak hartzeko behar bezala jarri esaterako, eta beste hobekuntza txiki batzuk ere egin dituzte: ganaduarendako ura sartu". Basoko egurrak ateratzeko bertatik ibiliko dira orain, kamioiak.



M.A.

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

> FUTBOLA

### Bolada onari heldu dion Aloñak Anaitasunaren bisita izango du Azkoagainen (domeka, 17:30)

Zestoaren eta Idiazabalen kontra irabazita, Aloñak aurrea hartu die sailkapenean Mondrari eta Aretxabaletari. Izan ere, hori behar da preferentean bat batean gora egiteko: bi jardunaldi on. Hala, txantxikuarrak bolada on horri eusten ahaleginduko dira domekan hamabigarren postuan dagoen Anaitasunaren kontra.

Aretxabaletak ere etxean jokatuko du asteburuan, joan den astean Ondarroan ihes egindako garaipenak oraingoan behar du izan, Ibarran. Zumaiako izango da bisitari (13. postuan), 16:30ean.

Mondrari dagokionez, Arrasatekoek Berioren zelaian jokatuko dute bihar arratsaldean (16:00, Donostia). Azken partiduak ikusita, Gordobilen mutilek zortea apur bat behar dute aldeko.

> ESKUBALOIA

### Euskadiko Txapelketako talde indartsuena hartuko du Bergarak bihar (18:30)

Ligako kontrario gogorrenetakoa izango dute Josetxo Muniategiren mutilek bihar arratsaldean Labegaraietan. Barakaldo da liderra, jokatutako bederatzi partiduetatik zortzi irabazi eta bat berdinduta. Nagusitasunaren erakusle dira zenbaki horiek, baina ez dira inor kikiltzeko bestekoak. Bergarak dagoeneko erakutsi du aurrean dabiltzanei ezusteren bat edo beste emateko gauza dela. Hori bai, dena egin beharko dute ondo baino hobeto.

Ford Mugarrik ere etxean jokatuko du, oraingoan Musakolan (bihar, 19:30), zortzigarren postuan dagoen Portugaleteren kontra. Arrasatekoek bizkaitarrek baino lau puntu gehiago dituzte (10), baina hiru talde daude hamar punturekin berdinduta, eta aurrea izango litzateke onena.

> PILOTA

### Aitor Mendizabalek bihar jokatuko du DV Txapelketako finalaurdena, Elgetan

Bihar arratsaldean DV Txapelketako finalaurdenak jokatuko dituzte Elgetan –17:00etan hasita–, eta bertan lehiatuko da Aitor Mendizabal antzuolarra. Mendizabalek Jauregi bizkaitarrarekin batera jokatuko du, 18:00ak inguruan –bigarren partiduan–.

Ibai Bolinaga dagoeneko txapelketa horretako finalerdietan dago. Arrasatekoak abenduaren 5an jokatuko du finalerako txartela jokoan egongo den partidua. Lehenago, baina, badu hitzordu garrantzitsurik, eguaztenean, hilak 28, Baque Txapelketako finalerdietan izango da. Hain zuzen ere, DV txapelketako bikotekide Jaunarena izango du kontrario.



GOIENKARIA

### Arrasatek Santander hartuko du

Goiko kategoriara igotzea helburu duen Santander taldea izango da zapatuan Mojategin (17:00etan). Ondo sendotu dён taldea da Santander, hainbat fitxaketa eginda. Arrasatekoek, berriz, hortzak erakutsi dizkiete orain arteko kontrario guztiei, norgehiagoka askotan parean izan dira indarrak, baina garaipen gosez daude.

**Aitor Elkoro** > Pilotaria

# "Gu etorri ginen moduan badatoz beste batzuk atzetik, eta lekua egin behar zaie"

XABIER URTZELAI > ANTZUOLA

**Aitor Elkorok (Elgeta 1967) hilaren 30ean esango dio agur pilota profesionalari, egun horretarako gertatu du-eta enpresak agur-jaialdia. Hala ere, Antzuolan bizi den elgetarrak pilotan jokatzen jarraituko duela dio, "kirol apur bat egitearren". Elkorok onartu moduan, pilotan une gozo eta garratzak bizi izan ditu, baina lasai dago egun, badaki agur esateko ordua dela.**

**Uste baino gogorragoa izango da agur esatea, ala dagoeneko barneratuta daukazun ideia da?**

Bai, udan hasi nintzen kontu horri bueltak ematen, hausnartzen. Ikusten nuen enpresaren interesak beste batzuk zirela, atzelari talde polita daukatela eta nik egin beharreko lana dagoeneko eginda daukadala. Egia esateko, hilaren 30a nahiko egun gogorra izango da niretako, hunkigarria. Baina, argi daukat erretiroa hartzeko ordua iritsi zaidala.

**Dena dela, otsailaren 2ra arte zeneukan kontratua.**

Bai, baina negu partean jaialdiek behera egiten dute, eta astero-astero jokatuko banu seguruenik jarraitu egingo nuke, dinamika baten barruan zaudelako, sasoi onean eta motibatuta. Baina, hiru astean behin jokatzeko ez du merezi. Motibatuta egon behar zara hiru astean behin jaialdiko hirugarren partidua jokatu eta entrenatzen jarraitzeko.

Horregatik erabaki dut lehenago uztea. Esaterako, orain dela bi urte une gogorrak bizi izan nituen. Atzamar txikia apurtu nuen, eta min egin zidan horrek, ikusten nuelako oraindik jarraitzeko moduan nengoela. Orduan enpresak bi urterako luzatu zidan kontratua, baina orain ez zuen merezi otsailera arte jarraitzeak; gu etorri ginen moduan badatoz beste batzuk atzetik, eta lekua egin behar zaie.

**Aipatu moduan, pilotari batendako gogorra izango da jaialdiko hirugarren partidua jokatzea, pilotalekua hutsik dagoela ikustea.**

Niretako bai, urtetan ibili naizelako estelarrak jokatzen. Denborarekin, estelarrak jokatzetik lehenengo partiduak jokatzera pasa nintzen, eta orain hirugarren partiduak. Eta, guk ondo dakigu hirugarren partiduak azken atea izaten direla, horren ostean etxera joateko ordua dela.

Gazte batek, berriz, bestelako ilusioarekin jokatzen ditu hirugarren partiduak. Haren helburua da lehenbailehen lehenengo partiduak jokatzen hastea, gero estelarretara jauzi egiteko.

**Bizitzaren legea, esango dute askok.**

Bai, horrela da. Gu gazteak ginenean beste batzuk erretiratu ziren, Antxon Maiz... eta beste hainbat atzelarik utzi zuten pilota. Jokatzen gaudenean ematen du betirako izango dugula pilota, baina ez da horrela izaten. Egun bat iristen da, non, norberak ere etxerako bidea hartu behar duena.

**Badirudi lege horrek ez duela guztiondako balio. Titin ikustea baino ez dago.**

Nire edadekoa da hura, eta final baten atarian dago –bi pilotariek batera egin zuten debuta–. Batzuk agur esatera goaz, eta badirudi beste batzuk orain egin berri dutela debuta! Sekulako meritua dauka, finalerdietan maila oso oneko pilotariak gainditu ditu-eta.

Baina, Titinen moduko kasuak oso noizean behin gertatzen dira. Esango nuke Retegi izan zela aurrekoa, 42 urterekin Lau t'erdiko Txapela eskuratu zuena, Titinen kontra gainera. Eta orain Titin dago hor, 38 urterekin ikaragarrizko maila ematen. Gainera, aurten ez du lesiorik izan, eta ez du belauneko minik eta horrelakorik aipatu.



Hilaren 30ean jokatuko du Aitor Elkorok Asperekin

**Finalera begira, zein da zure faboritoa?**

Barriolak irtengo du faborito, ligaxkan ere hark irabazi zuelako. Baina, Barriolarendako final oso arriskutsua da, Titin edozertarako gauza delako. Gainera, Gasteizen jokatuko dute, eta pilotaleku hori aproposa da Titinendako, oso azkarra da. Badaezpada, final horretan nik ez nuke diru larregi jokatuko.

**Akaso, ez da zuzena hau galdetzea, baina, nork gura duzu irabaztea?**

Horrelakoetan nire enpresakoen alde egiten dut beti, baina oraingoan bi finalistak dira Aspekoak, lankideak ditut biak. Egia esateko, berdin zait nork irabazten duen, ez dut aukeraketa egingo. Pilotari handiak dira biak, txapelketa ederra egin dute, eta biek merezi dute txapela hori.

Hori bai, gauza bakarra eskatzen diet biei, final handia izan dadila, pilotarekiko zaletasuna sortzen duten horietakoa.

**Agur xumea izan dadila da enpresari eskatu diozuna.**



n azken norgehiagoka, eta etorkizunera begira, Elgetakoak pilotan jokatzen jarraitu gura du. JOSETXO ARANTZABAL

**"Finalerako Barriola da faboritoa, baina kontuz Titinekin. Nik badaezpada ez nuke diru larregi jokatuko; biek merezi dute txapela"**

**"Urte hauetan pilota dezente aldatu da, materialean batez ere. Gainera, orain telebistak agintzen du, ikuskizuna eman behar da"**

**"Uda partean hasi nintzen pilota uztearen gainean hausnartzen; enpresan atzelari talde polita dago, eta nik egin dut egin beharrekoa"**

**"Astero jokatuko banu, akaso, jarraitu egingo nuke, baina ez nago motibatuta bi edo hiru astean behin hirugarren partidua jokatzeko"**

**"Batzuk erretiroa hartzera goaz, eta badirudi Titinek orain egin berri duela debuta; sekulako txapelketa egiten dabil"**

**Abenduaren 2ko finala agur esateko eskenatoki ederra izango litzateke, bada.**

Ez, ez, hori larregi izango litzateke. Pilotalekua bete-beteta egongo da, eta behar baino presio handiagoa izango nuke. Gurago dut jaialdi bateko lehenengo partidua jokatu, eta agur esan.

**1992ko urriaren 5ean egin zenuen Gernikan debuta. Ordutik zer aldatu da pilotan?**

Denetik apur bat. Nik materialean igarri dut aldaketa gehien, eta baita jokatzeko moduan ere. Lehengo materiala apustuzaleei zegoen egokituta. Orduan eurak ziren agintzen zutenak, eta jokatzeko modua ere askoz serioagoa zen.

Gaur egun telebistak du garrantzia. Eta telebistak ikuskizuna eskatzen du: aurreko jokoa, errematea... Oraingo pilotariek lehengoek baino askoz ere gehiago arriskatzen dute jokoan.

**Lehen baino gorputzaldi hobearekin dago pilota, ala ez?**

Diferente esango nuke. Lehen oso pilotari onak zeuden, eta baita gaur egun ere, ikustea besterik ez dago Lau T'erdiko Txapelketako finalerdietan zelako maila egon den, oso partidu ikusgarriak jokatu dituzte.

**Egin dezagun denboran atzera. Zein da urte hauetan guztietan pilotan izan duzun unerik gozoena?**

Gozoena? Ez dakit, momentu onak eta txarrak bizi izan ditut, baina onak gordetzen ditut beti.

Bat aipatzearren, Buruz Buruko Txapelketan jokatu nuen finala. Finala bakarrik ez, txapelketa osoa, azken batean, finalean galdu egin nuelako Arretxeren kontra. Baina, ordura arte modalitate horretan ez nuen aparteko ezer egin, eta urte hartan txapelketa osoa egin nuen. Atze-atzetik hasi nintzen, lau partidu irabazi nituen, eta finalera iritsi. Gainera, Buruz Burukoa pilotari batendako oso txapelketa garrantzitsua da. Momentuan ez nion garrantzirik eman, baina gero konturatu nintzen zein beharrezkoa den pilotari batendako final bat jokatzea.

**Eta unerik garratzena?**

Hasierako urteak. Lehenengo debuta 19 urterekin egin nuen, Bergarako Enpresas Unidas taldearekin. Gauzak ez ziren gura moduan irten, eskuetako arazoak izan nituen eta profesional maila niretako ez zela erabakita, amateur mailara egin nuen atzera. Urte eta erdi inguru egin nuen goian, eta sasoi txarrak izan ziren, sufritu egin nuen orduan. Gero, 25 urterekin egin nuen berriro ere debuta, eta gaur arte.

**Amaitzeko, zorte onena geratzen zaizkizun bi partiduetan.**

Bai. Segovian jokatuko dut lehenengo –gaur izango da partidu hori, Valleladon. Eugik eta Elkorok Cabrerizoren eta Laskurainen kontra jokatuko dute– eta oraindik ez dakit hilaren 30eko jaialdian zeintzuk izango garen. Azken bi partidu hauetan gustura geratzea da gura dudana, bai neure buruarekin, bai enpresarekin eta baita zaleekin ere.

AITOR ELKORO, DATUTAN

## 1997an Arretxeren kontra jokatu zuen Buruz Buruko Txapelketako finala (22-18)

Debuta birritan egin duen pilotaria da Elkoro. Lehenengo Bergaran, 1987an, eta urte eta erdi makal ibili ondoren amateur mailara itzuli zen gero. Urte batzuk igarota, 1992ko urriaren 5ean, Gernikako Santanapen egin zuen bigarren debuta, oraingoan geratzeko. Asegarce enpresa sortu berriaren lehenengo pausoak ziren haiek

Kirol mailan, Atanon jokatu zuen Buruz Buruko Txapelketako finala izan zen kirol mailan egin zuen lorpen garrantzitsuenetako bat, baina ez bakarra. Orduan, 22-18 gailendu zitzaion Arretxe, baina txapelketako oroitzapen onak gordetzen ditu Elkorok –ligaxkako partiduan, errepaso galanta eman zion Eugiri–. Urtebete geroago, 1998an, egun kirol zuzendari duen Jokin Etxanizekin bikotea osatuta Binakako Txapelketako finalera iritsi zen; emozio handiko partiduan, 22-21 nagusitu ziren Unanue eta Errasti. 1999an Asegarce utzi eta Aspera joan zen, besteak beste, Titinekin batera. Orduan, enpresa bakoitzak bere txapelketa egiten zuen: Elkoro eta Olaizola I.a izan ziren bikoteka Aspeko onenak.




Aitor Elkoro. J.A.

**ATLETISMOA** > DONOSTIAKO MARATOIA

# Geroago eta korrikalari gehiago maratoian

Domekan egingo dute Donostiako 30. maratoia, eta tartean izango dira korrikalari debagoiendarrak. Behobia-Donostia lasterketan, askok maratoia zuten buruan

**X.U.** > BERGARA

Behobia-Donostia lasterketa amaieran, helmugan, korrikalari askok adierazi zioten GOIENKARIA-ri Donostiako maratoia prestatzeko asmoz joan zirela probara. Iritsi da ordua, bada. Domekan, 09:00etan, ia 3.000 lasterkarik –eguenean 2.700 korrikalarik zuten izena emanda– ekingo diote 42 kilometroko lasterketari.

Urtero moduan Anoetan hasiko dute maratoia, eta bertan egongo da helmuga. Ibilbideari dagokionez, aldaketarik ez: Anoetatik Alde Zaharrerako bidea hartuko dute, eta handik Kursaal ingurura. Itzulia emanda, berriro ere Alde Zaharra igaroko dute, eta Kontxa zeharkatuta Antiguokotik unibertsitatera bidea hartuko dute; hiru itzuli egingo dizkiote ibilbide horri.

Lasterketara begira, Abdelhadi el Moaziz da faboritoetako bat, eta antolatzaileen nahia da 30. urteurren hori errekor berri batekin biribiltzea. Orain arte, Timoty Cherigat keniarra izan da Donostian azkarrena (2:09:34). Hori hobetzea izango da Cherigaten erronka, eta marka hori gainditzeko beharrezko den erritmoan korrika egiten lagunduko diote Abdelkedir Lamachi-k, Al Mustapha Riyad-ek eta Rachid Nadij-ek.




**IKER LARREA** Antzuolarra 2005eko maratoiko irudian. ARTXIBOA

**GUREKOEN ARTEAN**

Ritxar Fernandez izan zen Behobia-Donostia proba entrenamendu gisa hartu zuenetako bat. Maratoiko erritmoan entrenatzera ohituta, Oñatikoak 1:05:56 segundotan geratu zuen erlojua. Ondo bidean, hura izango da gure ordezkari azkarrena. Ezin alde batera utzi Bixente Pagaldai bergararra, 30. aldiz Donostian.




ARIZMENDI IKASTOLA

## Arizmendiko bi talde Series Colegiales izeneko txapelketan

Estatu mailan, 5.000 neska-mutiko baino gehiago dabiltza ACB Ligak antolatzen duen Series Colegiales txapelketan parte hartzen. ACBrekin batera, hainbat talde dabiltza antolatzaile lanetan, eta horietako bat da TAU Baskonia. Eta Taurekin batera, ibarrean, Ointxe! kluba eta Eskoriatza ere laguntzaile lanetan dabiltza.

Hori horrela, Arizmendiko gizonezkoen (Dragons) eta emakumezkoen (Queens) taldeek gaur bertan jokatuko dute Gasteizen, Presentacion de Maria izeneko taldeen kontra. 18:00etan jokatuko dute neskek, eta 20:00etan mutilek.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Bigarren maila**
Reala-Malaga
Domeka. 19:00. Anoeta.

**Preferente maila**
Aloña Mendi-Anaitasuna
Domeka. 15:30. Azkoagain.

Berio-Mondra
Zapatua. 16:00. C. Benito.

Aretxabaleta-Zumaiako
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Lehen erregionala**
Urola-Bergara
Zapatua. 16:00. Argixao.

Antzuola-Oiartzun
Zapatua. 16:00. Eztala.

**Bigarren erregionala**
Aretxabaleta-Urki
Zapatua. 17:30. Ibarra.

Elgeta-Ikasberri
Domeka. 17:30. Unbe.

Zestoa-Mondra
Zapatua. 18:00. Iraeta.

Eibartarrak-BTLS
Zapatua. 17:30. Unbe.

**Ohorezko mailako gazteak, igoera fasea**
Aretxabaleta-Mariño
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Bergara-Vasconia
Zapatua. 15:30. Agorrosin.

**Ohorezko mailako gazteak, kopa eta jeitsiera**
Mondra-Beti Gazte
Zapatua. 16:00. Mojategi.

Orioko-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Mendibeltz.

**Lehen mailako gazteak**
Ikasberri-Aretxaba. B Arizm.
Zapatua. 17:15. Garmendipe.

Bergara
Atsedena.

**Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea**
Aloña Mendi-Real Sociedad
Zapatua. 11:30. Ibarra.

Lengokoak-Bergara
Domeka. 13:00. C. Benito.

**Lehen mailako kadeteak**
Bergara
Atsedena.

Aretxabaleta B-Arizmendi
Zapatua. 11:30. Ibarra.

Arrasate-Eibartarrak
Domeka. 12:00. Mojategi.

**Kadete Txiki**
Urola-Arrasate
Zapatua. 11:45. Argixao.

**Ohorezko mailako infantilak, txapeldunak**
Bergara-Añorga
Domeka. 11:30. Ipintza.

Lengokoak-Aretxab.Arizme.
Zapatua. 11:45. Cesar Benito.

**Ohorezko mailako infantilak, kopa eta jeitsiera**
Arrasate-Anaitasun
Domeka. 10:00. Mojategi

**Lehen mailako infantilak**
Aloña Mendi-Ilintxa
Domeka. 11:30. Ibarra.

**Emakumezkoen igora fasea**
BTLS-Ostadar
Domeka. 16:30. Ipintza.

**Emakumezkoen kopa**
Mondra-Mutriku
Zapatua.18:00. Mojategi

Arizmendi-Arizmendi B
Zapatua. 15:30. Almen.

Bergara
Atsedena.

**Emakumezkoen F8 Kadeteak**
Bergara
Atsedena.

**Emakumezkoen F11 Kadeteak, txapeldunak**
Arizmendi-Eibartarrak
Zapatua. 12:15. Almen.

**Emakumezkoen F11 Kadeteak, kopa**
Touring-Aloña Mendi
Zapatua.11:00. Orereta.

### ARETO FUTBOLA

**Euskadiko Txapelketa**
Eskoriatza-Kukuiaga
Domeka. 16:00. Intxaurtxue.

**Lehenengo maila**
Aloña Mendi-Bar Buenetxea
Zapatua. 18:45. Zubikoa.

**Hirugarren maila**
Tecnun-UDA Izotz
Gaur. 20:30. Donostia.

**Gazte maila**
Denak Pizzak-Aloña Mendi
Zapatua. 12:15. Tolosa.

### SASKIBALOIA

**Lehenengo maila**
Valsay Ardoy-Mondra. Unib.
Zapatua. 19:30. Zizur Mayor.

**Gipuzkoako ligako senior maila**
La Salle-Candy Bergara
Zapatua. 20:00. Salle.

**Gipuzkoako ligako senior maila (emakumezkoak)**
Ordizia-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Ordizia.

**Gipuzkoako ligako gazte maila, gizonezkoak**
Mondragon Uni.-Easo B
Zapatua. 10:00. Musakola.

Oiarso-Aloña Mendi
Domeka. 10:00. Pasaia.

**Gipuzkoako ligako gazte maila, emakumezkoak**
Bergara-Lasarte Oria
Zapatua. 18:00. Bergara.

Allerru-Eskoriatza
Domeka. 12:00. Lezo.

**Gipuzkoako ligako kadete maila, gizonezkoak**
Mondragon Unib.-Easo
Domeka. 11:00. Iturripe.

MU A-Krafft
Zapatua. 16:00. Iturripe.

Konde Pana.-Internacional
Domeka. 12:00. Bergara.

Take Billabona-M.U. C
Domeka. 12:00. Billabona

Aloña Mendi-Andraitz
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

M.U. B-Oiartzungo
Domeka. 11:00. Musakola

**Gipuzkoako ligako kadete maila, emakumezkoak**
Eskoriatza-Aldapeta
Domeka. 10:30. Intxaurtxu.

Antigua.-Arizmendi Esko.
Zapatua. 16:00. Donostia.

Añorga-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Donostia.

### ESKUBALOIA

**Euskadiko Txapelketa**
Ford Mugarri-Portugalete
Zapatua. 19:30. Musakola.

Bergara- Barakaldo
Zapatua. 18:30. Labegaraiet.

**Euskadiko senior mailako emakumezkoen Txap.**
Verkol Aloña-Construcciones
Zapatua. 17:15. Zubikoa.

**Lehen maila territoriala**
Eibarko-Arrasate
Zapatua. 17:00. Eibar.

**Bigarren maila territoriala**
BKL-Bergara
Domeka. 12:00. Beasain.

Aloña Mendi-Donibane
Domeka. 11:45. Zubikoa

**Gazte maila, gizonezkoak**
Arrasate-La Bacalera
Zapatua. 17:30. Musakola.

Rotula-Aloña Mendi
Domeka. 11:30. Ordizia.

**Gazte maila, emakumezk.**
Verkol Aloña-Groseko
Domeka. 10:30. Zubikoa.

Citroen Arrasate-Leizaran
Zapatua. 16:00. Musakola.

Verkol Aloña-Arrate
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

**Kadete maila, gizonezkoak**
Urnietako-Berezao Aloña
Domeka. 10:00. Urnieta.

Berezao Aloña-Bergara
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**Kadete maila, emakumezkoak**
Verkol Aloña Mendi-Bergara
Zapatua. 15:45. Zubikoa.

Verkol Aloña-Jauja
Domeka. 11:45. Zubikoa.

Bergara-Usurbil.
Domeka. 09:45. Labegara.

### ERRUGBIA

**Seniorrak**
Arrasate-Santander
Zapatua. 17:00. Mojategi.

**Emakumezkoak**
Arrasate
Atsedena

**Gipuzkoa mailako infantilak**
Ordizia-Arrasate
Domekan. 10:00. Ordizia.



**Kukuiaga taldea hartuko du Eskoriatzak**
Euskadiko Txapelketan bosgarren postuan dagoen Etxebarriko talde Kukuiaga izango da domekan Intxaurtxuetan (16:00).




**> KOMIKIA**
Mitologiari buruzko 'Numenak Alaba' komikia kalean da **> 45**

**> WEB BERRIA**
AHT Gelditu! Elkarlanak egin du gaurkotasuna lantzeko **> 51**

**> ASIER ALTUNA**
Arrasatearra desiratzen dago mendi tontorrak txurituta ikusteko; snowboard-a da bere zaletasun handiena. Surfa eta skatea ere gustuko ditu gazteak **> 50**



# 'El duo de la africana' zarzuela Amaia antzokian

Izaskun Murgia Lirika Elkarteak lau emanaldi egingo ditu bihartik aurrera

**A. ARANBURUZABALA** > ARRASATE

Martxoan ekin zion Izaskun Murgia Liriko Elkarteak *El duo de la africana* zarzuela prestatzeari; bada, heldu da entseguetan egindakoa erakusteko unea. Datozen bi asteburutan lau emanaldi egingo dituzte Amaia antzokian. Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, 19:30ean.

Manuel Fernandez Caballero musika egilea eta Migel Echegaray, letra egilearen El duo de la africana zarzuela komikoa aukeratu dute aurten. Tere Gonzalez, elkarteko zuzendariaren esanetan, aurreko urteekin egindakoekin antzekotasunik ez du: "Aurrekoak, finean serioak ziren, eta komikotasuna, pertsonaia batek ekartzen zuen taula gainera. Oraingoan, berriz, egoera bera da barregarria. Ikusleentzako gustukoa izango delakoan gaude, entseguetan barre asko egin dugu".

Elkarteko zuzendariak, hasiera baten *El barberillo de Lavapies* aukeratu zuen baina aurten, lan horretarako nahi zituen protagonistarik ez zuen. Joxean Garzia, Donostiako Sasibili elkartearen gomendioari kasu egin zion, euren emanaldia ikusi eta gero.

**ANTZERKIA ANTZERKIAREN BARRUAN**

*El duo de la africana*-k antzerkia antzerkiaren barruan, aspaldiko topikoa jasotzen du, opera zarzuelaren barruan kasu horretan. Querubini opera zuzendari mizkinaren taldeak, Meyerbeerren *Africana* lana egiteko dituzten zailtasunak ditu istorioak abiapuntu, baina tartean, istorio asko nahastuko dira, horien artean, amodiozkoak.

Amodiozko istorio nagusiko protagonistak, Querubini, La Antonelli eta Giusepini dira. Querubini (Igor Ganboa), enpresari mizkin eta jeloskorra, La Antonelli (Amaia Zubiria), operako tiplearekin ezkonduta dago. Giusepini, berriz (Tomas Aspe) konpainiako tenorea, opera abestea izugarri gustatzen zaion emakume zale amorratua da. La Antonelli, hau da, konpainiako ugazabaren emaztearekin maiteminduta dago. Operako entseguetan, Querubinik, emaztea eta tenorearen arteko harreman berezia sumatuko du eta horrek, tenorearekin tirabirak izatera bultzatu du. Harreman horretatik datorkio zarzuelari izenburua.> 44




PRESTAKETA LANAK Entsegu orokorrerako margotzen eta jazten ari dira abeslariak. TXOMIN MADINA.

# 'El duo de la africana' zarzuela Amaia antzokian

(43. orrialdetik dator)

Ez da hori baina, kontakizuneko amodiozko korapilo bakarra. Aurrez kontatutako amodiozko istorioa ordea, gehiago korapilatuko da, izan ere, konpainiako baxuari (Jose Luis Azkarate), Amina (Marian Agirre), Querubiniren alaba gustatzen zaio; baina Amina berriz, Giusepini tenorearekin dago maiteminduta. Dena dela, ezin da esan, *El duo de la africana* amodiozko istorio hutsa denik.

**TAULA GAINEAN DAUDENAK**

Hamabi dira, protagonistak; horien artean, batzuk berriak dira lan horretan eta beste batzuk, berriz, aurrekoetan ere izan dute horren ardura. Gehienek abestu eta antzeztu egingo dute, beste batzuen lana ordea, antzeztera mugatzen da.

Protagonistak dira: Querubini (Igor Ganboa), La Antonelli tiplea (Amaia Zubiria), Giusepini tenorea (Tomas Aspe), Amina, Giusepiniren alaba (Marian Agirre), Perez (J.R. Mendizabal), baxua (Jose Luis Azkarate), Serafina, Giusepiniren ama ( Dorita Murgia), inspektorea (Felix Ayala), piano jolea (Eduardo Arzamendi), abeslariak (Cristina Cubillo eta Araceli Telletxea), eta dantza irakaslea (Jon Aranbarri).

Protagonistekin batera, taularen gainean abesbatza ere badago; 40 lagunek osatzen dute zarzuela horretako abesbatza. Izaskun Murgia Lirika Elkarteak egingo duen zarzuelaren bertsioan, abesbatzak jatorrizko bertsioan baino kantu gehiago ditu; izan ere, zarzuelaren iraupena komeni zena baino laburragoa denez, Elkarteak luzatu egin behar izan du.

**100 LAGUNDIK GORA LANEAN**

Zarzuelan parte hartzen dutenak, ez dira baina taula gainean dauden kideetara mugatzen; 100 lagunetik gora parte hartzen dute eta Elkarte Lirikoaren zortzigarren lan horretan. Horien artean, aurrez aipatutako musikariekin batera, Alberto Saez Puentek zuzendutako Arrasate Musikaleko orkestra dago. Aurrekoetan moduan, oraingoan ere, 40 kide inguruk osatzen dute.

Horrez gain, asko dira kontuan hartzeko izen eta lanak: Mertxe Salaberri, eszena zuzendaria; Felix Amozarrain, Jabi Burgos eta Juan Mari Amozarrain dekoratu egileak, jostunak, makilatzaileak eta Andoni Zubiagan argi arduraduna, beste batzuren artean.

**DEKORATUAK ETA JANTZIAK**

*El duo de la africana* zarzuelaren istorioa, 1915.urtean kokatuta dago eta jantziak dira, besteak beste, garaiaren ispilu. Horrela azaldu du Mertxe Salaberri, eszena zuzendariak: "Istorioak bi une ditu eta horregatik, bada, arropa ezberdinak erabiltzen dituzte. Lehenengo eszenan, opera prestatzeko entseguan daude, beraz, garaiko kaleko arropekin daude. Bigarren eta hirugarrenean, berriz, Meyerbeerren *Africana* operaren antzezpenean daudenez, operan duten paperaren araberako jantziak dituzte, hau da, erdi aroko jauntxoen arropak dituzte batzuk, eta beste batzuk berriz, afrikarrak dira".

Dekoratuei dagokionez, eszena bakoitzak berea duela gaineratu du Salaberrik, beraz hiru daude: "Lehenengoa, entsegu gela sinple bat da, aulkia, pianoa eta Querubiniren mahaia daude. Bigarrena, eszenatokiko atzealdea da eta hirugarrena, berriz, deigarriena, antzezten duten operaren eszenatokia da. Nire ustez, hiruetatik, deigarriena da".

**HARRERA ONA**

Elkarteko kideak gustura dira orain arteko sarreren salmentarekin. "Astelehenean Amaia antzokiko takila arratsaldean zabaldu bagenuen ere, eguerdiko ordu batean dagoeneko batzuk ilara egiten zeuden" azaldu du Tomas Aspek.

Sarrerak eskuratzeko badago oraindik aukerarik; egunero, abenduaren 1era arte, 18:00-20:00 ordutegian.


'ELDUO DE LA AFRICANA' Zarzuelako une bat. TXOMIN MADINA

ZARZUELAKO KIDEAK

## "Entsegu lokalarena, urteroko arazoa den arren, aurten larriago ibili gara"

Arrasateko Elkarte Lirikoko zuzendaria da, elkartea hastapenetatik. Zarzuela guztiak zuzendu ditu. Ikuslegoaren gustuko obra aukeratu dutelakoan dago: "komikotasunaz gain, mugimendu asko du eta abesbatzaren zatiak ere oso politak dira".

Entseguetarako izan dituzten trabez ere jardun du: "Entsegu lokalarena, urteroko arazoa den arren, aurten larriago ibili gara. Hiru bat tokitan izan gara. Dekoratuekin entseatu ahal izateko toki bat behar dugu. Udalarekin lehenbailehen akordio bat lortzea nahiko genuke".


**Tere Gonzalez**
Elkarteko zuzendaria

## "Ikusten den guztiaren ardura dut: dekoratuak, jantziak, abeslarien mugimenduak..."

Zarzuela guztietan parte hartu duen arren, bigarren urtez izan du eszena zuzendariaren ardura. "Zarzuelan ikusten den guztia dago nire ardurapean, hau da, abeslarien mugimenduak, dekoratuak, jantziak... Aurrez diseinua egin behar da, ondoren jantziak eta dekoratuak egin, horretarako sekulako taldea dut inguruan".

Ahalegin handia eskatzen dion arren, gustuko du Salaberrik eszena zuzendariaren lana. Urduri dagoela aitortu du. Ikuskizunetan, eszenatokiaren atzean izaten da, guztia gidatzen.


**Mertxe Salaberri**
Eszena zuzendaria

## "Zarzuelarako prestaketa, Behobia Donostia lasterketarenarekin konparatuko nuke"

Lirika Elkartearen lehen zarzuelan parte hartzera ez zen ausartu, baina emankizuna ikusitakoan izugarri gustatu zitzaion, animatu eta harez gero, gainontzeko zazpietan izan da. Oraingoan, Querubini enpresaria izatea egokitu zaio. Gustura dago protagonista paperarekin, lehengo aldia da, baina lan asko eskatzen duela aitortu du: "Prestaketa, Behobia Donostiarekin konparatuko nuke, martxoan hasi eta ikuskizunaren egunera arte gogor egin behar da-eta lana".

Momentuz, lasai dagoela esan du, baina ikuskizunaren egunean ez dela horrela egongo uste du".


**Igor Ganboa**
Querubini

## "Emankizunaren eguna noiz helduko desiratzen nago; asko gustatu zait aurtengo zarzuela"

Querubiniren emaztea, La Antonelli tiplea izatea egokitu zaio. Bitxikeria moduan, taula gainean senarra duena, bizitza errealean ere horrela du.

Elkartearen hirugarren zarzuela *(Gavilanes)* izan zen Zubiriarentzako lehenengoa; harez gero, seitan parte hartu du. Bakarlari moduan, badu esperientzia, *Luisa Fernanda* eta *La Leyenda del beso* zarzuelatan, besteak beste. Oraingoa, orokorrean, gustuko duela esan du, entseguetan barre asko egin du. Ikuskizunaren egunerako lasai dagoela esan du: "horrenbesteko lanaren ostean, desiratzen nago eguna noiz helduko".


**Amaia Zubiria**
La Antonelli

**KOMIKIA** > 'NUMENAK' TRILOGIAREN BIGARREN ALEA

# 'Numenak Alaba' komikia dagoeneko kalean da

Unai Busturia eta Julen Rivas arrasatearrek mitologiari buruzko Numenak trilogiaren bigarren atala argitaratu dute; lehenengo aleak arrakasta izan du

**A. ARANBURUZABALA** > ARRASATE

Julen Rivas eta Unai Busturia Arrasateko marrazkilariek euskal mitologia oinarri duen *Numenak Alaba* komikia argitaratu berri dute. Trilogia baten bigarren atala da; 2005ean kaleratu zuten *Numenak Aita* komikiaren jarraipena da.

2003.urtean ekin zioten Rivas eta Busturiak *Numenak* proiektuari. Istorioa mamitu eta Durangoko azokara joan ziren argitaletxeekin negoziatzera. Saure argitaletxeari ideia gustatu eta Numenak, hau da, gaueko izpirituak protagonista dituen komikiaren lehen atala bi urtera argitaratu zuten, Durangoko azokarako. Bigarren atala ere kalean da dagoeneko; aurrekoa moduan euskaraz eta gaztelaraz argitaratu dute. Lehenengo aleak izan zuen arrakasta ikusita, ale gehiago argitaratu dituzte oraingoan.


**'NUMENAK ALABA'** Busturia eta Rivas egindako lan berriarekin. UNAI BUSTURIA

**IRA NESKATOA, PROTAGONISTA**

Lehenengoan moduan, bigarrenean ere, Ira neskatoa eta pertsonaia mitologikoak dira istorioaren protagonistak. Hain justu, trilogia abiatzen da, Ira neskatilaren lagunak desagertzen direnean. Ira, lagunen bila hasiko da orduan, eta bilaketa horretan mitologiako pertsonaiekin elkartuko da. Bigarren atalean Irak bilaketa horretan jarraituko du, oraingoan Harrespilen laguntzarekin. Iraren zeregina izango da Alaitz lur azpiko erreinutik libratzea, baina horretarako Mari aurkitu beharko dute. Hala, Pirineotara joango dira, iraganean inkisizioak triskatutako mitoz eta sorginez betetako lurraldera.

Komikia egiteko, aurreko prozesua jarraitu dute: istorioaren gidoia, hau da, oinarrizko marrazkiak edo *story boarda*, Busturiak egin du. Gero, Rivasek, arkatzez, izaera eman die pertsonaiei eta oro har, marrazkiak finkatu ditu. Bukatzeko, Busturiak, ordenagailuz koloreztatu egin ditu.

**HARRERA ONA**

Egileak gustura dira komikiak orain arte izan duen harrerarekin: "Interneteko blogetan gure lanaren kritika oso onak irakurri ditugu. Horrez gain, HABE aldizkarian, *Numenak Aita* alea kapituluka argitaratzen dihardute. Poztekoa da gure lana euskara ikasteko tresna erabilgarria izatea", azaldu du Busturiak. Hirugarrena ere lantzen hasi dira.

**MUSIKA**

## Espaloian izango da Ruper Ordorika

Hilaren 25ean, 20:00ean, igoko da Ordorika Espaloiako taula gainera

**M.A** > ELGETA

Oñatiko Musikari Ruper Ordorika, Elgetako Espaloia Kafe antzokiko agertoki gainean ikusi ahal izango da domekan, 20:00etan; bere ondoan lagun izango du, Jon Piris kontrabaxu jotzailea. Azken diskoa, *Memoriaren mapan* deitua oinarri hartuta, hainbat abesti eskainiko dituzte. Baina azken diskoko abestiak soilik ez, beste sasoi batzuetako abestiak ere joko dituzte Elgetako Espaloian.

Euskal Herritik kanpo ibili da azken boladan Ordorika, besteak beste, Ingalaterran. Han, *Sei euskal poeta* delako jaialdian hainbat kontzertu egin ostean, gogoz bueltatu da etxera.






Bergarako 90 ume eta gaztetxo arituko dira domekan Jam aretoan egingo duten Kantari ikuskizunean; azkenekoa izango da

**MIREN ARREGI** > BERGARA

Joan den domekan egin zen bezala, domeka honetan ere, Bergaran egingo dute Debagoienean Kantari karaoke ikuskizuna. Jam aretoa abestoki eta dantzatoki bihurtuko da domekan, han erakutsiko baitute Bergarako ume eta gaztetxoek abesten eta dantzatzen duten abilezia. 90 ume eta gaztetxo arituko dira Bergaran Kantari ikuskizunean, guztiak ere, bergararrak. 16:30ean hasi eta 20:00ak bitartean igoko dira gaztetxoak Jam aretoko oholtza gainera, eta, domekako saioarekin, guztira, Goiena Telebistak lau saio ekoiztuko ditu.

Bergarako Jam aretora joaten direnek entzungo dituzten kantuen artean honako hauek daude: Ken Zazpi-ren *Ilargia*, Oskorriren *Katuen Testamentue* eta *Furra Furra*, Pirritx eta Porrotxen *Maite Zaitut*, Zarama-ren *Iñaki*, Alaitz eta Maider-en *Amets bat*, Hertzainak taldearen *Aitormena*, edotа Sorotan Bele-ren *Atalaia*. Domeka honetakoa, Kantari ikuskizuneko azken saioa izango da, beraz, Bergarako saioarekin emango zaie amaiera grabaketei eta datorren martitzenean hasiko dira Goiena Telebistan saioak eskaintzen. Antolatzaileek nabarmendu dute, jendetza handia bildu zela joan den domekan Bergarako Jam-en, eta hasieratik oholtzaren inguruan egon zirela guztiak, haur eta gaztetxoei animuak ematen. Ia aste honetan ere hala den.

EGITARAUA

**> NON**
Jam aretoan.
**> NOIZ**
Azaroaren 25ean.
**> ORDUA**
Arratsaldean, 16:30etik 20:00etara.
**> TALDEAK**
Guztira 90 ume eta gaztetxo igoko dira oholtza gainera oraingo domekan, 24 taldetan banatuta. Guztiak ere bergararrak dira.

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

**Bergara:**
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua.
- Martoko 92 $m^2$. Prezio ona.
- Osintxu 80 $m^2$. Berritua.
- Ibargarai. 40 $m^2$. Berria.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua.
- Zubieta 75 $m^2$. Txokoarekin.
- Iraburu 84 $m^2$. Terrazarekin.
- Zubieta 60 $m^2$. Prezio ona.
- San Juan. Bifamiliarra.
- Zubiaurre 70 $m^2$. Berritua.
- Martoko 53 $m^2$. Prezio ona.

**Antzuola:**
- Buztinzuri 76 $m^2$. Prezio ona.
- Aiherra 123 $m^2$. Duplexa.

**Elgeta:**
- San Roke 90 $m^2$. Berritua.
- Salbador 90 $m^2$. Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**
- Artekale, 82$m^2$, ondo
- Artzamendi, 80 $m^2$, oso ondo
- Zabalotegi, 80 $m^2$, ondo
- Ibargarai, 80 $m^2$, oso ondo
- Artekale, 70 $m^2$, oso ondo
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua
- Ibarra, 130 $m^2$, aukera ona
- Zubieta 70 $m^2$, ondo
- Matxiategi, 65 $m^2$, ondo
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin
- Aranerreka, 87$m^2$, ondo
- Bidekurutzeta, duplexa, berritua
- San Anton Abad, 70$m^2$, oso ondo
- Etxebizitza berrien eraikuntza Madura, Masterreka eta Zubiaurren.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83$m^2$, berria

**ANTZUOLA**
- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 60 $m^2$. Bi gela, egongela, bainugela, sukalde-jangela, despentsa, berogailua. Berrituta eta jantzita. Oinezkoendako aldean. 198.300 euro. 679 80 18 80.

**Aretxabaleta.** Berritua. 79 metro koadro. Sukaldea, egongela, 3 logela, komuna, 2 balkoi eta ganbara ditu. Altzariz hornitua. Berogailua eta igogailua. Loramendi kale inguruan dago eta argitsua da. Prezio interesgarria. Telefonoa: 635 75 83 43 edo 665 70 41 29.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai, Otalora 2, azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun, bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

**Arrasate.** Duplexa salgai Otalora kalean, Arrasate erdialdean. Egongela, bi logela, sukaldea, bi komun eta 20 $m^2$-ko terraza. Etxe nahiko berria (12 urte). 696 79 43 89.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai erdialdean. Eraikin berria. 94,50 $m^2$. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Igogailua eta berogailua. 686 24 97 48.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. San Andresen. 57 metro koadro. Guztiz berritua. Bi logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Kanpoaldera begira. Igogailua eta sotoa. 620 15 12 12.

**Arrasate.** Grupo San Juanen etxea salgai. Eguzkitsua, 60 $m^2$. Igogailua, ganbara eta sotoa. 619 25 46 69.

**Arrasate.** Malvinetan. Hiru logela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta ganbara handia. Bodega eta garajea. Ikuspegi ederrak eta eguzkitsua. 330.000 euro. 685 70 78 03.

**Arrasate.** Zerrajera kalean. 110 metro koadro. Hego-mendebaldera begira. 945 15 40 22.

**Arrasate.** Zigarrolan etxebizitza salgai. 53 $m^2$. 3 logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Altzariekin. Guztiz berritua eta oso egoera onean. 615 75 96 36.

**Bergaran** Duplex motako (pisua+ganbara) etxebizitza berria (6 urte), 125 $m^2$: sukalde ekipauta, 2 logela (beste 2 egiteko aukera), 2 bainugela, jangela handia, trasteroa, 3 balkoi, gas naturala, igogailua, parabolika. Garaje plaza itxia aukeran.943532681. 943 53 26 81 edo 699 49 14 14.

**Bergara.** Aranerrekan etxebizitza salgai. 75 $m^2$, 3 gela, egongela, 2 bainugela, sukaldea, terraza, ganbara eta berokuntza zentrala. 665 71 48 30.

**Bergara.** Etxea salgai herri erdian. 70 $m^2$, bi logela, berogailua eta igogailua. Telefonoa: 629 15 79 29.

**Bergara.** Etxea saltzen dut, Simon Arrieta plazan. Hiru logela, egongela handia, sukaldea, komuna eta bi balkoi ditu. Dena kanpora begira. 299.900 euro. 635 73 87 55.

**Bergara.** Ganbararekin duplexa egindako etxebizitza berritua salgai. Berogailuarekin eta guztiz jantzita. 50 $m^2$. 186.000 euro. Negoziatzeko prest. Telefonoa: 656 75 12 16.

**Bergara.** Ibarra kalean etxebizitza salgai, berritua eta bizitzeko gertu. Berogailua. Jantzita. Bikote eta pertsona bakarrarendako oso egokia. 50 $m^2$. 186.000 euro. 635 71 04 55.

**Bergara.** Zabalotegiko dorrean. Guztiz jantzita. Hiru logela. Telefonoa: 690 68 37 88.

**Elgeta.** Etxebizitza salgai, bigarren solairua. Igogailua dauka, hiru gela, sukaldea, komuna eta ganbara. Aukera onean hilabete honetan. 137.032 euro (22.000.800 pta). 645 71 76 25.

**Gasteiz.** Txagorritxu inguruan etxebizitza salgai. Bi logela, egongela-jangela, sukaldea eta bainugela. Berogailua eta igogailua. Bista onak. Telefonoa: 630 57 70 99.

**Nafarroa.** Urederra inguruan bi solairuko etxea salgai. 123 metro karratu. Berritua. 185.000 euro. 943 76 00 03.

**Oñati.** 120 $m^2$-ko duplexa salgai. Herri erdian. Bizitzera sartzeko moduan. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 420.000 euro. 676 39 36 93.

**Oñati.** Duplexa salgai eraikitzen diharduten etxebizitzan. Lehen eta bigarren solairuak. Garajea eta trastelekua dauzka. 670 85 85 41.

**Oñati.** Etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. Jantzita eta bista politekin. Hiru gela, bi bainugela, egongela, estudioa, bi terraza, sukaldea eta garaje itxia. Telefono honetara deitu ezazue: 652 74 08 30.

**Oñati.** Kale zaharrean 100 $m^2$-ko etxea salgai. Hiru logela, ganbara terrazarekin. Telefonoa: 657 79 43 29.

**Oñati.** San Lorentzon, eguzkitsua. Hiru gela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta ganbara. 312.000 euro. Garaje itxia aukeran (20 $m^2$). 656 74 80 47.

**Oñati.** Zubillaga auzoan. 79 $m^2$. Hiru logela, sukaldea, sala, komuna eta ganbara. 41 miloi, negoziagarriak. 635 71 41 39 edo 943 08 13 25.

**Soraluze.** Etxebizitza salduko nuke erdialdean: hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Egoera onean. 168.284 euro. 687 08 33 00.

**Torrevieja.** Guztiz jantzita. 67 metro karratu. Prezioa adostu daiteke. 671 60 82 81.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Arrasate erdian. 65 $m^2$, berrituta, bikote batendako aproposa. Deitu ezazue telefono honetara: 630 22 27 86.

**Arrasate.** Etxea errentan ematen dut Erguin auzoan. Telefono: 635 73 04 63.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen dut errentan, erdialdean. Ikasleendako. Deitu ezazue telefono honetara: 646 45 64 13.

**Arrasate.** Logela bat errentan ematen dut sukalderako eskubidearekin. Neska bada hobe. 300 euro. 696 11 01 94 edo 943 79 82 43.

**Benidorm.** Etxebizitza ematen da errentan Benidormen, hondartzatik gertu. 941 21 63 80 edo 656 18 85 02.

**Bergara.** Boni Laskurain kalean. Eguzkitsua, altzariekin. 628 26 65 77.

**Gesalibar.** Hiru logela, sukaldea, komuna eta egongela. Telefono: 943 79 80 70.

GAES
Entzumen Zentroa
LIDERRAK ENTZUMENEAN
PERTSONALA
BEHAR DU ARRASATEKO ZENTRORAKO
- Lanean berehala hasteko
- Formazioa enpresaren kontura
- Ordainsari malgua (finkoa + komisioak + ezarritako helburuak + pizgarriak)
- Euskaraz jakitea ezinbestekoa
Curriculum-a eta gaur egungo argazkia bidali ondoko helbidera:
210 Posta Kutxa • 20570 BERGARA • miren@multioptinet.com

BERGARA
Zerbitzaria behar da esperientziarekin.
943 76 30 86

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxe bat alokatu nahi dugu, lau pertsonarentzako. Presazkoa. Ainhoa. Telefonoa: 943 71 20 80.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan hartuko genuke. Deitu ezazue telefono honetara: 686 69 41 40.

**Arrasateko neska batek** etxea errentan hartuko luke, Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. 699 06 31 76.

**Oñati.** Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan. Telefonoa: 655 70 30 37.

### 105. ETXEAK OSATU

**ARRASATE** lagun baten bila nabil etxebizitza osatzeko. 200 euro hilabetero, aukera oso ona, unibertsitatetik gertu. Telefonoa: 652 73 46 19.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabiltza. 636 05 36 18.

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabiltza. 636 05 36 18.

**Legazpi.** Itxaropen auzoan. Logela bat alokatzen da pertsona batentzat; emakumezkoa nahiago dut. Mesedez, deitu 18:00etatik aurrera. 649 92 19 48.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Santa Kruz kaleko 27an garajea saldu edo errentan ematen da. Telefono honetara deitu: 630 46 36 71.

**Bergara.** 37 metro koadroko garajea salgai Zubiaurren. 606 65 97 81.

**Oñati.** Garajea salgai, Kale Zaharrean. 657 79 43 29.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Uarkapen garaje itxia errentan ematen dut. 110 euro hileko. Deitu ezazue telefono honetara: 699 49 14 32.

**Arrasate** Garajea itxia errentan. Unibertsitatearen ondoan. Deitu ezazue telefono honetara: 943 79 39 56 edo 669 07 14 17.

**Oñati.** Errekalde auzoan. Ibilgailuendako soilik. Deitu ezazue telefono honetara: 616 71 53 29.

ARRASATE
Zerbitzaria behar da. Esperientzia izan behar du plantxan.
679 16 42 70

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Koadrilentzako lokalak alokatzen dira. Tamaina askotarikoak. 943 76 11 21.

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Aldi baterako edozein lanetarako gertu. Bai goizez zein arratsaldez. Telefonoa: 616 32 90 12.

**Arrasate.** Emakumea gertu egunean bi orduz garbiketak egiteko.Rosi. Deitu ezazue telefono honetara: 943 77 16 01.

**Arrasate.** Emakumea prest dago nagusiak gauez zaintzeko. Baita garbiketa lanak egiteko tabernа edota elkarteetan. Esperientziaduna. 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**Arrasate.** Lan bila dabilen mutila naiz: zerbitzari, iturgin laguntzaile, margolari edota sukaldeko laguntzaile moduan jardun dezaket. Baita pertsona nagusiak zaintzen ere. Telefonoa: 666 75 73 21.

**Bergara.** Emakumea gertu adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 660 78 00 73.

**Bergara.** Emakumea gertu adineko pertsonak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 628 55 90 42.

**Bergara.** Emakumea gertu haur eta nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. 639 02 00 81.

**Bergara.** Emakumea gertu sukaldari laguntzaile, garbiketa lanak eta adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko. Telefonoa: 628 52 34 06.

**Bergara.** Emakumea gertu sukaldari laguntzaile, garbiketa lanak eta adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko. Telefonoa: 664 38 49 76.

**Bergara.** Emakumea lanerako gertu. Esperientzia daukat pertsona nagusiak eta haurrak zaintzen. 618 93 59 29.

**Bergara.** Mutil gaztea igeltsero eta arotz lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. 671 06 16 91.

**Bergara.** Mutil gaztea igeltsero eta arotz lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Deitu telefono honetara: 671 06 16 91.

**Bergara.** Pertsona bat gertu arratsaldeetan etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 650 17 74 87.

**Debagoiena.** Emakume gaztea lan egiteko gertu. Telefonoa: 688 64 64 26.

**Debagoiena.** Emakumea gertu adinekoak edo haurrak zaindu nahiz garbiketa lanak egiteko. Gauez edo egunez orduka. 695 74 05 54.

**Debagoiena.** Mutil gaztea lan egiteko gertu. Deitu ezazue telefono honetara: 688 65 33 01.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Elektroteknia eskolak jasoko nituzke. Deitu 19:00etatik aurrera. Deitu ezazue telefono honetara: 626 32 04 72.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. Deitu ezazue telefono honetara: 943 79 03 83.

**Eskoriatzan** DBHko 4. mailako eskola partikularrak emateko pertsona bat behar da. 635 74 34 55.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**BMW** F 650 GS motorra salgai. 2.500 kilometro ditu, bi urte eta hainbat osagarri. Oso egoera onean dago. 6.400 euro. Telefonoa: 636 85 74 43.

**Benimar autokarabana** salgai. 5000 ld, 127 zaldiko Fiat Dukato 2,8 motorra, kaputxina, 6 pertsonarentzako. 1999koa, guztiz hornitua, 23.000 euro. Telefonoa: 635 71 41 39.

**Citroen C4** Coupe beltza salgai. 138 ZP. Diesela. 55.000 km. Estra guztiak. Oso egoera onean. 13.000 euro. Deitu ezazue telefono honetara: 627 93 55 74.

**Ford Transit** Conect furgoneta salgai. TDCI 90 ZP. Zuria. 2003koa. 90.000 eta 100.000 kilometro artean. 10.300 euro. Deitu ezazue telefono honetara: 699 37 15 11.

**Ford Transit** salgai. 9 plazakoa. 65.000 kilometro. 2004. urtekoa. 13.200 euro. Deitu ezazue telefono honetara: 656 77 32 86.

**Honda Civic 1.5I LS** urdina salgai. 114 ZP, 3 ate eta 98.000 km. Prezioa: 5.000 euro. Telefonoa: 661 68 28 98.

**Jeep Wrangler.** 147 ZP, 2003koa, beltza, oso egoera onean. Ez da mendian erabili eta ikuskapen guztiak pasa ditu. 14.000 euro (negoziagarria). 679 10 95 23.

**Ktm 250SX.** 2006. urtekoa. Egoera onean. Deitu ezazue telefono honetara: 699 15 84 48.

**Ktm 125sx Krosera** salgai, egoera oso onean. Konpromiso barik proba daiteke. 605 75 54 57 edo 943 76 38 87.

**Nissan** Terrano (II). 55.000 km. Oso egoera onean. Beti garajean gordeta. 652 72 15 56.

**Renault Clio** RL 1.1, SS-AL, Gurpil berriak, 58.000 km, 500 euro. 665 72 66 58.

**Renault Megane** Coupe salgai. 1997koa. 161.000 kilometro. Oso egoera onean. 2.500 euro. 665 71 48 30.

**Seat Toledo** turbodiesela salgai. Aukera ona. 700 euro. Telefonoa: 639 96 29 51.

**Suzuki** Vitara 2.0 hdi, egoera onean. 647 29 93 44.

**Volkswagen California** salgai, 1996koa. 189.000 km. Estrak: aire girotua, estalkia, lau bizikleta eramatekoa, CDa lau bozgolairurekin. Ez da TDI. 14.000 euro. 636 28 00 07.

**Volkswagen** California Tdi 102 ZP furgoneta. 95.000 km. 2001ekoa. 27.000 euro. Telefonoa: 649 34 82 92.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Debagoiena.** 2 urteko zaldi arabiarra salgai, kartarekin. 647 64 02 81.

**Debagoiena.** Behor bat salgai, gainean ibiltzeko balio duena. Deitu ezazue telefono honetara: 616 00 34 29.

**Euskal artzain txakurrak** salgai, 15 astekoak, iletsuak. Arrazadunak, artzaintzarako edo lagun egiteko ezin hobeak. Telefonoa: 605 70 04 75.

### 703. EMAN

**Artzai txakurkume** emea oparitzen dut. Hiru hilabete ditu. Deitu ezazue telefono honetara: 606 21 10 71.

### 704. BESTELAKOAK

**Debagoiena.** Txakurrak edo animaliak zaintzeko gertu nago. Animalien tratuan eskarmentua daukat. Deitu ezazue telefono honetara: 670 43 16 52.

**Setter ingeles** arrazako txakur emea galdu zen azaroaren 10ean Hiruerreketa inguruan, Araba eta Gipuzkoa arteko mugan. 10 hilabete ditu, zuria da eta belarrietan pintta gorriak ditu. Norbaitek ikusi badu, mesedez deitu. 943 79 73 12 edo 685 72 46 86.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Lur Hiztegi** Entziklopedikoa salgai. 1993koa, prezioa adostu egin daiteke. 655 74 41 60.

**Automobilerako** umearendako eserlekua salgai. Deitu ezazue telefono honetara: 943 79 41 31.

**Autorako jarlekua.** Umeendako. Baby-Confort. 0-15 kilo. 50 euro. Deitu ezazue telefono honetara: 647 10 48 00.

**Autorako** bi bozgorailu. 60 euro. Estreinatzeko. Deitu ezazue telefono honetara: 617 13 17 51.

**Baserritar blusa.** 7-9 urteko bitarteko mutiko batentzako. Deitu ezazue telefono honetara: 943 79 41 31.

**Biola** berri-berria salgai. Yamaha VV7 (15). Deitu arratsaldez edo gauez. 686 54 28 98.

**Citroën C15** autoarentzako elurretarako bi gurpil saltzen ditut. 80 euro. Deitu ezazue telefono honetara: 630 60 90 53.

**Egurrezko sehaska** bat eta bidaian joateko beste bat saltzen ditut. Umeendako motxila ere salgai. 635 73 27 84.

**Errepideko bizikleta** salgai, Zeus etxekoa, 56 neurrikoa. Shimano 105. Egoera onean dago. Sigma BC 800 abiadura neurgailua oparitzen dut. Telefono: 667 08 93 09.

**Gitarra** elektrikoa salgai. B.C. Rich. Warlock modeloa. Anplifikatzailea ere salgai. Marshall. Berriak dira. 679 21 35 07.

**Hozkailua** salgai. Gasarekin, bateriarekin edo elektrizitatearekin doa, 12 w-koa. 200 euro. Deitu ezazue telefono honetara: 630 60 90 53.

**Jaioberriendako** sehaska bat salgai. 2004koa. 150 euro. Deitu ezazue telefono honetara: 679 25 80 12.

**Mahai obalatua** salgai. 1,36x0,90 cm, luzagarriekin. 200 euro, negoziagarriak. Deitu ezazue telefono honetara: 617 17 15 88.

**Mahaia.** Egongelako mahai bat salgai. 90x90 neurrikoa. Gereziondo kolorea dauka eta kristalezkoa da. Berria. 99 euro. Deitu ezazue telefono honetara: 653 72 22 54.

**Michelin Pilot Primacy** 4 pneumatiko-estalki salgai. 205/55 R16. 1.000 km. Deitu ezazue telefono honetara: 606 94 35 50.

**Ordenagailua,** AMD-athlon 2200. 100 gigako disko gogorra dauka, 500 mb RAMean, 17 hazbete, 350 euro. Deitu ezazue telefono honetara: 630 60 90 53.

**Playstation.** Playstation 2 eta bolantea salgai. Bost joku eta memoria txartela opari. 150 euro. Deitu ezazue telefono honetara: 649 54 45 93.

**Teleskopioa** salgai. Astrolan markakoa. 402ko potentzia. 943 79 41 31.

**Torlojutzeko puntak** salgai. Prezioa adostu egin daiteke. 685 71 39 85.

**Ume aulkia** salgai, autoan umeak garraiatzekoa. 943 79 41 31.

**Ume-kotxea.** Mutsy-Urben Rider. 120 euro. 647 10 48 00.

**Ume-motxila.** Deiter-Baby-City. 30 euro. 647 10 48 00.

### 803. EMAN

**Komikiak** ematen dira. "*Cimoc*", "*Zona84*", "*Totem*" eta "*Vibora*". Aretxabaleta. 600 80 18 41.

### 806. GALDU

**Bergara.** Azaroaren 1ean, arratsaldean, DS kontsola galdu nuen poligonoko ziburuetako bidean. Eskertuko da. Telefonoa: 617 21 34 23.

**Bergara.** Urrezko eraztuna galdu nuen Martoko eta Espoloia bitarteko bidean. Eraztunak "Elisa 2-10-63" inskripzioa dauka. Eskertuko da. 659 77 01 71.

**Oñati.** Azaroak 19an Olakua auzoan panpin bat galdu zen, untxi bat Trudi markakoa, eskertuko da. Deitu ezazue telefono honetara: 666 55 41 12.

**Zilarrezko eskumuturrekoa** galdu nuen azaroaren 9an Arrasaten, Uarkape eta Arbolapeta artean. "Aritz" eta "Maria del Carmen" izenak grabatuta dauzka. Balio sentimentala. Telefonoa: 687 36 02 58.

### 807. AURKITU

**Nokia poltsikoko** telefonoa aurkitu dut Untzillako elkartean. Aretxabaletako Udaltzaingoan dago. 943 71 18 63.

### 808. BESTELAKOAK

**Ugarrixa elkarteak** bazkideak behar ditu Bergaran. Hileko kuota bakarrik ordaindu behar da. Deitu ezazue telefono honetara: 609 59 19 23.



Arrasateko **Sabino Nafarrate** eta Aramaioko **Ines Ormaetxea** 1957ko azaroaren 23an ezkondu ziren. Urrezko ezteiak ospatzeko, meza izango dute 12:30ean Arrasateko San Franziskon eta, ondoren, bazkaria egingo dute familiarekin. Zorionak bikote!



**Bixente Markuleta** eta **Luisa Ruiz de Muniain** oñatiarrak 1947ko azaroaren 27an ezkondu ziren. Hori dela-eta, 60. urteurrena ospatuko dute bihar, familia guztiarekin Oñatiko Urtiagain jatetxean. Etxekoen partetik, zorionak eta muxu handi bat!



**Felix Beitia** eta **Maria Isabel Ugarteburu** 1982ko azaroaren 26an ezkondu ziren, Arraten. Bihar, zapatua, zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte familiarekin Itziarko Salegi jatetxean. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik! Zorion-tsuak izan, bikote!

II. URTEURRENA

## Bittor Garai Txintxurreta

Bigarren urteurreneko meza
domekan, azaroaren 25ean,
12:00etan,
Musakolako San Isidro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko.

IV. URTEURRENA

## Juan Mari Aizpurua Agirre

'Kaku'

*Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan*



Zure lagunak.
Bergaran, 2007ko azaroaren 23an.

URTEURRENA

## Modesto Etxeberria Arregui

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, azaroaren 24an,
19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiangeruaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Jose Lasaga Solaguren

**Arrasaten hil zen 2007ko azaroaren 14an, 85 urte zituela.**

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2007ko azaroaren 23an.

ESKER ONA

## Tomas Basauri Aranzabal

'Iturri baserrikoa' - Berrio (Elorrio)

**Elorrion hil zen 2007ko azaroaren 16an, 67 urte zituela.**

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko azaroaren 23an.

ESKER ONA

## Manoli Varona Fuentes

Antonio Fernandezen alarguna (Tejidos Fernandez)

**Bergaran hil zen 2007ko azaroaren 18an, 88 urte zituela.**

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2007ko azaroaren 23an.

ESKER ONA

## Iñaki Etxebarria Ibabe

**Iruñean hil zen 2007ko azaroaren 16an, 54 urte zituela.**

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Garagartzan, 2007ko azaroaren 23an.

ESKELA

## Iñaki Etxebarria Ibabe

**Iruñean hil zen 2007ko azaroaren 16an, 54 urte zituela.**

*Herri Gaineko zure lagunendako,
beti gogoan.*



Herri Gain elkartea.
Arrasaten, 2007ko azaroaren 23an.

ESKELA

## Iñaki Etxebarria Ibabe

**Iruñean hil zen 2007ko azaroaren 16an, 54 urte zituela.**

*Nahiz eta handia izan zuk utzitako
hutsunea, saiatuko gara,
zure oroitzapen alaitsuarekin betetzen,
Iñaki laguna, betiko guretako "Ape".*



Zure koadrilako lagunak.
Arrasaten, 2007ko azaroaren 23an.

ESKELA

## Pedro Zumelaga Ozaeta

**Arrasaten hil zen 2007ko azaroaren 17an, 93 urte zituela.**

*Zu joan zara, baina zuk emandakoa
gurekin geratzen da.*

GOIENAk bat egiten du
senideen saminarekin.



Arrasaten, 2007ko azaroaren 23an.

MEZA

## Jose Antonio Aranburu Agirre

**Oñatin hil zen 2007ko azaroaren 9an, 77 urte zituela.**

Haren arimaren aldeko meza zapatuan,
azaroaren 24an, 19:30ean,
Oñatiko Agustinoen elizan.
Bertaratuko zaretenoi, aldez aurretik
eskerrik asko sendikoen izenean.
–
*Eskerrikasko zure kemena ta maitasunagatik
Zure emaztea, seme-alabak eta bilobak.
Mila esker momentu hauetan gurekin
egoten zareten guztioi.*



Oñatin, 2007ko azaroaren 23an.

Babeslea:
OROILORE
Hileta eta beilatoki zerbitzuak
Momentu txar horietan sortzen diren
galdera, kezka eta arazo guztiei
aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da
Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76
Zerbitzua Debagoiena osorako

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Nahian
Altzoa
Funtsa
* Irudiko fruitua
Afrikako estatua
Sobera
Ehun zati hamar
Inguru
Berriketa
Galga
Biziki
Pl., gurdi mota
Potasioa
Marka
Pinu mota
Eraikuntza makinak
Bokala
Interjekzioa
Jupiterren satelitea
Bokala
Jainko egiptoarra
Multinazional ezaguna
Bizkaieraz, gabe, barik
H2O
Röntgen
Ez emea

GOIENKARIA

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 6 | | 3 | | 9 | | | |
| | | 3 | | | 2 | | | 9 |
| | 9 | | 5 | | 7 | | | 6 |
| | 4 | 7 | | | | | 8 | |
| | | | | | | | | |
| | 1 | | | | | 4 | 3 | |
| 2 | | | 4 | | 8 | | 5 | |
| 4 | | | 2 | | | 6 | | |
| | | | 1 | | 6 | | 2 | |

## hieroglifoa

Noiz hasten da lanean ?

TAST

## hizki salda

Euskal Herriko 5 abeslariren izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | O | T | S | I | R | A | V | E |
| N | R | A | I | C | H | K | M | L |
| E | E | G | A | A | A | O | R | K |
| D | T | A | A | T | N | O | I | A |
| L | I | D | Y | O | E | E | N | M |
| A | N | K | L | A | B | E | O | O |
| H | O | G | E | N | I | A | R | H |
| U | S | M | T | O | T | O | L | A |
| D | D | I | E | U | T | F | D | M |

## soluzioak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | O | T | S | I | R | A | V | E |
| N | R | A | I | C | H | K | M | L |
| E | E | G | A | A | A | O | R | K |
| D | T | A | A | T | N | O | I | A |
| L | I | D | Y | O | E | E | N | M |
| A | N | K | L | A | B | E | O | O |
| H | O | G | E | N | I | A | R | H |
| U | S | M | T | O | T | O | L | A |
| D | D | I | E | U | T | F | D | M |

**Jeroglifikoa:** Asteartean
AS T artean

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 6 | 4 | 3 | 1 | 9 | 8 | 7 | 2 |
| 7 | 8 | 3 | 6 | 4 | 2 | 5 | 1 | 9 |
| 1 | 9 | 2 | 5 | 8 | 7 | 3 | 4 | 6 |
| 3 | 4 | 7 | 9 | 6 | 1 | 2 | 8 | 5 |
| 8 | 2 | 5 | 7 | 3 | 4 | 9 | 6 | 1 |
| 6 | 1 | 9 | 8 | 2 | 5 | 4 | 3 | 7 |
| 2 | 7 | 6 | 4 | 9 | 8 | 1 | 5 | 3 |
| 4 | 5 | 1 | 2 | 7 | 3 | 6 | 9 | 8 |
| 9 | 3 | 8 | 1 | 5 | 6 | 7 | 2 | 4 |



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | N | | M | | M |
| | | | M | A | G | A | L | A |
| | | | | H | A | M | A | R |
| | K | | B | I | Z | I | R | O |
| B | A | L | A | Z | T | A | | K |
| | L | E | R | | A | | I | O |
| G | A | R | A | B | I | A | K | |
| | K | A | N | O | N | | U | R |
| B | A | K | O | | A | R | R | A |



## bono fotoa



**Biak bando berekoak izan arren, Bergarako torre honetako Gabiriatarrek liskar ugari izan zituzten Ozaetarrekin XVI. mendera arte. Zer ziren biak, Ganboatarrak ala Oinaztarrak?**

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar

Super BM
Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA ...........
IZEN-DEITURAK...........
TELEFONOA...........

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Siglo ardo gorri eta beltza
3,50 €
Hiru eramanda, bakoitzak 2,33 €
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Aretxabaletako **ALBINA ERRASTI**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Aurreko galderaren erantzun zuzena: Leintz-Gatzagakoa.**



# Jatetxe Gida






## Azpeitxi jatetxea

Aranerreka 13 / BERGARA
943 76 55 00

**Eskaintza**
- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

**Berezitasuna**
- Arraina eta haragia parrillan

**Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan afaririk ez.**



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-aldejatetxea.com

**Eskaintza**
- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Astelehenetan itxita**



## Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

**Txinatar jatetxea**

**Eskaintza**
- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

**Eguneko menua eta karta**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

**Astelehenetan itxita**



## Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

**Eskaintza**
- Menua
- Afari informalak



## Torrekua

Ibargarai 37 / BERGARA
943 76 50 99

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

**Berezitasunak**
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak



## Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

**Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**

**Asier Altuna** > Tabernaria, eta taulazalea

# "Arrasaten jarri duten skate gunea dohainik izan beharko litzateke"

Bere lagunen laguna, zabala eta bere airera pozik bizi den horietakoa da Asier. Jende gutxik ezagutzen du bere izenez, *Txokito* deitzen diote gurasoen Txoko tabernako txikiena izatearren. Desiratzen dago mendi tontorrak txurituta ikusteko, snowboard-a baita bere zaletasun handiena, NBA liga, familia, surfa eta skatea ere bere bizitzaren zati handia dira.










GOIENKARIA

MAIER URANGA > ARRASATE

**Itxuragatik edo arrazoi gabe albokoa kritikatzen ibiltzen direnak, ez ditu begiko Asierrek. Bizitza guztia darama tabernari lanetan, kaleko psikologia lagun duela.**

**Dituzun zaletasun guztien artean bat aukeratzekotan, zein?**

Duda barik *snowboard*-a egitea, uretan ibiltzea ere gustuko dut baina gehiago elurra. Emakumeak baino gehiago akaso. (barreak).

**Nolatan hasi zinen kirol hau praktikatzen?**

Orain 7 edo 8 urte hasi nintzen snowboard-ari ematen. Aurrez elurretara joandakoa nintzen, baina eskiatzera. Lehenengoz snow taula hartu nuenean, berriz errepikatuko ez nuela uste nuen, eta berriz skiak hartu. Hala ere, hurrengo urtean etxea hartu genuen alokairuan elurretan, eta sarriago ibiltzeko aukera nuenez, amaierarako erabat kateatuta bukatu dut.

**Elur estazio guztietan daude snow guneak?**

Ez, baina geroz eta gehiago daude. Aurten Formigalen ari dira egiten; ea gehiago egiten diren! Atzerrian, snow guneak estazioko parte dira. Inguruan lortu diren hobekuntzak gainean egon garelako izan da.

**Denboraldia elurretan pasatzeko etxea alokatzea, gurean ohitura bilakatu da. Zuk ere hartu izan duzu.**

Bai, aurten Saint Laryn, Frantzian hartu dugu. Lagunen artean alokatuz gero, ez da garesti irteten. Lanean dabilen edonoren eskura dagoen denborapasa dela uste dut.

**Zein ezberdintasun dago, etxea Frantzian edo Espainian hartu?**

Frantzian etxearen alokairua eta *forfait*-a merkeagoak diren arren, bizitza maila garestiagoa da. Eta poliziak ez gaitu Espainian beste nekatzen.

**Aurten badirudi egin duela elurra mendian, dagoeneko. Ze aurreikuspen dago?**

Aurreko urtean baino gehiago egingo duela uste da; elur asko botata ere, nik gehiago egitea nahi.

**Snow-boarder bezala profesionala izatea posible da?**

Egon den profesional bakarra Iker Fernandez izan da. Atzerritarren maila berdinean bizitzen, bera bakarrik ibili da. Ezin ditzakegu gure baliabideak atzerrikoekin parekatu. Hemen jende oso ona dago, baina inork gutxik dauka aukera klasetik edo lanetik irten eta elurretara joateko, Finlandian, berriz, bai.

**Hala ere, bizitza guztia tabernako barra atzean pasatu duzu.**

Bai, gurasoen Txoko tabernan hasi eta gaur egun Iluntz taberna eramaten dut lagun batzuekin. Taberna eta elurra izan ditut lagun beti... Elurretan zabaldu beharko dut taberna!

**Elurrik ez badago eta jai izanda?**

Skate-a hartu eta kitto! Bestela itsasora ere bai, hara ere taularekin. Uste dut egiten dudan guztia, taulaz lagunduta egiten dudala.

**Arrasaten ez daukagu hondartzarik, baina badago skate egiteko tokirik?**

Arrasateko kiroldegian badago horretarako jarri berri duten pista bat. Oso ondo dago gainera. Baina zentzurik ez duten arau mordoa bete behar dira bertan ibiltzeko. Kaskoa derrigorrezkoa da, eta joan nahi dugun bakoitzean ordaindu beharra daukagu. Gehiegikeria iruditzen zait, segurtasuna gaztetxoekin zaintzea ados, baina adin batetik aurrera badakigu noraino eta nola babestu. Eta dohainik beharko luke izan, ordutegi finkorik gabe.

**Bidaiatu ere egiten duzu.**

Gustuko dut, bai. Toki bakoitzak bere magia dauka: Argentinako jendea eta dituen paraje naturalak, Egiptoko ikusgarritasuna, New Yorken aniztasuna... Leku guztiak dira ikustekoak. Kanadan edo Japonen, oraindik izan gabe naiz. Eta etxetik gertu ere, Laga edo Hossegor, esaterako, *pasote* dira.

**Bideoak editatzen ere ibiltzen zara ezta?**

Bai, gustuko dut, baita argazkilaritza ere. Egin ditudan lanak beti izan dira lagun artean, dibertsio bezala soilik.

**NBAko jarraitzaile sutsua zaitugu.**

Orain gutxi hasi da liga eta sarri goizeko ordu txikietan jokatzen duten arren, jarraitu egiten dut, bai. Cleveland Cavaliers taldeko 23. zenbakia, LeBron James jokalaria dut gustuko.

## PERTSONALA

**Herria:** Arrasate. **Gorrotatzen duzu zerbait:** Kritikatzearren, edozein kritikatzen duena. **Maniaren bat:** XXXL arropa. **Liburu bat:** *El arte de la guerra*. **Disko bat:** 2 Pac-en edozein. **Juergarako toki bat:** Ezagutzeko dago oraindik. **Lasai egoteko toki bat:** Itsaso aurrean autoarekin. **Elurretara joateko toki bat:** Whistler (Kanada) edo Alaskako edozein. **Amets bat:** Alde batetik bestera mundua ezagutzen ibiltzea, inongo buruhausterik gabe. **Esaldi bat:** Izan zu zeu beti.


eu - es - fr
AHT gelditu! ELKARLANA
HASIERA NORGARA IBILBIDEA BERRIAK AGENDA AUZOLANA
Decálogo a favor del AVE y en contra del trazado de la 'Y' »
« Elorrio acogerá en breve una consulta popular sobre el Tren de Alta Velocidad

**Bergarako AHTren aurkako asteburuan irratsaio berezia eskainiko du Txapa irratiak**

Gaztesarea Azaroaren 22, 23 eta 24an izango da AHT-ren aurkako asteburua, Bergaran. Egitarau oparoa antolatu dute Bergarako AHTren aurkako taldeek, mendi martxa eta antzerki saioak, besteak beste.

Txapa irratia:

Bergarako AHT-ren aurkako taldeak Azaroak 22,23 eta 24an antolatu duen AHT-an aurkako asteburua dela eta irratsaio berezia egingo dugu Azaroak 21 Asteazkena gaueko 22:00etan. AHT-an proiektua nola dauan azalduko digute eta noski asteburuko ekintzen berri ere bai.

**AHT-ren aurkako asteburua Bergaran**

**Egitaraua:**

**Azaroak 21 Asteazkena** 22:00etan **irratsaio berezia** TXAPA irratian FM 97.25ean.

EUSKARAZ Elkarlanaren webguneko hizkuntza nagusia euskara da, baina espainola eta frantsesa ere erabiltzen ditu. GOIENKARIA

**INTERNET** > WEBGUNEAK

# AHT Gelditu! Elkarlanak webgunea egin du, gaurkotasuna lantzeko

AHTren eta haren aurkako mugimenduaren inguruan dauden albisteak, aurreikusita dauden mobilizazioak eta beste eduki asko batzen ditu guneak

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

AHT Gelditu! Elkarlana Interneten dago; izan ere, talde horrek webgunea aurkeztu du oraingo astean, *www.ahtgelditu.org* helbidean, hain zuzen ere.

Webgune horretan, Elkarlanaren eta, oro har, Abiadura Handiko Trenaren eta haren aurkako mugimenduaren denetariko edukiak batu dituzte.

Edukiak euskaraz, espainolez eta frantsesez irakur daitezke, aukeran, baina albisteak jatorrizko hizkuntzan agertzen dira.

**BOST ATAL**

Bost atal nagusitan antolatu dituzte edukiak: hasierako orriaz gain, Elkarlanaren gaineko informazio atala, AHTren ibilbidea erakusten duen atala, Berriak, Agenda eta Auzolana. Horiez gain, sarrera-orrian, modu laburrean eta argazkiz eta loturaz aberastuta, AHTren gaineko gaurkotasuna lantzen da: mobilizazioen berri ematen da –besteak beste, biharko Bergaran antolatu duten AHTren aurkako egunaren eta Arrasaten abenduaren 15ean egingo den nazio agerraldiaren aipamenak daude–, egitasmoaren inguruan hedabideetan agertu diren albisteak batzen dira, herri taldeketen gaineko berriak ere badaude… Desjabetza prozesuak bere atala dauka, eta, horretan ere, gaurkotasunari kasu egiten zaio albisteak argitaratzeko.

Ibilbidearen gaineko atalak berezitasun bat du: Google Earth programaren bidez, Nafar Korridoreko ibilbidea ikus daiteke.

**DOKUMENTAZIOA ETA LOTURAK**

Horrez gain, AHTren inguruko dokumentazioa batzen da. Dokumentu horiek euskaraz eta espainolez, bietara, ipintzen dituzte arduradunek.

Azkenik, loturen tartean, Euskal Herrian dauden AHTren aurkako taldeen webguneetara loturez gain, komunikabideetara, argazki webguneetara eta Euskal Herritik kanpo Abiadura Handiko Trena ipini nahi duten herrialdeetako aurkako mugimenduen webguneetara loturak daude.

## teknologia berriak

> GPS-A

### Asus R300, arina eta eramangarria

Asus enpresak GPS berria kaleratu du, R300 modeloa. Modelo berri hori arina da, 1,38 zentimetrotako lodiera dueta 140 gramoko pisua. Prestakuntzen artean nabarmentzekoa da 3,5 hazbeteko pantailaren argiztapen egokia lortzeko sentsorea duela. Horrekin batera, FM igorlea du. Igorle horrek autoaren audio sistemara aginduak bidali eta gidatzeko argibideak han entzun daitezke.

MicroSD eta Mini USB txartelak erabiltzen ditu. Salneurria eta kaleratze data zehaztugabe daude.



Sakelekoak eskuak erabali gabe erabiltzeko aukera ematen du.

> ARGAZKI KAMERA

### Muturreko egoeratan argazkiak ateratzeko

Divinning 300 da Energy Sistem enpresaren argazki kamera sendoa, guztiz murgilgarria eta karkasa gehigarri gabe 10 metroraino urperatu daitekeena. Hondartzako harea eta lokatzak ez dio kamerari kalte egiten. Muturreko egoeratan argazkiak ateratzeko gai da, gainerako kamerak erraz izorratuko ziren egoeratan, hain justu. Sei megapixel, SD txarteletarako erretena, bi hazbeteko pantaila eta argazkiak egiteko sei eszena modu ditu, horietako bat urpekoa, ur azpian argazki hobeak ateratzeko. Salneurria 179 euro.



Sendoa, murgilgarria eta karkasa gehigarri gabe urperatu daiteke.

> MARKO DIGITALA

### Argazkiak ikusteko 17 hazbeteko marku digitala

PhotoVu enpresak 17 hazbeteko argazkientzako marko digitala aurkeztu du.

Markoaren pantaila LCD TFT (1280x800) da. Argazkiak atera diren kalitatearekin ikusteko aukera ematen du. Akats txiki bat du: gehienez zortzi megapixeletako bereizmena onartzen duela.

Argazkiak ikusteko programa on-line argazki zerbitzuekin eta RSS iturriekin bateragarria da.

Konektibitateari dagokionez WiFi eta USB erretena ditu. Salneurria: 476 euro.



Markoa gure beharretara egokitu daiteke hainbat material eta koloretan.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

www.goiena.net/blogak
/aebpn /aiastui /aretxargi /argi-plastik /arregi /atai /azkarate /bastida /briz-aseguruak /BZ-sistemas /bolusukaldeak
/denetik /dragon-oriental /dukiena /ego /ekilore /ekin /elejalde /ezkutuorly /galgorri /gallastegi /ganesha /garaia
/gertu /gorkataxi /gurea /guztizeder /hamaika /itxaseder /irudisport /ixaun /izeder /jracing /joseba /lamaino-etxeberri
/lorelan /korozabaleta /kizkur /markiegi /maulanda /mayte /merkeopari /multiopticas /ohiak /ogizun /okipark /otzeta
/pando /puerta-ingles /richimaier /tabernaberri /udalaitz /urdeki /ugartearotza /urbieta /urko /vitoria /zainduz /ziripot

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net



## berriak

> 'HARMAILATIK'

### Elgetako pilotari Aitor Elkoro izango da 'Harmailatik' saioan

Hilaren 30ean, agur esango dio Aitor Elkorok pilota munduari eta Xabier Urtzelai *Harmailatik* saioko aurkezlea harekin izango da, horren garrantzitsua den une batean. Ibilbideari gainbegirada bat eman eta erretiroaren gainean berba egingo dute.

Bestalde, Kirol arloak asteburuan utziko duenaren gainean ere arituko da Urzelai, astero bezala. *Harmailatik*, astelehenean 21:15ean.

> PIRRITX ETA PORROTX

### 'Eskerrik asko!' ikuskizuna ikusteko sarrerak banatuta

Irati Unamuno eta Allison Garcia arrasatearrak dira Pirritx eta Porrotx pailazoen *Eskerrik asko!* ikuskizuna ikusteko sarrera bina eskuratu dituztenak.

*Eskerrik asko!* ikuskizuna bihar izango da, Eskoriatzako kiroldegian, 17:30ean. Debagoieneko haurrak irrikitan daude dagoeneko ikuskizunerako. Irati Unamunok eta Allison Garciak harreran izango dituzte sarrerak.

> ARRASATE IRRATIA

### Sexologia eta gazteen kontuak, hamabostean behin gure irratian

Txoko berria estreinatu dugu Arrasate Irratian; astero-astero, Garibai etxera joko dugu hango zerbitzuek eskaintzen duten informazioaren bila. Batetik, Larraitz Arandok, Udal Sexologia Zerbitzuko arduradunak gidatuko gaitu sexologiaren bueltan sortzen diren gai eta kontuetan. Bestetik, Dorleta Kortazar Udal Gazte Bulegoko arduradunak gazteei zuzendutako edukia landuko du gure irratian.

> ARRASATE IRRATIA

### Sukaldaritzako bi liburu, datorren astean opari

Sukaldaritzako bi liburu zozkatuko ditugu datorren astean: Eva Argiñanoren *Delicias para hacer en casa* eta *Cocina para dos*, Ramon Roteta, Bruno Oteitza eta Enrique Fleischmann sukaldariekin; bi liburuak dira Karlos Argiñanoren Bainet editorialak bidalitakoak. Zozketarako galdera bati erantzun behar zaio: *Zein da Arrasateko txokorik kuttunena?*. Erantzunak 943 71 17 31 telefonoan edo *irratia@goiena.com* helbidean.

**'ILUNPEAN'** > EGUBAKOITZA, 22:15

# Marino Lejarreta-rekin egongo da Iker Barandiaran

Berriz -en jaio zen Txirrindulari profesional ohiak, hainbat garaipen eskuratu ditu

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Duela 50 urte jaio zen Marino Lejarreta, Berriz-en. Maisutza teknikoa ikasi zuen, baina txirrindulari profesional izateko aukerak zituela ikusirik, txirrindularitzari ekin zion. 1979 eta 1992 urte bitartean aritu zen profesional mailan eta 52 garaipen lortu zituen urte horietan Lejarretak. Txirrindularitza aspaldi utzi bazuen ere, doan tokira doala, jende guztiak ezagutzen du Lejarreta. Bizikletaz gain, mendia eta eskiatzea ditu gustuko eta bete duen amets bat, seme bat izatea dela dio. Iker Barandiaran harekin izango da.



**MARINO LEJARRETA** Goienkariarako egindako argazkian. IKER BARANDIARAN

**'KANTARI'** > MARTITZENEAN ETA EGUENEAN 20:15

# Martitzenean hasiko da Goiena Telebista, 'Kantari' ikuskizuna eskaintzen

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Domekan Bergarako Jam aretoan azkeneko kantari ikuskizunak grabatu ostean, datorren martitzenean eta eguenean eskainiko ditu Goiena Telebistak *Kantari*-ko lehen saioak. Martitzenean, hilak 27, Oñatiko Gaztelekuan grabatu zuten lehen saioa eskainiko dute, eta eguenean aldiz, Eskoriatzako HUHEZI fakultateko aretoan grabatutakoa,han Aretxabaletako ume eta gaztetxoak grabatutako emanaldia eskainiko dute. Martitzen eta eguenetan eskainiko dira saioak Goiena Telebistan, eta herriak txandakatzen joango dira; hau da, datorren astean Oñatiko eta Aretxabaletako haurren txanda den bezala, hurrengoan, Eskoriatzako gaztetxoena eta Bergarakoena izango da. Hala, egingo dituzte emisioak, herriak txandakatuz, Kantariko ikuskizunekin grabatu dituzten 28 saioak eskaini arte.

*Asteleheneko Goienkariak*, saioen gaineko xehetasun gehiago ekarriko ditu astero, bere orrietan. Heldu da garaia, gure gaztetxoak akzioan ikusteko.

## telebegi

**Edu Mendibil** > www.goiena.net/blogak/edu

### Zorakeri dibertigarria

Fedearen eta kreditu txartelen antzera, umorea gauza pertsonal eta besterenezina da. Barrea kutsakorra ere bada; halere, gerta daiteke norbera barrez lehertzen egon eta ondokoak hienaren *rictusa* erakustea (edo aldrebes). Telebistaren helburu sanoetako bat badirudi barrea piztea dela, nahiz eta askotan emaitza hutsaren hurrengo izan.

Eguazten gauean zorakeri dibertigarri batekin topo egin nuen: *Muchachada Nui*, Joaquin Reyesen saioa, aurretik Paramount Comedy katean ikus zitekeen *La hora chanante*-ren jarraipena. Estetika ederrarekin eta elkarrizketa eta egoera absurdoekin, momentu paregabeak ditu: Tita Cervera eta Rocotocloc, La leyenda de perro muchacho, Enjuto Mujamuto, Los Klamstein marrazki bizidunak... Felix Linaresek zera frogatu zuen martitzenean: Francoren sasoian jatorrizko elkarrizketak aldatzen zituztela zentsoreek (*Casablanca* edo *La dama de Sanghai* filmak ekarri zituen gogora). Oraingo errekurtsoetako bat (*Muchachada*-ko *Lost Continent/Mundo viejuno* sailean moduan) zera da: antzinako irudiei (eta Franco berari, *Noche Hache*-n) elkarrizketa zoroak gehitzea. Eskerrak Francok ez duen burua altxatuko.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Marino Lejarreta, *Ilunpean* saioan, *Danbaka.com* eta *Kantari* saioetako musika kontuak, hirugarren adinekoen gainekoak *Zaharrak Berri* saioan eta beste.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik eguaztenera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Elkarrizketak
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31
*irratia@goiena.com*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia.
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak.
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 23**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Ur eta lur. **14:15** Animalia. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ikusmira. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Musikantoi. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Teknopolis. **18:15**Ikusmira. **18:45**Albisteak. **19:15** Erreportajea . **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Gertutik. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Musikantoi. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Klip 28. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 24**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Ikusten. **12:00** Astekoak. **12:15**Ikusten. **12:30** Erreportaia **13:00** Eltze beroa **13:30** Gertutik. **14:00**Erreportajea. **14:30**Berbaire. **15:00**Eltze beroa .**16:00** Kirolari. **16:30** IIlunpean. **17:00** Marrazki bizidunak. **19:00**Animalia. **19:30**Klip@. **20:00**Ur eta lur. **20:30**2x2. **21:00**Berbaire. **21:30** Erreportajea. **22:00**Gipuzkoako bertso txapelketa Eskoriatzan .**22:30**Dantza sueltoa. **23:30**Ilunpean. **00:00**Erreportajea. **00:30**Musikantoi. **00:30** Emisio amaiera.

**Domeka, 25**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. **11:00**Kirolari. **11:30**Musikantoi. **12:00**Ur eta lur. **12:30**Berbaire.**13:00**Eltze beroa. **13:15**Ikusten. **13:30**Animalia. **14:00**Dantza sueltoa . **15:00**Bertsoak. **15:30**Errepoetajea. **14:00**Berbaire. **16:30**Marrazki bizidunak. **19:00**Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea. **21:00** Musikantoi. **21:30**Animalia. **22:00** Astekoak. **22:00** 2x2. **23:00** Teknopolis.**23:30**Ilunpean. **00:00** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera

**Astelehena, 26**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea-Ttipi TTapa. **14:15**Eltze beroa. **14:45**Berriak. **15:15**Ilunpean **15:45** Gaurkoak. **15:47** Berbaire.**16:15**Animalia. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Hitz bitan. 1**8:15**Ikusten. **18:45**Berriak. **19:15** 2x2. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea. **22:15** Kirolari. **22:45**Berriak. **23:15**Harmaillatik. **22:45**Gaurkoak. **23:30**28 Klipa. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena, 27**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Horry.**13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea. **14:15** Harmaillatik.**14:45**Berriak. **15:15**2x2. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Kirolari. **16:15**Eltze beroa **16:45**Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47** 28 Klipa .**18:15**Musikantoi. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak: Horry. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Berbaire **22:15**Animaliak. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusmira. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Erreportajea. **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena, 28**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Kantari. **14:15**Eltze berioa. **14:45**Berriak. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Animaliak. **16:15** Teknopolis. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**2x2. 1**8:15**Harmailatik. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak. **19:45**Berriak. **20:15** Zaharrak berri. . **20:45** Berriak. **21:15** Hitzbitan. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Zu kazetari. **22:15**Ur eta lur. **22:45**Berriak. **23:15** Teknopolis. **22:45**Gaurkoak. **23:30** Jazmina. **00:15**Emisio amaiera

**Eguena, 29**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Zaharrak berri. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Marazki bizidunak. **14:15**Zu kazetari. **14:45**Berriak. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Animalia. **16:17**Teknopolis. **16:45** Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47**2x2. 1**8:15**Harmailatik. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Berbaire. **22:15**Musikantoi. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusten. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Ilunpean. **00:15**Emisio amaiera


Kantari
Debagoienean
Karaoke Ikuskizuna
Bergarako Jam Aretoan
Antzuolako eta Bergarako umeak
Azaroaren 25ean
• 1. saioa: 16:30ean
• 2. saioa: 17:15ean
• 3. saioa: 18:15ean
• 4. saioa: 19:15ean
Zatoz zure herriko kantariak animatzera!!
BABESLEA
gaztetxoen
elkartea
club juvenil
ANTOLATZAILEA
Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LAGUNTZAILEAK
L2tan KARAOKEA
ingou
ARANZADI ikastola
ELKAR HEZI
Arizmendi ikastola
goieskola
TXANTXIKU IKASTOLA

# Azaroak 23-30

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

## Musika



BERGARA
**> Athlete eta Wagon Cookin taldeek kontzertua egingo dute Jam aretoan**
Athlete taldeak estatuan emango dituen lau kontzertuetako bat Jamen izango da. Britainiarrek Beyond The Neighbourhood azkeneko lana aurkeztuko dute. Haiekin, Garaialde anaiek osatzen duten Wagon Cookin (argazkian) talea arituko da. 29an, 20:30ean.

## Ipuin emanaldia



OÑATI
**> 'Ipuin iberiarrak' delako emanaldia, helduendako, gaur, egubakoitza**
Balea-Artelanda produkzio etxeak egingo du emanaldia. Iberiar penintsulako bost ipuin kontatuko dituzte. Eskenatokian hiru musikari eta bi aktore arituko dira. Gaur, egubakoitza, da emanaldia, 22:30ean, Santa Ana aretoan.

## Karaoke ikuskizuna



BERGARA
**> Debagoienean Kantarik bigarren saioa egingo du Bergaran**
Aurreko domekan *Debagoienean Kantari*-ren lehenengo saioa grabatu zuten Bergarako 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek eta etzi, domeka, azkenekoa grabatuko dute. 16:30ean hasiko da, Jam aretoan.

# Musika

ARRASATE
**> EH Sukarra taldeak kontzertua egingo du**
Eibarko talde ezagunak 3.60 aretoan egingo du saioa.
Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

DURANGO
**> Golpe de Estado taldeak kontzertua egingo du**
Oñatiarrek Suspenders eta The Adicts taldeekin batera egingo dute emanaldia.
Gaur, egubakoitza, 22:00etan, Plateruenan.

BERGARA
**> Joseba Irazokik emanaldia egingo du gaztelekuan**
Berako musikariak Mikel Artieda baxu jotzailearekin saio akustikoa egingo du.
Gaur, egubakoitza, 22:30ean.

BERGARA
**> Bergarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua egingo du**
Santa Zeziliako kontzertua egingo du orkestra sinfonikoak. Emanaldiaren lehen zatian orkestrako haizeegurrezko taldeak hainbat obra egingo ditu; baita haize-metala taldeak ere. Bigarren zatian, orkestra sinfonikoak hiru obra joko ditu: Tschaikowskiren *Andante Cantabile*; Mel Brooksen *The Producers* musikala eta Shostakovichen *Waltz Nº2*.
Gaur, egubakoitza, 20:00etan, Mariaren Lagundiako elizan.

BERGARA
**> Disko jartzaileek emanaldia egingo dute Ziripot tabernan**
Gaur, egubakoitza, Koldo disko jartzailea arituko da eta bihar, zapatua, Dubby.
Biak ala biak, 23:00etan.

ARRASATE
**> Disko jartzaileek emanaldia egingo dute 3.60 aretoan**
Beñat silun soundzek jarriko du musika.
Bihar, zapatua, 04:00etan.

ESKORIATZA
**> Musika bandak Santa Zezilia kontzertua egingo du**
Musika Eskolako Bandak egingo du kontzertu hori.
Bihar, zapatua, 20:00etan, San Pedron.

ARRASATE
**> Madril eta Aretxabaletako taldeen kontzertua, gaztetxean**
Madrilgo Intensidad continua eta Aretxabaletako Los Rechazados punk taldeak egingo dute emanaldia.
Bihar, zapatua, 22:00etan.

BERGARA
**> Mahaster River taldeak kontzertua egingo du**
Bergarako taldeak San Martin plazan dagoen Galwai's Irish tabernan egingo dute kontzertua.
Bihar, zapatua, 23:00etan.

OÑATI
**> Herriko hainbat abesbatzek Santa Zezilia saioa egingo dute**
Ganbara Txikik, Ganbara Txikitxoak eta Tailer II taldeak egingo dute saioa. Haiekin batera, Tailer I taldeko umeek –4-5 urteko haurrak dira– estreinaldia egingo dute. Arrasateko Goikobalu Txiki eta Goikobalu Gaztek ere parte hartuko dute kontzertuan. Hainbat musika estilo entzuteko aukera izateaz gain, ezustekoak ere izango dira.
Bihar, zapatua, 19:00etan, Santa Anan.

ANTZUOLA
**> Hainbat taldek Santa Zezilia kontzertua egingo dute, bihar**
Irungo abesbatza, Antzuolako abesbatza eta Bergarako Musika Eskolako Antzuolako ikasleen abesbatza arituko dira.
20:00etan, Antiguako baselizan.

ARRASATE
**> Ruper Ordorika musikariak kontzertu egingo du**
Oñatiko abeslariak *Memoriaren mapak* izeneko diskoa aurkeztuko du.
Etzi, domeka, 20:00etan, Espaloian.

OÑATI
**> Herriko musika bandak kontzertua egingo du**
Bi zati izango ditu emanaldiak. Lehenengoan Oñatiko Musika Bandak bakarka jardungo du eta hiru obra egingo ditu. Bigarrenean, Oñatiko Abesbatzarekin batera arituko da eta bost obra egingo dituzte.
Etzi, domeka, 12:30ean, Santa Anan.

PROPOSAMENA

ARRASATE
**> 'El duo de la africana' zarzuela Izaskun Murgia elkarte lirikoarekin**
Ohiturari jarraituz eta beti Gabonen atarian, Arrasateko Izaskun Murgia elkarte lirikoak zarzuela berria prestatu du. *El duo de la africana* izeneko obra prestatu dute aurten eta aste bukaeran estreinatuko dute. Zapatuan 19:30ean egingo dute lehen emanaldia eta bigarrena, domeka, 19:30ean. Hilaren 30ean eta abenduaren 1ean ere saio bana egingo dute. Guztiak Amaia antzokian izango dira.



# Antzerkia

ARETXABALETA
**> 'Honolulu, leku bat' delako antzezlana**
Gilkitxaro antzerki taldeak egingo du antzezlan hori. Loramendi elkarteak antolatu du saioa.
Gaur, egubakoitza, 22:00etan, Express tabernan.

ARRASATE
**> Juan Rey komikoak saioa egingo du Iamai kafetegian**
Paramount Comedy telebista kateko aurpegietako bat da.
Gaur, egubakoitza, 00:00etan.

BERGARA
**> Umore gaua egingo dute Galway's Irish tabernan**
Toñin umoristak hartuko du parte.
Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

BERGARA
**> Eriz magoak emanaldia egingo du, Osintxu auzoan**
Mago ezagunak umeendako ikuskizuna egingo du. Kutxaren laguntzarekin antolatu dute saioa.
Bihar, zapatua, 17:30ean, ludotekan.

ESKORIATZA
**> Pirritx eta Porrotx pailazoek emanaldia egingo dute**
Ohi bezala, Eskoriatzan aurkeztuko dute ikuskizun berria pailazo ezagunek. *Eskerrik asko!* ikuskizunean, Mari Mototsek minbizia du.
Bihar, zapatua, 17:30ean, kiroldegian.

# Hitzaldiak

ANTZUOLA
**> Antzuolako historiaren gaineko hitzaldia**
*Antzuola barrutik bilatzen* delako hitzaldia egingo du Josu Tellabidek. Udalak eta erretiratuen elkartek antolatu dute.
Hilaren 29an, eguena, 18:00etan, Olaran etxean.

ARETXABALETA
**> AHTren gaineko berbaldia egingo dute**
Berbaldia antolatu du AHT gelditu! Elkarlanak. Hiru lagunek egingo dute berba: Ingurugiroa izango du berbagai Ekologistak Martxan taldeko kide eta EHUko irakasle Iñaki Barcenak; gastu sozialaz jardungo du Elkartzen taldeko Igor Uriartek; eta herri galdeketa eta egungo egoeraren berri emango du Aramaioko alkate Asier Agirrek.
Etzi, domeka, 12:00etan, Kurtzebarri eskolan.

DEBAGOIENA
**> Ciudad Juarezko (Mexiko) hilketen gaineko hitzaldi sorta**

*Emakumeen aurkako indarkeria: Ciudad Juarezko feminicidioa* delako hitzaldia egingo dute Julia Esther Canok eta Elia Escobedok. *Nuestras hijas de regreso a casa* elkarte mexikarreko kideak dira biak. Hainbat herritan izango dira hitzaldiak.

Elgeta: hilaren 23an, 19:00etan, Espaloia Kafe Antzokian.

Aramaio: hilaren 28an, 17:00etan, kultura etxean.

ARRASATE
**> Gazte kooperanteen esperientziak, Kulturaten**

Garapen bidean dauden hegoaldeko herrietan kooperante ibili diren ibarreko zazpi lagunek egingo dute berbaldia.

Hilaren 28an, eguaztena, 18:30ean.

# Erakusketak

BERGARA
**> Filatelia eta musika erakusketa batean batuta**

Batetik, Bergarako Filatelia Elkarteak zigiluak erakutsiko ditu, eta, bestetik, Bergarako Udal Musika Bandak argazkiak erakutsiko ditu.

Abenduaren 16ra arte, Aroztegin.

ARRASATE
**> 'Azala-azalaren kontra' delako erakusketa**

Gaztesareko Sextabaida gunetik antolatutako erakusketa da; Euskal Herriko gazteen eta sexualitatearen inguruko eztabaidaren harira egindako argazki erakusketa.

Hilaren 30era arte, Kulturaten.

# Ikastaroak

BERGARA
**> Komunikazioaren eta talde lanaren gaineko ikastaroa**

Lahar elkarteak antolatu du eta eskolak izango dira hilaren 26tik 30era, biak barne. Irantzu Gabilondok emango ditu eskolak. Doan da.

Izena emateko edo informazio gehiagorako deitu 943 42 80 13 eta 663 05 72 23 (Pedro Bilbatua) zenbakietara edo idatzi *gizalde@gizalde.com* helbidera.

# Ospakizunak

ANTZUOLA
**> Gaztaina jana egingo dute etzi, domeka**

Bertaratzen diren guztiei banatuko dizkiete gaztainak.

Etzi, domeka, 18:00etan, plazan.

ESKORIATZA
**> Gaztaina erre eguna egingo dute Luis Ezeiza ikastetxekoek**

Gaztainak jateaz gain, txokolatea ere jango dute eta hainbat tailer ere izango dituzte. Herriko ume guztiei dago zabalik ospakizuna.

Gaur, egubakoitza, 17:00etan, patioan.

# Bestelakoak

BERGARA
**> AHTren aurkako asteburua antolatu dute**

Bergarako AHTren kontrako taldeak antolatu du eta hainbat protesta ekitaldi egongo dira. Gaur, egubakoitza, 17:00etan, Urbinako ekintzen gaineko informazio panelak jarriko dituzte, San Martin plazan eta 19:30ean, batzar irekia egingo dute, gaztetxean. Bihar, zapatua, mendi martxa egingo dute, 09:30ean gaztetxetik abiatuta, Angiozarrera. Han azpiegitura erraldoiak eragingo dituen kalteen berri emango dute. 14:30ean, bazkari begetarianoa izango da gaztetxean eta gero, kafe tertulia AHT gaitzat hartuta. Bukatzeko, domekan, 18:30ean, *Trinomio kaotiko* antzezlana egingo du Terror antzerki taldeak, eta Kolo-klown taldeak, berriz, *Klownstrofobias* delakoa egingo du.

Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara arte.

ESKORIATZA
**> III. Ardo Dastatzea egingo dute eskoriatzarrek bihar**

Goizetik hasiko dira ekitaldiak, enologo batek Herriko Plazan egingo duen ikastaroarekin. Gero, triki poteoa egongo da. 19:00etan, berriz, ardo dastatzea egingo dute, Herriko Plazan eta dantzaldia ere izango da. Aurten, gainera, dastatzeari feria kutsua eman nahi izan diote. Hala, hiru ardo postu egongo dira: Larchango ardandegiak, Sonsierra ardandegiak eta Manso Anaiek hainbat ardo erakutsi eta salduko dituzte.

Aitzorrotz kultur elkarteak antolatu du eguna.

BERGARA
**> Patata feria eta pintxo lehiaketa egingo dituzte**

San Antonio auzoko Gure Ametsa elkarteak antolatu ditu. Pintxoei dagokienez, osagai nagusia patata izango da eta hiru pintxo onenak sarituko dituzte; aurkezpena, originaltasuna, osaketa eta zaporeak zeresana izango dute. Bestalde, 12 patata mota erakutsiko dituzte azokan eta patata dastatzeaz eta salmenta postuak ere izango dira. Horrekin batera, elkarte gastronomikoei zuzendutako lehiaketa ere egongo da: patatak saltsa berdean gertatu beharko dituzte partaideek.

Bihar, zapatua, goizez.

ARRASATE
**> Berehalako Lehen Mus Txapelketa jokatuko dute**

Hotel Mondragonek antolatu du. Izenematea dira 40 euro, bikoteko eta gehienez 50ek har dezakete parte. Lau sari egongo dira: 1.000 euro, txapela eta urdaiazpikoa; 500 euro eta oparia; 300 euro eta oparia eta oparia (diru kopuru horrek izango dira 50 bikotek izena emanez gero). Izenematea izango da egunean bertan, 16:15ak bitartean.

Etzi, domeka, 16:30ean, Hotel Mondragonen.

# Zinema




## Persépolis ***

**Zuzendaria:** Marjane Satrapi, Vincent Paronnaud.
**Animazioa**
Frantzia. 2007.
98 min.

Azken urteetan komiki ugari zinemara egokituak izan dira: *300*, *Sin city* edo *Mortadelo y filemón*, esate baterako. Kasu gehienetan aktoreekin eginiko filmak izan dira, eta kasu batzuetan aktore eta ordenagailuz eginiko efektuen nahasketa bat izan da. Lerrootan aipatzen dugun lana, *Persépolis*, marrazki bizidunak dira, baina komikien ezaugarriak mantentzen dituen marrazkiak.

*Persépolis* Marjane Satrapik eginiko komiki autobiografikoa da. Istorioaren hasieran Marjanek, komikiaren protagonistak, bederatzi urte ditu eta bere bizitza hurrengo 15 bat urteetan nolakoa izango den ikusteko aukera izango dugu: Pertsiako Sharen erorketa, Iran eta Iraken arteko gerra, fundamentalismo islamiarraren ondorioak, eta abar… Gertakizun eta istorioek Marjane eta haren familiarengan duten efektuen lekuko izango gara. *Persépolis* filmak badu salaketa orokor baterako balioa, baina benetan interes handia duena da Marjanen eboluzio pertsonalaren deskribapena: eskolara joaten denean, guraso, amona eta osabarekin duen harremana, Vienara joaten denean eta han nola konpontzen den: amodioak eta desengainuak, diferentzia kulturalak, bakardadea, etxerako buelta. Pertsonaiak haurtzarotik heldu izatera egiten duen bidea oso gertukoa eta ezaguna egiten zaigu.

Estetikari dagokionez, filmak jatorrizko komikiaren itxura hartzen du: ia dena zuri-beltzean da, irudien tratamendua, mugimendua izan arren, komikira hurbiltzen da: trazu xumeak eta atzealdeak biluziak dira.

*Persépolis* ez da film ikusgarria, apaindura gutxirekin edozeini gerta dakion gauzak ukitzen ditu, eta ezaugarri horiek xarma berezia ematen diote.

Antonio Zabala

### ARAMAIO
**KULTURA ETXEA**

**Zientzia fikzioa**
Domeka: 17:00.

### ELGETA
**ESPALOIA**

**Sherlock Holmes**
Domeka: 17:30.

**Terciopelo azul**
Eguaztena: 21:00.

### ESKORIATZA
**IBARRAUNDI MUSEOA**

**Maitagarri amandrea**
Domeka: 17:00.

### OÑATI
**KULTURA ETXEA**

**Un funeral de muerte**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Los seis signos de la luz**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**La vida de los otros**
Eguena: 20:00.

### EIBAR
**UNZAGA**

**Beowulf**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ
**GURIDI**

**Beowulf**
17:30, 20:00, 22:30.

**Rec**
17:00, 20:30, 22:30.

**Habitacion de Fermat**
18:30.

**The horros bus**
17:00, 18:45, 20:30.

**13 rosas**
22:30.

**El orfanato**
17:00, 18:50, 20:40, 22:30.

**Tierra**
17:00.
Egubakoitzean ez dago saiorik.

**Leones por corderos**
20:00, 22:30.

**Michael Clayton**
17:30, 20:00, 22:30.

**Envantada, la historia de Giselle**
17:00, 19:45, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Luz de domingo**
17:15, 22:30.

**Once**
17:30, 20:00.

**Elizabeth: La Edad de Oro**
22:30.

**Redacted**
17:30, 22:30.

**Las aventuras amorosas del joven Moliere**
20:00.

**La Torre de Suso**
17:30, 20:00, 22:30.

**Buscando a Emma**
17:30, 20:00, 22:30.

**Golpe de suerte**
17:30, 20:00, 22:30.

**La camarera**
17:30, 20:00, 22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**Beowulf**
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**Encantada**
12:15, 15:55, 87:05, 20:15, 22:25, 00:35.

**Rec**
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

**La sombra del reino**
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

**El orfanato**
12:15, 15:40, 17:50, 20:00, 22:10, 00:20.

**Michael Clayton**
12:15, 15:30, 17:45, 20:05, 22:25, 00:45.

**Leones por corderos**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Stardust**
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

**Tierra, la pelicula de nuestro planeta**
12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

**El caso Wells**
12:15, 16:20, 18:20.

**Resident Evil**
20:20, 22:20, 00:20.

**Ratatouille**
12:15, 15:40, 17:55.

**La habitacion de Fermat**
20:15, 22:15, 00:15.

**Cuestion de pelotas**
12:15, 16:10, 18:10, 20:10.

**Las 13 rosas**
21:55, 00:20.

**Los seis signos de la luz**
12:15, 16:30, 18:30.

**Promesas del Este**
20:30, 22:30, 00:30.

**Movida bajo el mar**
12:15, 16:10.

**Elozabeth: La Edad de Oro**
17:50, 20:10, 22:30, 00:50.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**Beowulf**
16:30, 17:00, 19:00, 19:30, 22:00, 22:30.

**Encantada: la historia de Giselle**
15:50, 18:10, 20:30, 22:45, 01:00.

**La sombra del reino**
15:50, 18:05, 20:25, 22:40, 01:00.

**Rec**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**Michael Clyton**
17:00, 19:25, 22:15, 00:45.

**El juego del amor**
18:10, 20:25, 22:35.

**Cuestion de pelotas**
16:15, 18:20.

**Los Totemwakers**
16:00, 18:00.

**Saw IV**
20:15, 22:25, 00:30.

**Las 13 rosas**
20:05, 22:40.

**Supersalidos**
15:50.

**El orfanato**
16:05, 18:15, 20:20, 22:25, 00:45.

**La torre de Suso**
16:00, 18:20, 20:30, 22:35, 00:45.

**Resident Evil**
16:10, 18:05, 20:10, 22:20.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Ratatouille** *****
AEB, 2007. Zuzendaria: Brad Bird. Marrazki bizidunak.
110 min.
Remy sagu mokofina da, eta ez da konformatzen zaborrontzietako jakiekin. Parisko jatetxe onenetako baten chefa izan nahi du.

**Adios pequeña, adios**
AEB, 2007. Zuzendaria: Ben Affleck. Aktoreak: Casey Affleck, Michelle Monaghan.
114 min.
Patric Kenzie eta Angie Gennaro detektibeak bahitutako lau urteko haur baten bila dabiltza, Boston hirian. Ikerketaren ondorioz, beren harremana, printzipioak eta bizia arriskuan jarriko dituzte.

**El caso Wells** *****
AEB, 2007. Zuzendaria: Andrew Lau. Aktoreak: Richard Gere, Claire Danes, Ray Wise.
101 min.
Errol Babbagek Gobernuarentzat lan egiten du, eta sexu delituak egin dituztenei gertutik jarraitzen die. 17 urteko neska gazte bat desagertu egin da, eta hori ikertu beharko du.

**El sueño de Casandra** ****
EB, 2007. Zuzendaria: Woody Allen. Aktoreak: Ewan McGregor, Colin Farrell, Tom Wilkinson.
108 min.
Ian eta Terry anaiek bigarren eskuko belaontzi bat erosi dute. Biak aktore gazte batekin maiteminduko dira. Bestalde, Howard osaba azalduko da eta legea haustera behartuko ditu. Horrek eragina izango du haiengan.

**El orfanato** ***
Espainia, 2007. Zuzendaria: Juan Antonio Bayona. Aktoreak: Belen Rueda, Fernando Cayo.
100 min.
Laura hazi zen umezurtz etxera itzuliko da, haur ezinduendako egoitza bat irekitzeko asmoz. Haren semea fantasiazko jokoetan sartuko da. Baina Laura ez da eroso sentituko, zerbaitek bere familia mehatxatzen duela pentsatuko baitu.

**Las trece rosas** *
Espainia, 2007. Zuzendaria: Emilio Martinez-Lazaro. Aktoreak: Pilar Lopez de Ayala, Veronica Sanchez, Marta Etura, Nadia de Santiago.
122 min.
1939. urteko apirilaren 1ean, tropa frankistak Madrilen sartuko dira. Errepresio luze eta gogorra pairatu beharko dute Errepublikaren aldekoek. 13 emakumek borrokan jarraituko dute, eta Francok haiek fusilatzeko aginduko du.

**Saw IV**
AEB, 2007. Zuzendaria: Darren Lynn Bousman. Aktoreak: Tobin Bell, Lyriq Bent.
108 min.
Kerry detektibearen hilketaren ostean, FBIko Strahn eta Perez agenteak ikertzen hasiko dira, Hoffman detektibearekin batera. Gauzak korapilatu egingo dira Rigg komandantea bahitzen dutenean.

**Stardust** **
AEB, 2007. Zuzendaria: Matthew Vaughn. Aktoreak: Claire Danes, Charlie Cox, Robert de Niro.
130 min.
Erresuma Batuko herrixka batek lurralde magiko batekin egiten du muga, baina inor ez da bertara sartzen. Gazte batek bere maiteari esango dio eroritako izar bat berreskuratuko duela, eta han sartuko da.

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2007-11-23

# Pirritx eta Porrotxen berriena

**ESKORIATZAN** Azken urteetan bezala, Eskoriatza aukeratu dute *Eskerrik asko!* ikuskizun berria estreinatzeko

**SARRERAK AGORTUTA** Ohi bezala, ordu gutxian agortu ziren aurrez salgai jarritako 1.400 sarrerak

**MINBIZIA** Ikuskizun berrian Mari Mototsek minbizia izan du eta gaixotasun hori "era alaian" islatzen saiatzen dira

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Pirritx eta Porrotx pailazoek ikuskizun berria aurkeztuko dute bihar, zapatua, Eskoriatzako kiroldegian, 17:30ean. *Eskerrik asko!* izena du eta Gipuzkoako umeek lehen aldiz ikusi ahal izango dute. "Gipuzkoari dagokionez, era irekian, Eskoriatzan estreinatuko dugu ikuskizuna", azaldu du Jose Mari Agirretxe *Porrotx*-ek.

Urte asko daramate Eskoriatzara joaten. "Ez naiz gogoratzen zenbat urte diren baina, hasi ginenean bibotea beltza nuen oraindik eta dagoeneko zurituta daukat. Atera hortik kontuak", azaldu du. Hala,"lagunak egiten ditugunean betiko egiten dugu eta ohitura onak zaintzen saiatzen gara", gaineratu du. Eskoriatzara joateko "aspaldiko ohitura dugu eta gustura gaudenez, horretan jarraituko dugu", jakinarazi du.

Ikuskizunerako 1.400 sarrera jarri zituzten aurrez salgai Eskoriatzan eta ordu gutxian amaitu ziren. Argi dago haurren eta baita nagusien gustukoak direla Pirritx eta Porrotx. Horren arrazoia, "urtetako lanean" dagoela uste du Agirretxek. "Barruan daukaguna ematen saiatzen gara eta azken urte hauetan Euskal Herrian gertutik bizi ditugun errealitateak kolore kutsu batez islatzen saiatzen gara", gehitu du.

**MARI MOTOTSEK, MINBIZIA**

*Eskerrik asko!* ikuskizunean ere hori islatu gura izan dute. Mari Motots gaixotu egingo dela azaldu du Agirretxek. "Urtero ospitalera egiten dugu bisita eta halako batean minbizia zuen Elgoibarko neskato bat ezagutu genuen, iaz. Hala, Mari Mototsek minbizia izatea otu zitzaigun, gaixotasun horri ikuspegi alaia emanez", azaldu du.

Ikuskizunarekin batera, liburuxka bat argitaratuko dute eta baita diskoa ere. Sorpresak ez dira faltako. Besteak beste, *Maite zaitut* abesti arrakastatsuaren bertsioa egin dute, katalanez. Ibarreko hainbat herritan ere egongo dira Pirritx eta Porrotx: Aretxabaletan, urtarrilaren 26an; Bergaran, Inauterietako zapatuan, eta Arrasaten, ekainean.



MARI MOTOTS Pirritx eta Porrotx Mari Mototsen ondoan izango dira, azken hori gaixotu egingo da-eta. GOIENKARIA

## ahobero

### "Euskara hizkuntza atzeratua da"

**Keith Johnson** > Kazetaria

Hilaren 6an, *Wall Street Journal* egunkariaren AEBetako edizioak euskararen gaineko artikulua argitaratu zuen. Keith Johnson kazetariak sinatutako artikuluan, euskara hizkuntza "atzeratua" eta "nekazaritza ingurukoa" dela esaten zuen. Ondo egingo luke Keith Johnsonek Euskal Herrira etortzen eta errealitatea ezagutzen. Hala, artikulua idazteko kontuan izandako lekukoek gezurra baino ez dutela esaten ikusiko zuen.

## iturri onetik

### Nork saltxitxa gehiago jan lehiatuko dira Arrasateko Dat tabernan, abenduan

Ez ohiko lehiaketa izango da datorren abenduaren 15ean Arrasateko Dat tabernan. Nork saltxitxa gehiago jango dituen erabakitzeko lehiaketa egingo dute. Lehenengoz antolatu dute eta oraingoz, zortzi lagunek eman dute izena. Lehiaketa 20:30ean hasiko da. Etxera afalduta joan gura duenak badaki non eman behar duen izena. Ondo pasa nahi dutenak ere gonbidatuta daude.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Antondegi

Donostiako Martutenen dagoen ingurua da, eta asteon jakin dugu 4.300 etxebizitza ekologiko han eraikitzeko dagoen asmo baten berri. Energia aldetik beregainak izango omen dira etxeak, eguzki plaka, haize-errota eta beste hainbat tramankuluri esker.

Oso ondo dago etxe beregainak eraikitzea, energia kontsumoaren hazkunde zoroari aurre egiteko. Baina Antondegikoari beste kirats bat dario lurrin ekologikoaren azpitik. Maiatzean 500 etxebizitza gutxiago ziren egitekoak, eta kalifikazio aldaketarekin operazio 'handia' iragartzen zuten orduko digitalek. Eta ze kristo!, puntu batetik aurrera neurririk ekologikoena da ez gehiago eraikitzea, besterik barik. Antondegiko tramankuluei zelofan eta lazotxo itxura hartzen diet, estalki soilarena.

## ai, ene!



### Bermut bikaina prestatzen duen makina

Bermuta prestatzea ez ei da horren erraza. Hori horrela, bermut ezin hobeak prestatzen dituen makina asmatu dute.

http://tinyurl.com/yp4qgh

